

**puntua**

**+**

Maidar Arregi bertsolariari elkarriketa

Olinpiar Jokoak: hiria eta kirolariak, biak olinpiko



## BEROALDIEI AURRE EGITEKO KLIMA-BABESGUNEEN MAPA EGIN DUTE BERGARAN

Kanpoko babesgune naturalei balioa eman diete; itxiak ere sortu dituzte, bero-alarma egunetan zabaltzeko / 20

Ama-semeak, Bergarako Usondo parkean itzalpean dagoen eserleku batean, martitzen arratsaldean. XABIER URTZELAI ATXA



Turistak Oñatiko Turismo Bulegoan. OIHANA ELORTZA GOROSTIZA

## Turista ugari izan da uztailean, eta abuzturako aurreikuspenak onak dira

Bailarako natur espazioez gozatzera etortzen dira gehienak; baita kultura-ondarea ezagutzera ere / 2

## Arantzazuren eta Euskal Herriaren etorkizuna aztergai EHUKo udako ikastaroan / 4

Arantzazuren bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer?

Uda Ikastaroa  
UZT. 22-23, 2024



## Autobus zerbitzu berezia iragarri dute San Inazio eguneko Urbiako ospakizunak direla eta / 28

### SINADURAK

	JESUS ARREGI BENGOA / 13
	OSKAR ELIZBURU / 6
	INAZIO NARBAIZA / 21
	DANIELA CASTRO / 9
	ITZIAR ALONSO AGIRRE / 29

### UDALDIA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:

**GOIENA:** irailaren 6an.

**'Puntua':** irailaren 6an.

Ondo ibili!

## Disfrutatu teknologiaz!

**Udalaitz**



Turistak Oñatiko Turismo Bulegoan informazioa eskuratzen. OIHANA ELORTZA GOROSTIZA

# Bada turismorik Debagoienez

Udarekin batera turistak heldu dira Debagoieneko herrietara. Natura-turismoa da nagusi ibarrean, baina ondare historikoak ere garrantzi handia izaten du jendea erakartzeko. Turista ugari izan dira uztailean, eta abuztuan ere hala izatea espero da

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA Turismoak badu eragina Debagoieneko herrietan. Duela urte batzuk barnealdeko herrien turismoa urri samarra zen arren, urteen poderioz ohiturak aldatzen hasi dira, eta Debagoienezan sumatzen dira aldaketa horiek. "Azken urteetan joera aldaketa bat gertatu da, jendea zuzenean hona datorrelako. Haien egonaldia hemen, barnealdean, egitea erabakitzen dute. Gero, hemendik mugitzen dira beste inguru batzuetara", dio Ikerne Altubek, Oñatiko Udaleko Turismo teknikariak.

Barnealdeko eta, bereziki, Debagoieneko turismoaren goranzko joera azaltzeko hainbat arrazoi daudela aipatu du Altubek: "Prezioa eta lasaitasuna aipatzen dira arrazoen artean, hirietan ez dagoen lasaitasuna hemen topatzen dutelako turistek. Gai-

nera, naturarekin harremana nahiko estua da". Ines Caceres Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikariak ere natura kontuak aipatu ditu Debagoieneko turistak erakartzen dituen faktore nagusi gisa: "Normalean, natura-turismoa bilatzen duen jendea etortzen da hona".

## Oñati eta Elgeta nagusi

Natura-turismo horren barruan, jendea ostatua dagoen edozein herritar mugitzen dela esan du Caceresek. Hala ere, bada guztien artean nabarmentzen dituen herriak: "Kokapen alde-rik, Arrasate, Elgeta eta Oñati dira erakargarrienak. Gehien Oñatik mugitzen dituela esango nuke, parke naturalaren eraginez. Elgeta ere bai; bertan jende asko ibiltzen da azkenaldian".

Altubek azaldu duenez, bisitariak Oñatiko Turismo Bule-

gora heltzen direnean asko galdetzen dute natur espazioengatik. Hala ere, haien artean bestelako azpi-turismo bat dagoela nabarmendu du: koba-turismoa. "Batzuek kobei buruz galdetzen dute, eta, orokorrean, koba-turismora bideratuta dagoen jendea da. Inguruko kobazuloen berri jakin nahi izaten dute, eta jateko zein leku dagoen inguruan".

## Natura baino gehiago

Debagoieneko natura-inguruek erakarri arren, hori baino askoz gehiago eskaintzen dute bertako parajeek. "Behin hona etorrita, ondare historikoa ikusteko aprobetxatu nahi izaten dute turistek. Oñatin, adibidez, bisita gidatuek arrakasta handia izaten dute. Aste honetan, adibidez, egun batean 60 pertsonako talde bat izan genuen", azaldu du Altubek.

Caceresek ere azpimarratu egin du turistek kultura-ondarean jartzen duten interesa: "Normalean, mendi irteera bat egin eta gero eguna bestelako kontuekin betetzen dute, izan museoak ikusi edo herriak bisitatu".

Kultura-ondareari dagokionez, Oñatiz gain, turistek Leintz Gatzagaren eta Bergararen gaineko interesa izaten dute: Gatzagan Gatzaren Museoa izaten da bisitatuena; Bergaran, berriz, esparrua gehiago ireki daiteke. "Aurten, bereziki eskatu den bisita bat Bergara Monumentala da, eta Laboratoriumen dagoen automaten gaineko aldi baterako erakusketa berria ere oso ondo funtzionatzen ari da. Museoa ere ondo doa, alde horretatik. Hiru bisita horiek dira eskatuenak", adierazi du Sonia Rodriguezek, Laboratorium museo arduradunak.

## 2023ko sariaren ondorioak

Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) *Best Tourism Village* saria eman zion joan den urtean Oñatiri, Uzbekistanen egin zen ekitaldi batean. Hain zuzen ere, Debagoieneko herria 2023ko herri turistiko onenaren aitortza jaso zuen. Hala ere, sariaren inpaktua mugatua izan dela azaldu du Altubek: "Lehen bi hilabeteetan bai nabaritu genuen. Orain, etortzeko deia baino gehiago, garrantzia bat bezala geratu delakoan nago, turismo estilo bati lotuta. Natura-inguru baten kokatutako garrantzia bat gara,

eta gure ondare horren ardura dugu. Ez da inolako pilaketarik egon, eta nabaritu dena hobera-ko izan delakoan nago".

## Uda ona establezimenduentzat

Ekaina eta, bereziki uztaila hilabete onak izan dira turismoaren ikuspuntutik. "Uztaila oso ondo joan da, jende asko ibili da Debagoienez", dio Caceresek. Altubek eta Rodriguezek ere baieztatu egin dute Bergaran eta Oñatin jende dezente ibili dela: bi herrietan joan den urteko antzeko kopuruak izan dituztela; Oñatin, akaso, zertxobait gehiago. Abuztua ere bide onetik doa, eta hainbat turista etortzea espero dute.

Turisten etorrerak establezimenduentzako onurak ekarri ohi ditu; bereziki, hirugarren sektorearekin lotutakoendako. Hotelak dira sektorearen zati garrantzitsu bat, eta pozik daude turismoak uztailean bitarte izandako inpaktuarekin. Oñatiko Etxeaundi hoteleko arduradun Xegun Altolagirrek dioenez, erreserba kopurua handia izaten ari da: "Iazko antzeko kopuruetan gabilta; okupazioa %80 ingurukoa izango litzateke. Hala ere, adibidez, astelehen, astea-

**OÑATI ETA ELGETA DIRA DEBAGOIENEAN TURISTA GEHIEN ERAKARTZEN DITUZTEN HERRIAK**

te eta asteazkenean beteta izan genuen hotela. 21 gela ditugu eta egunero hamazazpi gutxienez ditugu okupatuta; batzuetan, gehiago".

Abuztuari dagokionez, ohiko kopuruak espero dituzte Etxeandin: "Itxura normala du abuztuak; alegia, norbaitek orain hiru gau jarraian erreserbatu nahi izango balitu, zail izango luke. Lehen hamabostaldian, gutxienez. *Leihotxoak* gelditzen dira, egun baterako gela bat edo bi egunerako".

Oñatirekin jarraituta, Soraluze hoteleko Amaia Lizarralde ere adierazi du uztailean okupazio-maila handia dutela: "%88 inguruan egongo gara, gutxi gorabehera. Nahiko beteta dago, ikusten den moduan. Guk, askotan, lan kontuengatik etortzen diren pertsonak izaten ditugu hotelean, baina uztailean asko nabaritu dugu turismoaren gorakada". Abuztua ere bide beretik etorriko delakoan dago Lizarralde: "Lehen hamabostaldia nahiko beteta dago, eta, egia esan, bigarrena ere bai. Momentuz, uztaila baino gutxiago bete da, baina egun batetik bestera aldatu daiteke hori".

Hotelen gestioa erabat aldatu dela nabarmendu dute biek, eta azken orduko erreserbak gora doazela. "Orain, erreserbak egiteko modua oso erraza da, Booking bidez. Erreserba egin dezakezu, eta, nahi izanez gero, bertan behera utzi", dio Altola-girrek. "Lehen, epe luzera erreserbatzen zen, baina orain ohikoa da azken momentuan erreserbatzea", aipatu du Lizarralde.

Jatetxeek ere nabaritu dute; hori da Bergarako Sirimiri jatetxearen kasua. "Esango nuke turismoak modu nabarmenean eragiten duela ostalaritzan, nahiz eta Bergara ez izan horren turistikoa. Modu onuragarrian eragiten digu, salmenta gehien ditugun garaia izan ohi da", adierazi du jatetxe kide Miguel Angel Lopezek. Beste batzuek, berriz, turistei ongietorria egin arren, nahiago dute ohiko bezeroen aldeko apustua egin. Hori da Oñatiko Txopekua jatetxearen

## HOTELEK OKUPAZIO-MAILA HANDIA IZAN DUTE UZTAILEAN, ETA ABUZTU ONA ESPERO DUTE

kasua. "Abuztuan egun batzuetan ixten dugu. Bestela, turismoa eguraldiaren arabera nabaritzen dugu. Uztailean %20-edo ekarriko digu turismoak, eta abuztuan irekita gauden egunetan zertxobait gehiago", dio Txopekuako Jesus Arzuagak.

### Turisten jatorria

Caceresek dioenez, turisten jatorria aldatu egiten da hilabetearen arabera: "Ekainean eta uztailean nazioarteko jende asko etortzen da. Abuztuan ere etor-

tzen dira, baina portzentajea jaitsi egiten da, nazional gehiago etortzen direlako".

Era berean, turista asko Herrialde Katalanetatik eta Madrildik etortzen dira. Atzerritarrei dagokionez, frantsesak dira gehien etortzen diren turistak. Gainontzekoak Europako beste lurralde batzuetatik datoz; adibidez, Herbehereetatik, Belgikatik eta Alemaniatic. Hala ere, Debagoiena bisitatu nahi duten turista gehienak euskal herritarrak dira oraindik.



Loiuko aireportua. OIHANA ELORTZA GOROSTIZA

## Debagoiendarrak kanpoan

Turistak Debagoienara heltzen diren modu bertsuan irteten dira debagoiendarrak bailarako mugetatik kanpo. Udan ohikoak izaten dira Euskal Herri barruan egindako bidaia, txango eta egun-pasak, eta, nola ez, beste herriren batean dauden senitartekoak bisitatzera joatea, Euskal Herriko mugen barruan zein kanpoan.

Hala ere, askoz urrutiago bidaiatzen duenik ere bada, eta debagoiendarren opor lekuen artean bada bat besteen gainetik nabarmetzen dena: Makaronesiako uharteak. Bi uharte nabarmetzen dira: Cabo Verde eta Azore uharteak. "Bereziki, Cabo Verde eta Azoreserako bidaiak saldu ditugu", baieztatu du Bergarako Halcon Bidaiak-eko Maite Caballerok.

Eta hori bera baieztatu dute Arrasateko Nautalia Bidaiak-eko Beatriz Aldaik eta Ane Bereziartuak. Nautaliako kideek debagoiendarren bestelako helmugak ere aipatu dituzte: "Turkia, Errumania, Thailandia eta Grezia ere aipatu daitezke. Albania da jende ugari mugitzen duen beste leku bat". Estatu konkretu batzuk beste batzuk baino gehiago nabarmendu arren, orokorrean "denetik" dagoela adierazi dute Nautaliako bi kideek; debagoiendarrek estatu ugari zapalduko dituzte.

### Erosotasunaren bila

Ez da kasualitatea oporretan joateko aurten Cabo Verde eta Azore uharteak aukeratu izana. Beste urte batzuekin alderatuta berrikuntza bat dute zona horiek: Loiuko aireportutik zuzeneko hegazkinak jarri dituzte hara joateko. "Aurten hegazkin zuzena jarri dute, lehenengoz, Bilbotik, eta horrek jendea bultzatu du", dio Halcon Bidaiak-eko kideak. Erosotasuna dakar Bilbotik bertatik joan ahal izatea, inolako hegazkin aldaketarik gabe". Albaniaren goranzko joera ere arrazoi bertsuengatik gertatu da: "Albaniara joan den urtean jarri zuten zuzeneko hegazkina, eta aurten mantendu egin dute".

## Lankidetzak akordio bikoitza sinatu dute Ulmak eta MGEPk

Aliantza indartzeko eta talentu gazte espezializatua sustatzeko ekimen baliagarriak bultzatu nahi dituzte

G.B.Z. DEBAGOIENA

Irispen mugagabeko lankidetzak akordio bikoitza sinatu dute Ulmak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak. Hain zuzen ere, Ulma MGEPk kudeaketa organoetan partaidetza duen bazkide laguntzaile gisa aitortua izan da. Bi elkarten arteko aliantza indartu nahi da, gazte espezializatuak sustatzeko baliagarri diren ekimenak sustatzearekin batera.

Bi taldeetako ordezkariak pozik daude akordioarekin. "Etorkizuneko industria erakitzen ari gara, ikuspegi sozioenpresarialetik gure ingurunean eragin positiboa izaten jarraitzeko", dio Ulma Taldeko zuzendari nagusi Iñaki Gabilondok. Carlos Garciak, berriz, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile orokorra, honako hau adierazi

du: "Gure eginkizun nagusia Ulma Taldeko kooperatiben posizio lehiakor globala hobetzen lagunduko duen ezagutza teknologikoa transferitzea da. Ulma profesionalak, gure ikertzaileak eta gure ikasleak parte hartzen duten proiektuen bidez egingo dugu hori".

### Ulma gela

Elkarren artean lotuta dauden bi ondorio zuzen izango ditu hitzarmenak: alde batetik, Goi Eskola Politeknikoaren instalazioetan kokatuta egongo den Ulma Gela sortuko dute, ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetan lankidetzak errazteko. Horretarako, irailean, kurtso berriarekin batera hasiko diren bi katedra berri sortuko dituzte: *Adimen artifiziala* eta *Fabrikazio industrialeko prozesuen eraginkortasuna*.

## Hamasei lagun, aurten, Garabideren formakuntzan

Ekainean abiatu zuen Garabideko hizkuntza gutxituak dituzten komunitateekin ezagutzak eta esperientziak partekatzeko Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programa. Komunitate horiei euskararen esperientzia azaltzen zaie. Esperientzia eta jakintzak ere partekatzen dira, hizkuntza komunitateek elkarrengandik ikasteko. Hamasei hizkuntza

aktibistak ekin diote aurten formakuntza programari.

### Etxebizitza beharrea

Online da formakuntzaren lehen zatia, baina irailean eta urrian Euskal Herrira etorriko dira parte hartzaileak. Data horietan alokatzeko etxe bila dabilta Garabideko kideak, Leintz bailaran edo inguruko herrietan. Kontakurako, [inguruetan.aditu@garabide.eus](mailto:inguruetan.aditu@garabide.eus) helbide elektronikoa eta 688 60 97 40 zenbakia jarri dituzte eskuragarri.

MERKEALDIA APROBETXATU!

Abuztuan, hilabete osoan denda zabalik!



MULTIOPTICAS

943 79 29 95

🕒 9:30 - 13:30

ARRASATE

[www.multipopticas.com](http://www.multipopticas.com)



eskatu hizordua

Julen Murua Mesonero OÑATI

Arantzazuren eta Euskal Herriaren etorkizuna izan da hizpide oraingo astean Arantzazuko Gandiaga Topagunean; izan ere, *Arantzazun bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer?* izenburua duen udako ikastaroa egin dute EHUK, Arantzazulab-ek eta Joxe Azurmendi Katedrak han. Bi eguneko egitaraua izan dute, eta, Arantzazuren eta Euskal Herriaren etorkizuna berbagai izan duten mahai-inguruez gain, Arantzazuko Basilikako kriptan bisita gidatuak egin dituzte, baita Artasoko basoan barrena ibilaldi gidatuak ere.

Denera, 40-50 bat pertsona batu ditu ikastaroak; adin tarte guztietako pertsonak egon dira Gandiaga Topaguneko aretoan hizlariak esandakoa jasotzen eta ostean norberaren iritzia ematen, eta Antonio Casadok, ikastaroko zuzendarietako batek, "gertutasuna" nabarmendu du bi eguneko ikastarotik: "Ez genuen oso gauza masiborik egin nahi, ikasleen eta irakasleen artean distantziarik ez egotea nahi genuen. Hori egin ezean, oso zaila izango litzateke hurbiltasuna mantentzea. Publikoak Arantzazu oso ondo ezagutzen du, eta, horrenbestez, irakasleak ikasle ere bagara".

#### Esparru berriak sortzen

Mahai-inguruak egin dituzte ikastaroan, eta horietako bat Euskal Herriaren etorkizunarekin lotuta egon da; zehazki, etorkizun horrek Arantzazutik nola erantzuten duen landu dute, galdera honi erantzuna ematen saiatuta: *Behar al dugu gure herriaren biziraupenerako sustaioa gaien inguruan herri arbizioz aritzeko eta pentsamenduari berriak sortzeko gunerik?*

Hala, galdera erretoriko gisa planteatu zuen Casadok; izan ere, hizlariak izan ziren Urko Aiartza, TMelabeko zuzendaria; Gorka Espiau, Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria; Mireia Zarate, Sabino Arana Fundazioko lehendakaria; eta Naiara Goia, Arantzazulabeko zuzendaria. Galdera erretorikoa zela aitortu zuen Casadok, mahai-ingurua osatu zuten hizlariak "ordezkatzeko dituztelako" gune horiek. Hala ere, galderak izan zuen zeresana, eta izan zen hausnarketarako bidea; hain zuzen, hizlariak euren hausnarketak azaldu ostean



Pantailan Urko Aiartza eta mahaiari Antonio Casado, Gorka Espiau, Mireia Zarate eta Naiara Goia, Arantzazuko ikastaroko mahai-inguru batean. J.M.M.

## Etorkizuneko "galdera berriez" jardun dute aste honetan Arantzazun

Bi egunez jardun dute Arantzazuko Gandiaga Topagunean Euskal Herriaren etorkizunaz eta horretan Arantzazuk duen rolaz. Horren bueltako zenbait gai izan dituzte berbagai mahai-inguruetako hizlariak; bisita gidatuak ere egin dituzte

egon zen galderentzat eta ekarpenentzat tarte bat.

Urko Aiartza izan zen mahai-inguruan hitza hartzen lehena, eta pentsamendu berriak sortzeko gunea izateko ezinbestekotzat jo zuen: "Garai bat amaitzen ari da eta berri bat sortzeaz dago, eta ez dakigu Euskal Herriak erantzuteko gai izango garen. Horregatik, uste dut ezinbestean behar dugula esparru bat erron-

**"EZ GENUEN GAUZA MASIBORIK EGIN NAHI; IRAKASLEAK ERE IKASLE IZATEA DA HELBURUA"**



**ANTONIO CASADO**  
IKASTAROKO ZUZENDARIA

ka horien guztiei herri gisa erantzuteko. Gogoeta-esparru sendo bat eraiki behar dugu horretarako".

Espiau ere pentsamendu berriak sortzeko guneak egotearen alde egin zuen, eta argudiatu zuen oso beharrezkoak direla, baina ezinbestekoa dela "disruptzio esparruak gordetzea eta zaintzea. Euskal gizarteak azken berrogei urteetan bizitako ekimen garrantzitsuenak oso disruptiboak izan dira; baina gaur egun ez dugu gaitasunik disruptzio hori benetan gauzatzeko".

#### Arantzazuren rola

Aurrenekoz egin da udako ikastaroa Arantzazun, eta tokiak duen garrantzia azpimarratu zuen Goiak: "Arantzazuk asko du emateko; esan beharrik ez dago erreferentziazko gunea dela, elkargunea dela eta leku

maitea dela. Eta iruditu zaigu une egokia zela iraganaz eta orainaz hitz egiteko, baina baita galdera berriak proiektatzeko ere etorkizunera begira. Esaten da ez daudela munduan toki asko etorkizun galderak egiteko, eta Arantzazu bai da toki aproposa horretarako. Hori bilatu dugu, hemendik jaso dugunarekin lotu eta, etorkizunera begira, Arantzazu non kokatzen den

**"ARANTZAZUK ASKO DU EMATEKO; ERREFERENTZIAZKO GUNEA DA, MAITEA ETA ELKARGUNEA"**



**NAIARA GOIA**  
IKASTAROKO ZUZENDARIA

landu dugu. Uste dut ausardia izan dugula galdera berriak egiteko Arantzazuren etorkizunari buruz, baina, hortik harago, baita Euskal Herriaren etorkizunari buruz ere".

Etorkizun horri buruz hitz egin zuten gainontzeko hizlariak, eta Espiauk gehitu zuen "Arantzazuk dituen erronkak Euskal Herriak dituen erronka berak" direla eta "Arantzazuri buruz hitz egitea euskal gizarteari buruz hitz egitea" dela. Era berean, Arantzazuk ematen duen berrikuntza disruptiboa ere aipatu zuen: "Berrikuntza perspektibatik, Arantzazuk berrikuntza disruptiboa eman du historian zehar, eta gaur egun ere jarraitzen du. Hori da, bereziki, euskal gizarteak momentu honetan behar duena. Ditu-gun erronkak ez dira txikiak, sistemikoak dira, eta ez dago erronka horiek aurrera eramatea posible dela esaten duen ebidentzia zientifikorik".

#### Herri nortasuna berbagai

Gaur egungo globalizazioak "nazio sentimendua ahultzea" eragin duela aipatu zuen Zaratek. "Belaunaldi berriak mundu internazionalizatuago batean bizi dira, mundu osoko pentsamoldeak askoz ere errazago iristen zaizkigu eta hedabideen eragina ere hor dago. Euskal gizartearen zati batentzat, beharbada, nahikoa da orain arte lortutakoa, baina guretzat ez. Beraz, beharrezkoa da euskal

gizartean nazio sentimendua handiagoa izatea", zioen Zaratek. Nazio sentimendua galtzarekin batera, "ikuspuntuko kolektiboa ere desagertzen" ari dela adierazi zuen Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, eta horrek, era berean, "herri nortasuna galtzea" eragiten duela hausnartu zuen. Galera horri buelta emateko fundazioek rol garrantzitsua dute, haren hitzetan: "Hemen gauden fundazio guztiok badugu zeregin garrantzitsua. Bakoitzak bere ikuspuntutik eta bakoitzak bere ideiarekin, baina nazio nortasuna proiektatzeko lan egin behar dugu guztiok batera. Euskal kulturaren, euskararen eta nortasun kontzeptuaren gaurkotatzea bermatu behar dugu, erakusteko euskarra, euskaldun izatea eta globalizazioa bateragarriak direla; euskalduna zarela, baina modernoa ere bai,aldi berean. Uste dut kontzeptu horiek batzea lortu dugula, adibidez, musikarekin, modarekin edo industria-rekin. Zergatik ez dugu lortuko gure nortasunarekin?"

### "Jauzi bat emateko garaia"

Etorkizuneko galderei erantzuna emateko asmoz, "jauzi bat emateko garaia" dela esan zuen Goiak, belaunaldi berriei transmisio-lan horretan ere laguntzeko: "Anbiziozko jauzi bat eman nahi badugu, agian, beste testuinguru eta errealitate sozial bat eraiki behar dugu; baldintza sozial berria behar dugu, gizartetik abiatuta. Nola bermatu dezakegu transmisioa gure ondorengoek ez bakarrik entzun, baizik eta jaso eta praktikatu dezaten guk jaso dugun hori? Ba al dugu interesik datozen belaunaldi horiek eta oraingoak subjektu herrigile egiteko eta

gure balioen kontzientzia euri helarazteko? Nire ustez, ez da inor hori egiten ari".

Proposatzen duen hori gertatzeko, Arantzazuk badu ekarpenik egiteko, Goiaren arabera: "Gune sinboliko izate horretatik etor daiteke haren ekarpena, ezberdinak batzaren prestutasun eta tradizioetik. Nik irudikatzen dudun erreazio gizarte dinamika horren abiapuntu izatea itzela litzateke, beste erabaki eta jauzi handi asko ere hemen [Arantzazun] gertatu diren moduan".

Hori guztia esanda, aldarri batekin amaitu gura izan zuen Goiak mahai-inguruan esandakoa: "Badakigu gauza askotan ez gaudela ados, baina erdigunean jarri beharko genuke zerk batzen gaituen, gure herriak bizirautea nahi baldin badugu".

### Balorazio positiboa

Aurreneko aldia da Arantzazun udako ikastaro bat egiten dutena etorkizuneko galderak erantzuteko asmoz, eta Goiak, zuzendariak, ikastaroak eman duenaren balorazio positiboa egin du: "Jakinda uda garaian horrelako ikastaro bat prestatzea ez dela batere erraza, oso balorazio positiboa egiten dugu. Sentitzen dugu esperientzia bat eskaini dugula, ohiko solasaldiez gain egin ditugulako bisita gidatuak eta erakusketetara bisitak. Funtzionatu duela esango nuke, jendea etorri da, publiko ona izan du eta gustura egon dira. Gaur esan digute, batez ere halako galdera potoloei heldu diegun egunotan, honek jarraitzea izan behar duela. Zergatik ez du jarraituko Arantzazuk galdera berriak egiteko gune izaten? Uste dut egingo dugula beste ikastaro bat".



Maider Kortajarena, Jose Ramon Aranbarri, Maite Peña, Raul Torres eta Elena Urdaneta, Miramarko ekitaldian. SAN JUAN DE DIOS

## Osasun mentala lantzen San Juan de Diosen

Haurren eta gazteen osasun mentaleko "perspektiba berriak" lantzen dihardu San Juan de Dios ospitaleak, eta, horretarako, Donostiako Miramar jauregian elkartu dira ospitaleko ordezkariak, eta arlo horretako jakintzan sakontzea izan dute helburu

### J.M.M. ARRASATE

San Juan de Dios ospitaleko Espainiako eta Hego Euskal Herriko ordezkariak izan dira Donostiako Miramar jauregian, *Perspektiba berriak haur eta gazteen psikiatrian: eguneratzea eta etorkizunerako begirada* izeneko saio akademikoan.

Hain zuzen ere, etengabeko bilakaera izaten ari den arlo horretako jakintzan sakontzea izan dute helburu. Tartean ziren eskualdeko ordezkariak ere, eta Arrasateko osasun zentroan martxan dituzten ekimenen berri eman dute, besteak beste. Horien artean Bizigazte unitatea eta EKKO programa nabarmentzen dira.

### Bizigazte unitatea eta EKKO

San Juan de Dios ospitaleak Bizigazte izeneko unitatea du iaztik, 10 eta 18 urte arteko gazteei zuzenduta. Helburua da tratamendu psikohezitzailea erabiliz pazienteen oreka kliniko lortzea.

Adin txikikoak diren eta babesgabatasun egoeran daudenei zuzendutako lehen zentroa dela azpimarratu dute, eta, beraz, beste helburuetako bat da haurrek eta gazteek euren egunerokoarekin jarraitzea. "Horregatik, eskola-birgizarteratzean ere badihardugu lanean".

Era berean, EKKO programa ere zuzentzen du San Juan de Diosen: "Lehen Hezkuntzako

gazteei, haien familiei eta irakasleei zuzendutakoa da, nagusiki Aretxabaletan eta Eskoriatzan lantzen ari direna. Adikzioen prebentzioan egiten da lanketa".

Azken urteetan gazteen artean kontsumoa jaitea lortu dutela azaldu dute San Juan de Dios ospitaleko ordezkariak mintegian, baina bestelako arazoak ere identifikatu dituztela: "Antzietatea, elikadura nahasmenak edota teknoadikzioak".

Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñak instituzio publikoen eta hirugarren sektoreko entitateen arteko elkarlanean oinarritutako Gipuzkoako ereduari eman dio balioa.

## Hizlarien artean, debagoiendarrak

Bi eguneko egitarauak eman du hainbat kontuz hitz egiteko eta zenbait adituri hitza emateko. Hitza hartu duten horien artean egon dira bailarako kideak; zehazki, Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko irakasle aretxabaletarra eta Joxe Mari Arregi frantziskotar, Arantza Etcheberria filosofo, Iñaki Martinez de Albeniz soziologo eta Paulo Agirrebaltzategi euskaltzain oñatiarrak.

Hizlarien artean horrenbeste debagoiendar eta, zehazki, horrenbeste oñatiar egotea ez da kasualitatea, baina ezta nahita egin duten aukeraketa ere, Antonio Casadok dioenez: "Programa egin eta gero konturatu gara, baina egia da Oñatik lotura handia duela Arantzazurekin. Hizlarien artean bi frantziskotar eta EHUko bi irakasle daude; landuko diren gaiekin lotura handia dutenak".

## Garraio publikoan emakumeen segurtasuna lantzeko batzarra

Arrasateko alkate Maider Morras eta Oñatiko alkate Izaro Elorza parte hartzaileen artean izan dira

### J.M.M. DEBAGOIENA

Arrasateko alkate Maider Morras eta Oñatiko alkate Izaro Elorzak Lurraldebusen indarkeria matxistaren aurkako lehen protokoloa osatzeko topaketa-errondan hartu dute parte.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, eguaztenean egin zuten batzarra, Elgoibarren. Han izan zen Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatu Azahara Dominguez ere.

Beste bi topaketa egin ditu Aldundiak helburu berarekin: hilaren 19an Orion eta 22an Larraulen, eta Orio, Aizarnazabal, Azkoitia, Irun, Errenteria, Azpeitia, Aduna, Alegia, Asteasu, Larraul, Orexa, Villabona eta Zizurkilgo ordezkariak hartu dute parte; guztiak emakumeak. Garraio publikoaren erabileran segurtasunari eragiten dioten gaiak jorratzeko eta autobus geltokiak indarkeria matxistarik gabeko espazio egiteko abiarazi dute lanketa.



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

## Joskera ez da jolasa

Aurreko batean, Egañaren testutxo bat irakurri nuen *Berria*-n, eta, han botatakoak buruan, gaur hausnarketatxo egiteko aukera hau baliatuko dut: lehenengo, neure buruari adi egoteko eskatzeko; eta, bigarren, irakurleren bat ere pentsatzen jartzeko asmoz.

Eta zer bota zuen, ba, Andonik? Kezkatuta zegoen, euskarazko *-a* artikulua nahi baino gehiagotan ez erabiltzeko joera daukatelako hainbat euskaldunek. Adibide gisa "platano nahi duzu?" eta "jolasteko, patinete eramango duzu?" esaldien estilokoak jarri zizkigun. Argi dago gaztelaniazko joskera dagoela horren guztiaren atzean. Gurean, "platanoa" edo "platanorik" erabili beharko genuke, egoeraren arabera.

Gogoan daukat Plaentxian euskaldun elebakarrak zeuden garaia –hau da hau zahartzearen zahartzea!–. Bazen gure ama jaio zen pareko

### ESAMOLDEEK, HITZEN ORDENAK ETA BESTELAKO GUZTIEK ERAKUSTEN DUTE GURE IZENA ETA IZANA

etxean Pastora izeneko andre bat, eta hark gaur egun gertatzen denaren kontrakoa egiten zuen –betiere, kontuan hartuko dugu euskarazko joskera zuela gramatika bakarria buruan–. Eta grazia

ematen zigun, eta barre egiten genuen harenak entzutean: "Pastora, ¿has visto a las lecheras del caserío San Marcial?" galderari honela erantzun zion, apur batean pentsatu ondoren: "San Martzial de chicas, calle han ido, diez minutos o serán".

Gaur egun, horren pare edo okerrago egiten dugu, zoritxarrez, euskaraz; gaztelaniazko ordena eta joskera *normal* bihurtu dugu. Eta, txarrena, konturatu ere ez!

Joskera ez da jolasa, hizkuntzaren mamia eta hiztunen izateko moduaren ispilua da, benetan; eta esamoldeek, hitzen ordenak eta bestelako guztiek erakusten dute gure izena eta izana.

Eroso berba eginda transmititzen da joskera egokia, euskaraz gozatzen dugunean, geuretik irteten denean, berez. Zenbat eta gehiagotan erabili, orduan eta hobeto egingo dugun zalantzarik ez izan; animatuko al gara? Dena dela, euskararik onena darabilguna da; ez erabiltzea da okerrera!

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Rolak eta maniak

#### ANE SANCHEZ GOYOGANA

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/OJ96K](https://labur.eus/OJ96K)

Arraun taldeetako kideek denbora ugari pasatzen dute elkarrekin, familia eta lagunekin baino gehiago, gehienetan.

Kide bakoitzak bere izaera, maniak eta ohiturak ditu, eta horiek ez dute elkarbizitza beti erraza egiten taldekide guztien artean.

Batzuetan eztabaida txikiren bat ere sortzen da.

Talde moduan lan egitea eta bakoitzaren gauza positiboak batzea da elkarrekin helburu beraren

bilatu joateko gakoa, baina eztabaida txikiak ere egunerokotasunaren parte dira.

Traineru barnean hamalau pertsona, bakoitza bere maniek.

Batzuek nahiago dute isiltasuna, trastez betetako poltsak sartzen dituzte trainerura, prestatzen azkarrak direnak ere badaude, eta baita argazkiak hamar bider ateratzen dituztenak ere.

Aldiz, beste batzuk ezin isilik egon, beti gauzen faltan eta eske dabilzanak, prestatzeko denbora ugari behar dutenak, eta argazki bakarria ere egiten ez dutenak ere badaude.

Horiek egunerokotasunaren parte egitea eta denen artean errespetatzea ere talde lana da.

Aldi berean, denen izaerak eta rolek talde bat aurrera eramaten dute.

Izaera handia dutenek indarra atera eta taldea estutuko dute, urduritzen direnak badaude eta baita haiek lasaituko dituztenak ere bai, burua hotz mantentzen dutenak, traineruaren martxa sentitzen dutenak, eta abar.

Bakoitzak bere rola du, eta den-denek dute zer emana taldeari.

Hori ulertzean egiten da talde bat txapeldun.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
 Kooperatiba Elkarte  
 Otarala Lizentziaduna 31  
 20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
 Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
 Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
 Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
 Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
 Imanol Soriano,  
 Aitor Lagoma,  
 Amaia Martínez de Arenaza.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
 Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
 Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
 Otarala Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
 Otarala Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
 Otarala Lizentziaduna 31  
 132 posta-kutxa  
 Tel.: 943 25 05 05  
 Telegram eta WhatsApp:  
 688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
 Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## BERBAGAI

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE Txomin Maidagan (Arrasate, 2004) musikariak Orkestra Zuzendaritza ikasketak egingo ditu Musikenen, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian, Donostian. Plaza gutxi daude, eta jende asko bertan ikasteko gogoz; hala, lortu du bertan ikasteko proba gainditzea, eta, hain zuzen ere, haren ikasketa prozesu berriarekin pozik eta has-teko gogoz dago musikari arrasatearra.

**Musikenen ikasteko hautatua izan zara; ez da erraza izaten bertan sartzea, ezta? Zergatik?**

Ez da erraza izaten, baina espezialitatearen arabera da hori. Plaza gutxi eta jende asko izaten da, eta maila handia da. Zuzendaritza-probak, bereziki, zaila-goak dira, proba gehien eskatzen dituen espezialitatea delako: piano-probak, zure instrumentuaren proba, entzumen-proba, diktaketa, analisisa, harmonia eta zuzenketa-proba. Maila handia eskatzen da, eta, beraz, horregatik ez da erraza. Gainera, urtero bi plaza bakarrik eskaintzen dituzte, eta aurten hamabi geunden. Azkenean, bi pertsona ez dira aurkeztu; hain zuzen, zortzi pertsona orkestrarako ziren eta lau pertsona abesbatzarako.

**Zer-nolako ikasketak dira Orkestra Zuzendaritzakoak?**

Edozein gradu bezala, lau urteko ikasketak dira. Nire asmoa ez zen aurten sartzea Musikenen; jende askok egiten du; hau da, probatzerara joan, ikusi zer den, eta hurrengo urtean saiatu. Ez zait uste moduan atera, zuzentzen ikasten duzu, entsegu bat nola eraman, teoria musikala... Abesbatza Zuzendaritza dago, baita



Txomin Maidagan musikari arrasatearra, zuzentzen. DANEL EZPELETA

## "Musikenen ikastea saria da, ez baita erraza sartzea"

### TXOMIN MAIDAGAN MUSIKARIA

Orkestra Zuzendaritza ere; bi espezialitateak eskaintzen dira, baina graduoko lehenengo bi urteetan bi atalak lantzen dituzu eta, hirugarren urtetik aurrera zure espezialitatean sakontzen duzu. Musikenez gain, beste hainbat kontserbatorio musikal on daude; Bartzelonan, ESMUC, Kataluniako Goi Mailako Musika Eskola, esaterako; asko atzerrira joaten da... Eta Musikene Euskal Herrikoa da, gertu dago, prestigioa du Estatuan, baita European ere, eta hori ere oso garrantzitsua da.

**Izango duzu erreferentziako irakaslerik Musikenen?**

Koru Zuzendaritzan Basilio Astulez zuzendari gasteiztarra dago irakasle, adibidez. Vocalia taldea zuzentzen du, Leioa Kantika Korala haur abesbatza... Prestigioa du; ospea duen euskal zuzendaria da, mundu koralean oso ezaguna. Gero, Orkestra Zuzendaritzan, iaz egon zen Arturo Tamayo zuzendari espainiarra; aurten, berriz, Jon Malaxetxeberria zuzendari gernikarra sartu da. Lagunak ditut han ikasten, eta esan didate

**"URTERO BI PLAZA BAKARRIK ESKAINTZEN DITUZTE, ETA AURTEN HAMABI GEUNDEN"**

**"IDEALENA ORKESTRA ZUZENDARI EDO KORU ZUZENDARI GISA BIZI AHAL IZATEA IZANGO LITZATEKE"**

irakasle oso ona dela hura. Oraingoz, hori aurreratu dezaket. Bestalde, bertan ikasi zuten zuzendaritza Aitor Biain eta Esteban Urzelai oñatiarrek.

**Lagunen babesa ikasketa-prozesuan ere garrantzitsua izango da.**

Jon Larrauri lagun gasteiztarrekin batera sartu naiz Musikenera. Euskal Herriko Gazte Abesbatzan, Donostiako Orfeoian eta Suharren ere abesten dugu batera, eta elkarrekin batera aurkeztu gara; bera Abesbatza Zuzendaritzara. Esperientzia politagoa eta hobe izango dela uste dut.

**Zer aterako duzu ikasketetatik?**

Idealena orkestra zuzendari edo koru zuzendari gisa bizi ahal izatea izango litzateke. Ez da erraza zuzendari asko daude-eta... Hala ere, ikusiko dugu. Ikasteko gogoz nago eta hobetzea da nire asmoa. Ikusiko dugu zer datorren...

**Gaur egun, Suhar abesbatzako kide zara, eta Txinan egon berri zara, gainera; esperientzia aberasgarria izan da?**

Uztailaren 13an irten ginen Bilbotik eta hilaren 22an bueltatu gara. Duela urtebete, Mariborren egon ginen, Eslovenian, jaialdi batean parte hartzen, eta handik iritsi zitzaigun Txinara joateko gonbidapena. Abesbatzen jaialdi-joan, eta han hasierako emanaldia egin dugu; gero, beste bi kontzertu; Esteban Urtzelaiak, koruko zuzendariak, eskola magistral bat eman zuen... Eta hori zen hasierako plana. Baina han geundela, Pekindik 800 kilometrorra dagoen Qingdao hirian ere abesbatzen jaialdi bat egiten da, eta bidaiari hiru egun luzatu eta han bi kontzertu eta eskola magistral bat izan genituen.



### Realaren eta Real Madrilen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Reala-Real Madrid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Partidua irailleko hirugarren asteburuan izango da

Parte hartzeko azken eguna: irailaren 6a.

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**



**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!



**Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!**

**goiena<sup>''</sup> kide**

**Okm:** batzen gaituen distantzia

# Udala auzoa da Udalaren erronka nagusietako bat

Badira urte batzuk auzo-alkatea eta hiru batzarkideak aukeratzeko sistemak arazoak sortzen dituela bizilagunen artean, eta bizilagun talde batek salatu du hamahiru hilabete daramatzatela gestio batzorde gabe; auto pilaketan arazoa ere salatu dute

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Joan den agintaldiaz geroztik, hainbat arazo eta desadostasun sortu ditu auzo-alkatea eta hiru batzarkideak aukeratzeko sistemak, eta Udala bitartekaritza lanak egiten ari da orain. Hala, asteon egin dute hautatze sistema aukeratzeko bozketa –ez dituzte emaitzak jakinarazi–, eta udazkenean aukeratu dituzte lau ordezkari horiek.

Bizilagun talde batek salatu du Udala auzoak hamahiru hilabete daramatzala gestio batzorderik gabe. "Hauteskunde prozesua 2023ko abenduan jarri zen martxan, gestio batzordea berritzeko asmoz. Herriko alkatezak, ordea, bere agintea ezarri, hauteskunde prozesua bertan behera uztea erabaki zuen, martxan zegoen prozesuaren inguruan kexatzen zen salaketa bat jaso zutela argudiatuz", nabarmendu dute. "Aurreko legealdian ere salaketa beraren prozesua gertatu zen eta Udaleko idazkaritzatik, hauteskunde prozesua egokia zela argudiatuz, itxi egin zuten kasua".

Hain zuzen, diote azken dokumentu horretan oinarrituz hasi zutela hauteskunde prozesu berria, "gerora geldiarazi egin zutena", eta egoerari irtenbiderik eman ez izana leporatu diote Udal Gobernuari: "Udaleko idazkaritzak egokia zela esan zuena badirudi orain ez dela horrela; egokia zer den ere ez dute esaten. Auzoari kontsentsua eskatzen zaio, baina gure proposamenak manipulatu egiten dira. Azkenean, hauteskunde prozesua auzoarena ez den proposamen batekin jarri delako martxan".

Idatziari erantzunez, Udal Gobernuak dio bitartekaritza lanak egin behar izan dituela auzotarren artean, haien arteko desadostasunak direla eta. "Aste honetan bozkatu den proposamena auzoan adostutakoa izan



Autoak bide bazterrean aparkatuta Udala auzoan. GOIENA

## UDAZKENEAN AUKERATUKO DITUZTE UDALAKO AUZO-ALKATEA ETA HIRU BATZARKIDEAK

da, Udaleko idazkaritzaren oniritzi juridikoari egokিতuta, legeak hala behartuta. Udalean ordezkariak duten alderdi guztiek bat egin dute egindako urratsekin", zehaztu du.

### Auto pilaketan arazoak

Era berean, uztailekin batera, "auzoko data kritikoenak" iritsi direla ere salatu dute bizilagunek. "Denok ezagutzen dugu Udala auzoa, baita udan baserrietako sarrerak eta bertako ohiko lanak egitea oztopatzen dituzten hainbeste autorekin-eta gertatzen dena ere; larrialdi egoeraren bat izaten bada gertatu litekeena ere ahaztu gabe".

Egoera "krispazio handia" eragiten ari dela gehitu dute, auzotarren eta bisitarien artean, bereziki. "Udalaren partetik, berriz, pasibotasun harrigarria, ez dituelako bermatzen arauak

betetzea eta auzotarren eskubiak. Udal honen jarreraren eta interes ezkutuen inguruko duda asko ditugu, gure pazientzia eta krispazioa mugara eramaten ari dira. Horregatik, premiaz eskatzen diogu Arrasateko Udalari gatazka hau konpontzeko neurriak hartzeko".

### Autobusa erabiltzeko deia

Auto masifikazioaren "arazo larriari" aurre egiteko autobus zerbitzua martxan jarri duela azaldu du Gobernuak: "Aurten, uda garaiko autobus zerbitzua proiektu pilotu gisa jarri da. Erantzun positiboa izaten badu, datozen urteetan uda osora zabalteko asmoa du Arrasateko Udalak". Horren harira, herritarrei gogorarazi die autobus zerbitzua ostiraletik igandera martxan dagoela, abuztuaren 4ra arte. "Auto pilaketak ekiditeko, autoa herrian utzi eta autobusez igotzera animatu gura ditugu herritarrek".

Halaber, Gobernuak hainbat bilera egin ditu bizilagunekin, auzoetako erronkak zeintzuk diren jakiteko, eta "urte luzez egin ez diren politikak egiteko borondate osoa" du.

## Bakarrik bizi diren adinekoen gaineko azterketa egingo dute

Udalak galdetegi bat egingo die 55 urteko herritarrei, telefonoz, zahartze osasungarriari buruz ikertzeko

**E.A.B. ARRASATE**

Arrasateko Udalak galdetegi bat egingo du, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, eta hura egiten ari den zahartze osasungarriaren gaineko ikerketa baten testuinguruan. Galdetegia datozen asteetan egingo dute, telefonoz, "eta hamar bat minutu" izango dira. Bakarrik bizi den adineko jendea buruzko azterketa egingo dute Arrasaten datozen asteetan, telefonoz. Inkestak 55 urtetik aurrerako pertsoneri egingo dizkiete, aurrez ezarrita baita-

go adin tarte bakoitzeko eta genero bakoitzeko lortu nahi den erantzun kopurua. 318 erantzun lortu nahi dituzte –89 erantzun 55 eta 64 urte artekoen artean; 83 erantzun 65 eta 74 urte artekoen artean; eta gainerako 146 erantzunak, 75 urtetik gorakoen artean–.

Ikerketaren ondorioak "oso lagungarriak" izango dira aurrera begira hartuko dituzten erabaki urbanistikoegi begira, Udal Gobernuaren esanetan. Hori dela eta, galderak erantzuteko eskaera egin du.

## Abuztuan ez da martxan egongo TAO sistema, irailaren 2ra arte

Emakume Txokoa itxita egongo da gaurtik aurrera eta Uarkapeko gimnasioa martitzenean itxiko dute

**E.A.B. ARRASATE**

Abuztuko oporraldiak eraginda, hainbat ordutegi aldaketa izango dira Arrasateko udal zerbitzuetan datozen asteetan. TAO sistema, esaterako, ez da martxan egongo abuztuaren 1etik irailaren 2ra arte.

Biztanleriaren Arreta Zerbitzua, bestalde, 09:30etik 14:00etara egongo da zabalik astelehenean egubakoitzera, eta domeketan itxita egongo da.

Kiroldegiei dagokionez, Uarkapeko gimnasioak atek itxiko ditu datorren martitzenetik,

uztailaren 30etik, irailaren 2ra arte. Musakolako kiroldegia, aldiz, ez dute itxiko eta 09:00etik 21:00etara emango du zerbitzua abuztu osoan. Igerilekua, modu berean, 10:00etatik 20:30era egongo da erabilgarri egunero.

Udal Biblioteka, bestalde, 09:30etik 14:00etara egongo da zabalik astelehenean egubakoitzera, eta zapatuetan zein domeketan itxita egongo dira bi bibliotekak –helduena zein haur eta gazteena–. Santa Marinako biblioteka, azkenik, itxita egongo da abuztu osoan.

## Microliquid: langileen %70ek onartu dute azken proposamena

Microliquid enpresak 24 behargini enplegua erregulatzeko espediente aplikatzeko asmoa zuela salatu zuen ekainaren 19an LAB sindikatuak, Zuzendaritzak Enpresa Batzordeari hala jakinarazita, eta greba mugagabea abiarazteko erabakia hartu zuen orduan. Negoziazioak iraun bitartean, langileen mobilizazioak egin dira, eta hainbat asanblada;

azkenean, langileen %70ek onartu dute enpresaren azken proposamena. Hala, enplegua erregulatzeko espedienteak hamabost pertsonarengan izango du eragina, eta horietatik zortzik "borondatezko atxikipena" izango dute. Beste bi puntu ere zehaztu dituzte: "Lan egindako urte bakoitzeko, 40 eguneko soldata ordainduko zaie indennizazioztat; antzinasunetik ez duten kasuetarako, 8.000 euroko gutxieneko indennizazio bat ordainduko da".



# 2025eko egutegirako argazkiak behar dituzte

Bigarrenez egingo dute egutegiko argazkiak aukeratzeko lehiaketa, Udalak eta Artgazki elkarteak elkarlanean. Arrasaten jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek, herrikoek zein kanpokoek, izango dute parte hartzeko aukera -16 urtetik gorakoak-

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasate, herri bizia. Hori da 2025eko egutegia osatuko duten argazkiek ardatz izan beharko duten gaia. Hala, ezinbestean, Arrasaten egindako argazkiak izan beharko dute, 2023ko urritik 2024ko urriaren 15era bitartean. "Halaber, positiboki baloratuko dira auzoetako argazkiak edota Arrasateko aniztasuna islatzen duten argazkiak", azaldu dute udal ordezkariak.

Argazkiek "originalak eta argitaratu gabeak" izan beharko dutela gaineratu dute. "Lehiakideak izango dira aurkeztu dituzten obren erantzule, baita lanaren gain hirugarrenen aurkez lezaketen edozein erreklamazioren aurrean ere, hala nola egiletzari, irudi eskubideei, originaltasunari, antzekotasunari, kopiari eta abarri dagozkiekenak". Era berean, lehiaketatik kanpo geratuko dira bereizkeria, arrazakeria, homofobia, indarkeria edo sexismoa iradokitzen duen argazki oro.

## Urriaren aurkeztu behar dira

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu. Hala ere, pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dira, gehienez. Guztiak batera bidali beharko dira.

Argazkiak 2024ko urriaren 1etik 15era aurkeztu beharko dira, biak barne, [egutegia@arrasate.eus](mailto:egutegia@arrasate.eus) helbidera bidalita, gaian *Egutegirako argazki lehiaketa* adieraziz. Mezuan datu hauek agertu beharko dira: egilearen datuak -izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia- eta argazkiaren lekua eta data.

## Hamahiru argazki

Epaimahaiak hamahiru argazki aukeratu ditu, hilabete bakoitzeko bat eta azaleko argazkia. Irabazleek herriko komertzioe-

tan gastatzeko 150 euroko bonua jasoko dute. "Argazkiaren kalitateaz gain, egutegiari koherentzia eta gorputza emateko irizpideak ere hartuko dira kontuan".

Epaimahai sei kidek osatuko dute: Arrasateko Udaleko bi ordezkari, Artgazki elkarte bi ordezkari, Ibai-arte ordezkari batek eta ostalarien taldeko ordezkari batek osatuko dute.

Saritutako argazkiek 2025eko Arrasateko egutegia osatuko dute eta Udalak "nahi dituen helburu guztietarako" erabili ahal izango ditu.



2024ko egutegiko apirilko argazkia. RICARDO SANTA CRISTINA

## Egun handia dute gaur, egubakoitza, Ferrerrias kalean

Urtero moduan, uztailaren 26arekin batera ospatuko dituzte Ferrerrias kaleko jaiak. Goizeko etxafuegoen ostean, txistularien kalejira egongo da 12:00etan; 17:00etan, haur-jolasak eta txokolata-jana; 19:00etan, erraldoien konpartsa txikia eta txistularien kalejira; 19:00etan, meza parrokiari; 21:00etan, kale afaria; eta 23:00etan, dantzaldia.

## Abuztuaren 24an ospatuko dituzte Uribarriko jaiak

11:30ean, umeentzako puzgarriak eta buruhandiak egongo dira; 14:30ean, bazkaria egingo dute, kantuz eta musikaz lagunduta; 16:00etan, mus txapelketako partidak hasiko dituzte eta arratsaldean puzgarriak izango dituzte, Akorde taldearen musika emanaldiaz gain; azkenik, bertso saioa eta bolo txapelketa egingo dituzte, 22:30ean hasita.

## Jai giroan murgilduko da Zarugalde kalea abuztuaren 31n

Uribarriko jaien ostean etorriko dira Zarugaldekoak. Egun osoko egitaraua prestatu dute eta afarirako txartelak dagoeneko salgai dituzte, Muxibar jatetxean, Ennea dendan edo 617 42 97 34 telefono-zenbakira deituta. Afariak gain, mus eta partxis txapelketak, buruhandiak, txistulariak, zezensuzkoa eta dantzaldia egongo dira, besteak beste.



NIRE USTEZ

DANIELA CASTRO

## Errolda soziala zertarako?

Erroldatzea figura administratibo bat da eta, guztia ondo egonda, Espainian bizi den herritar orok eskubidea eduki beharko luke. Izan ere, erroldatzea oinarriko eskubideen bermea da; osasungintzarako eskubidea, umeen eskolaratzerako eskubidea, lanerako eta etxebizitzarako eskubidea, hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea eta abar. Hala ere, eskubide hau urratu egiten digute behin eta berriz, herritar asko zaurgarritasun eta eskusio egoeran egotera. Errolda sozialak bermatzen du, hain zuzen ere, eskubide horiek ez urratzea. Mugimendu sozialari esker, errolda soziala eskuratzeko ekimena martxan dago udal askotan, eta horrek ahalbidetzen du etxebizitzarekin arazoak dituzten herritarrek edota zaurgarritasun egoeran daudenak erroldatu ahal izatea. Horrek, norbanakoan eskubideak bermatzeaz gain, gizarte inklusiboago eta ekitatiboagoak sortzen laguntzen du. Ez da betirako konponbide bat, noski, munduko herritar guztiok izan beharko genukeelako etxebizitza duin, seguru eta kalitatezko bat, baina borroka hori guztiok elkarrekin egin beharko dugu.

PUBLIZITATEA

VITALDENT  
%15eko deskontua<sup>1)</sup>  
HORTZ-ESTETIKA  
24 hilabetera finantzatzuz gero<sup>2)</sup>



ARRASATE  
Otalora Lizenziaduna kalea 1  
943 06 03 22

(1) Promodioa 01/07/01etik 31/08/31era era bitartekoa da, biak barne. Onartutako aurrekontuaren guztizko zenbatekoari aplikagarria. 250 eurotik gorako tratamenduetarako. Ezin da konbinatu beste deskontu eta promozio batzuekin. Egiaztatu zure tratamenduaren tarifa zure Vitaldent klinikan. Preskripzio medikoen menpekotasunak. Osasun Erregistroa: CS10715. (2) 24 hilabeteen 1.800€-ko finantzaketaren adibidea. Formalizazio-kuota: %2: 36 € lehen ordainketan. 111 euroko lehen kuota eta 75 euroko 23 kuota. ITN %0,0. APR: %1,96. Kredituaren kostu osoa: 36 €. Zordun kopetsua eta guztizko prezioa zatituta: 1.836 €. Eskudirutasun eskuratzeko prezioa: 1.800 €. Vitaldentek diruz lagundutako interesak. Banco Cetelem S.A.Uk etikaintzen duen finantzaketa. Baliozkoa 2024/12/31ra arte. RPS 255/21

# Ixotu irristaketa taldea sortu dute Arrasaten

Bergarako Burdinola taldearen proiektua haziz doa, eta Arrasateko neska-mutiko mordoak dabilta bertan irristaketan eta hockeyan. Eskaera horri erantzuteko sortu dute taldea Arrasaten; helduei ere irakatsiko diete irristaketan, ikastaro bidez

**Xabier Urtelai** ARRASATE

Herrian beste kirol klub bat izango da aurrerantzean: Ixotu. Irriestaketa eta hockeya ez dira kirol jarduera berriak, baina Arrasaten ez da halako klubik egon orain arte, eta eskaera bat asetzeko asmoz dator Ixotu. "Bergaran badugu Burdinola taldea, eta Arrasateko neska-mutiko mordoak bertan dabilta irristaketan eta hockeya praktikatzeko. Euretako batzuekin Iturripen entrenatzen gara, eta patinatzen ikasteko leku aproposa da Iturripen, baina zerbitzu batzuk falta zaizkigu; esaterako, komunak. Hala, Udalean eskaera egin dugu, baina esan digute edozein eskaera egiteko klubak herrikoa izan behar duela, eta horregatik erabaki dugu ofizialki Ixotu sortzea, Arrasateko behar bati erantzuteko", adierazi du klubeko zuzendari Zorione Pildainek.

Ixotuko lehenengo ekimena uztaileko campusa antolatzea izan da, baina, horrekin batera, datorren ikasturtera begira ikastaroak antolatuko dituzte: "Berez, eskola mailako neska-mutikoekin hasiko gara, irailean bertan Eskola Kirolekoekin. Eta ondoren joango gara eskaerak bideratzen".

**Burdinolarekin eskutik**

Pildainek garbi daukana da Burdinolak eta Ixotuk eskutik joan behar dutela. "Orain momentuan Burdinolako zuzendaritzako taldean ere banago, Agustín [Oianguren] ere bertako entrenatzailea da. Oraingoz, Ixotun gazteekin hasiko gara, eta hockeyan lehiatu gura duenak hor du Burdinolako taldea; talde horrek txapelketa garrantzitsuetan parte hartzeko aukera emango die gazte horiei".

Hala, izena emateko interesa duenak [ixotu.irristaketa@gmail.com](mailto:ixotu.irristaketa@gmail.com) helbidera idatzi dezake, edo 630 71 92 67 zenbakira deitu.



Ixotuko campusean esku hartuko duen gazte kuadrilla. J.MURUA

## Ixotuko arduradunen esanak



**AGUSTIN OIANGUREN** IXOTU TALDEKO ENTRENATZAILEA

**"Urtean zehar ikastaroak ematea da asmoa"**

"Hilabete honetan udako campusa eskaintzen hasi gara, eta bada gurasoei zerbitzu bat eskaintzeko modua. Goizez egiten ditugu lau ordu, baina ez gaude denbora osoan patin gainean, larregi izango litzateke. Ikusten duguna da gazte asko daudela irristaketan ikasi nahian. Gero, urtean zehar LH-3tik gora eskolak antolatuko ditugu, eta gurasoek esan digute eurek ere irristaketan ikasi nahi dutela, eta, horrenbestez, helduendako ere antolatuko ditugu ikastaroak".



**ZORIONE PILDAIN** IXOTU TALDEKO ZUZENDARIA

**"Arrasateko gazte asko dabilta Burdinolan"**

"Herriko neska-mutiko asko Burdinolako taldean dabilta, eta entrenamendu saio batzuk Iturripen egiten ditugu, leku egokia delako irristaketan egiteko. Baina zerbitzu batzuk falta zaizkigu eta horiek Udaleri eskatzeko taldeak bertakoa izan behar du. Hori izan da kluba osatzeko arrazoia, baita herrian dagoen eskaerari erantzuna emateko modua ere. Garbi daukaguna da Arrasatekoekin batera ateaik bailara osora daudela zabalik; gazte zein helduak etor daitezke lasai asko".



Mondragon Unibertsitateko neskek, ligako partiduetako batean. GOIENA

## Mondragon Unibertsitatekoak hasi dira denboraldia prestatzen

Bi talde nagusiek denboraldia urriaren 5ean hasiko dute, eta dagoeneko badakite ze aurkari izango dituzten

**X.U.** ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko talde nagusiak dagoeneko hasi dira datorren denboraldira begira lanean, eta erronka ez da makala: gizonetako EBA kategorian lehiatuko dira eta emakumezkoak, LF2 mailan. Mailaz igo berri diren neskei dagokienez, talde moreari B multzoan lehiatzea egokitu zaio, eta, ondorioz, lau bidaia egingo dituzte Kataluniara, bi Galiziarra, bi Gaztela eta Leonera eta behin joango dira Asturiasera, Mallorcara, Galdakaora, Logroñora eta Iruñera. Lehenago, baina, MUko neskek irailaren erdialdean Euskal Kopa jokatu dute, eta bertan aurkari izango dituzte Challenge Ligako taldeak.

Ointzeko Kirol Zuzendaritzak badaramatza aste batzuk taldea osatzeko lanetan. Entrenatzaile aldaketa izango da, eta *Arri-k* beharrean Carlos Garcia sevillarrak gidatuko du aurrerantzean Mondragon Unibertsitatea. Estatuko eta nazioarteko saskibaloian oso esperientzia zabala du Garciak, Mexikon, Ekuadorren, Irlandan eta Espainiako lehiaketetan gidatu baititu saskibaloitako taldeak.

Jokalariei dagokienez, honako sei jokalaririk hauek osatuko dute hasierako egitura: Izar Bedia, Naiia Badiola, Nerea Kabue, Oihane Sarasti, Naroa Zabala, eta Naroa Garai. Kanpoko bi jokalaririk ere izango dira taldean: Gasteizko Sonia Gutierrez, LF2 Ligan ibilitakoa Barakaldoko taldearekin; eta Ordiziako Are-

ne Etxeberria, aurreko denboraldian LF2 kategorian jokatu duena, Iraurgi taldearekin.

Hala, datorren urterako beharrezko diren gutxienezko laguntza ekonomikoak bermatu dituzte. "Arrasateko Udalaren laguntza funtsezko laguntza izan da, eta haren konpromisoa garrantzitsua, ez bakarrik aurrekontu ekonomikoari ekarpena egin diolako, baita instalazioak egokitzen ere lagundu digulako", adierazi dute klubeko ordezkariak.

**Berrocalek jarraituko du**

Gizonetako Mondragon Unibertsitatea EBA mailan lehiatuko da, baina aurrerantzean kategorian hori 3. FEB deituko da. Taldeari dagokienez, Julen Berrocalek jarraituko du izaten entrenatzailea eta David Peña izango da bigarren entrenatzailea. Jokalariei dagokienez, taldeak egitura oso antzekoarekin jarraituko du: Martxel Balanzategi, Aitzol Lagunilla, Ekaitz Madinabeitia, Markel Errasti, Marcos Aspizua, Asier Perez, Imanol Orue, Martin Buesa, Joseba Estalayo eta Miguel Zamora taldean izango dira. Aitor Carrerak beste urtebetez jarrai dezan nahi du Ointzek, baina oraindik ez dago gaia itxita.

**NESKEK GALIZIARA, MALLORCARA ETA KATALUNIARA BIDAIATU BEHARKO DUTE AURTEN**

Ines Osinaga, taldekideekin batera, *Itsasoa da bide bakarra* lana aurkezteko kontzertu batean. JONE ALBENIZ

# Ines Osinaga, "poligamia artistikoaren" itsasoan

Udazabal egitarauaren baitan, Ines Osinagak kontzertua egingo du bihar, zapatua, 22:00etan, Monterron parkean —euria egiten badu, Amaia antzokian—. "Kontzertura datorrenak bidaia bat aurkituko du, haren olatu eta barealdiekin", dio musikariak

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE 2022an kaleratu zuen *Itsasoa da bide bakarra* proiektua jaioterrian aurkezteko ordua iritsi zaio Ines Osinagari. Iaz aurkeztu zuen lehenengoz jendaurrean, Itziarren, eta gero, Habanara (Kuba) joan zen. Orduetik, hiruzpalau emanaldi besterik ez du egin, eta hori "hautu bat" izan dela azpimarratu du. "Ez dut nahi abiadura azkarrean doan trenean bidaiatu, egon nahi dudana lekuan egon baizik. Izan ere, badira urte batzuk musikari izateko bestelako moduak esploratzen nabilela. Badirudi agertoki eta bozgorailu handiekin egiten ez baduzu ez zarela existitzen, eta esango nizuke

inoiz baino lan gehiago egin dudala azken bi urteotan", adierazi du musikariak.

Dio "denbora luzea" bideratu duela sortzera, eta "poligamia artistikoarekin" asko ari dela disfrutatzen. "Konturatu naiz nire bertuteetako bat dela aldi berean hainbat lekutan egoteko daukadan irrika hori, eta kasu egin diot horri. Azken bi urteetan gauza asko egin ditut eta horietako bat izan da *Itsasoa da bide bakarra* aurkeztea. Ez da kontzertu erraza. Nazioarteko musikariekin egiten dugun emeraldia da, aurrelanketa handia eskatzen duena".

"Sekulako lantaldea" duela azpimarratu du: "Musikari bikainak

ditut ondoan, baita soinu- eta argi-teknikari zoragarriak ere. Biharko, gainera, Amaia Albes diseinatzailearekin kolaboratu dut eta jantzitegi berezia diseinatu dugu kontzerturako. Izan ere, gustatzen zait musikatik haragoko narratiba hori zaintzea". Ohikoa den moduan, Naile Sosa, Irina Gonzalez eta Yaima Orozco musikariak izango ditu alboan, Garazi Egiguren dantzariarekin batera. "Beti egoten da kolaborazioaren bat, baina bost horiek osatzen dugu banda".

**"Egonaldi artistikoa" Kuban** *Itsasoa da bide bakarra* "Kubako musikariekin egindako ikerketa batetik" sortu zela azaldu

du Osinagak. "Sarrrik [Joseba Sarrionandia] bere garaian Habanan idatzitako letra horiei tiraka, egonaldi artistiko bat egin nuen eta handik etorri nintzen Kubako hainbat musikariren lanari buruzko informazioarekin, eta ordu asko grabatuta. Hori guztia liburu eta disko batean ordenatu nuen".

Bihar Arrasateko ikus-entzuleek "bidaia horren zuzeneko emanaldi bat" ikusiko dutela iragarri du. "Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko bidaia bat izango da, haren zauri, dolu eta berrasmatze horiekin. Helburua da bakoitzak konektatzea bere dolu eta bidaiekin", nabarmendu du.

Beraz, proiektu hori izango da biharko emanaldiaren ardatza. "Diskoko kantu guztiak ez ditugu joko eta joko ditugun kantu guztiak ez dira diskokoak, baina kontatuko dugun istorioa proiektuaren ardatza da. Kontzertura datorrenak bidaia bat aurkituko du, haren olatu eta barealdiekin".

Hala, ondo bidean Monterron parkean egingo duten kontzertua "bidaia nola baiteko borobiltze bat" dela adierazi du. "Bidaia luzearen ostean, etxera itzultzea bezala izango da. Arrasatear bezala, zoragarria da Monterron proiektua aurkeztu ahal izatea, nire ahizpekin, nire gertukoekin eta nire herrian".

## Irailean, proiektu berriekin

Kontzertuaren ostean, abuztuan oporrak hartuko ditu. "Ez da ohikoena izaten musikari batek abuztuan oporrak hartzea, baina atseden hartu gura dut eta irailetik aurrera proiektu berriei heldu, asko ditut eta". Ez du, ordea, proiektu horiei buruzko aurrerapenik egin nahi izan.



Mingo Balaguer, eguaztenean. T.M.M.

## Blues Duet bikotea gaur, Arrasate Blues jaialdia borobiltzeko

Joan den asteburuko blues uholdearen ostean, patxadatik, "oso balorazio positiboa" egin du Ibai-arteko kide Jon Apraizek; arrasatearrek "goi mailako musikaz" gozatu ahal izan zutela adierazi du. Jaialdia borobiltzeko, Mingo Balaguer aritu zen eguaztenean plazan, eta gaur, egubakoitza, Blues Duet bikoteak kontzertua egingo du Mondragon Hotelean, 19:30ean.

## Arrasate Literatura Lehiaketako mikroipuak, irratian

AED elkartearen Arrasate Literatura Lehiaketara aurkeztutako bederatzi mikroipuak Arrasate Irratian entzun ahal izan dira, Ttak taldeko hiru kidek irakurrita: Haizea Iñarra, Nira Cid eta Izadi Zumalde. Aimar Elortzaren argazki batean oinarritutako mikroipuak *goiena.eus/irratia/mikroipuak* loturan entzun daitezke orain.



**Gualbi**  
aholkularitza  
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOULKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasosores.com

"Aupa!

Lortu dot azkenien!

Oin, Debagoienien

nun erosi neike

auto bat?"



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okm Gidaren  
eskaintza osoa.



Albinara gaua pasatzera egindako irteeran gazteak kontu kontari, atzean kanpin-dendak prest dituztela. GAZTE UDA

## Gaztetxoak primeran dabilta Gazte Udan

Gaur, egubakoitza, egingo dute azken irteera, Zarauzko hondartzara, baina hilabete osoan askotariko ekintzak egin dituzte; arrakastatsuena izan da kanpin-dendekin Albinara gaua pasatzera joan zirenekoa. 22 gaztetxo inguruk hartu dute parte

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Hilabete berezia izaten da utaila gazteendako. Aramaion Txirritola Euskara Elkartek antolatutako Gazte Uda izeneko egitasmoa izaten da martxan, eta, horren baitan, askotariko irteerak egin dituzte. Aurten goarekin, gainera, oso pozik daude antolatzaileak; izan ere, iaz baino gazte gehiago animatu dira ekintzetara: "12 eta 14 urte bitarteko 22 lagunek hartu dute parte aurtengo ekintzetan, eta oso pozik gaude izan duen harrerarekin. Iaz, hamabost lagun inguru ibili ziren, eta aurten gehiago izan dira. Gainera, antolatutako ekintzak ere oso ondo joan dira", adierazi du Txirritola elkarteak kide den eta Gazte Udako hezitzaileekin zubi lanak eta koordinazioan diharduen Irati Lasagak.

### Askotariko irteerak

Hilaren 4an egin zuten lehen txangoa, Zarauzko hondartzara.

Aramaiotik joan-etorria egiteko autobus konbinazio egokiak dituztela-eta hara joan ziren. Eguraldi ona lagun, primeran pasa zutela esan du Lasagak.

Horren ostean etorri zen aurtengo irteera arrakastatsuena: Albinara gaua pasatzera joatea. "Udalekuetako ekintza onena izaten da gazteendako, gaua etxetik kanpo pasatzen baitute. Kanpin-dendak eta lo-zakuak hartu eta Albinan lo egitea euren esperientzia oso aberasgarria da. Gauean kontu kontari ibili ziren asko", esan du Lasagak.

Beste batean, berriz, afari-merienda egin zuten Ganborralden. Kaletik oinez igo ziren gaztetxoak, nork bere etxetik eraman

**GAZTE TXOKOAN URTEAN ZEHAR LANEAN IZAN DIREN LAU HEZITZAILEAK IZAN DITUZTE LAGUN**

mandako jatekoarekin, eta iluntzera arte egon ziren han.

*Sukaldarien liga*-n, ostera, patata-tortilla onena egiten ibili ziren hiruzpalau pertsonako taldeetan banatuta; telebistako saio entzutetsuen pareko.

Gaur, egubakoitza, egingo dute azken irteera, eta Zarauzko hondartzara joango dira berrira.

### Aisialdia euskaraz

Urtean zehar gazte txokoan izaten diren lau hezitzaileak izan dituzte dinamizatzaile gaztetxoek hilabete honetako irteeretan: Leire Arrizabalaga, Izaro Diaz de Gereñu, Danel Herrarte eta Alaitz Isazelaia. Tartekatzen joan dira eta irteera bakoitzean bi hezitzaile joan dira gaztetxoekin batera.

Lasagak azpimarratu du urtean zehar gazte txokoan sortutako harreman hori mantentzen dela udako aisialdi eskaintza horrekin, eta garrantzitsua dela gazteek euskaraz ondo pasatzea Gazte Uda ekimen horren baitan.

## Etxaguenen eta Gantzagan argindarra moztuko dute bitan

Uztailaren 30ean eta abuztuaren 3an ordu erdiko argindar moztetako egingo dituzte auzo bakoitzean

### A.T.G. ARAMAIO

Argindar instalazioaren "kalitate eta fidagarritasuna hobetzeko" helburuarekin, Labeaga-goikoa baserriaren eta Etxaguen artean egiten ari diren obra dela-eta argi moztetako egingo dituztela iragarri du Aramaio argindar banatzaile Ion Errastik. Argi moztetek eragina izango dute, zehazki, Etxaguen eta Gantzaga auzoetan.

Uztailaren 30ean egingo duten esku-hartzea Etxaguen auzoan izango da, 09:00etatik 09:30etara bitartean, eta, horren ostean,

Gantzaga auzoan 09:30etik 10:00etara egingo dute.

Abuztuaren 3an, berriz, Etxaguen auzoan 12:00etatik 12:30era bitartean moztuko dute argindarra; eta Gantzagan, 12:30etik 13:00etara. Moztuko duten potentzia 150 kVA izango dela adierazi du Errastik. Azpimarratu nahi izan du, gainera, hornidura alde aurretik jakinarazi gabe berrezarriko dutela, eta, hain zuzen ere, esku-hartzeak irauten duen bitartean aparatu elektrikoak deskonektatzea gomendatu du.

### NIRE USTEZ



JESUS ARREGI BENGOA

## Jokaera adierazgarriak

Duela gutxi X. Irujok *Errozabalgo guda eta Iruñeko erresumaren sorrera (778-824)* hitzaldia eskaini zuen Bergaran. Garrantzitsua litzateke gure Estatu legitimoaren sorreraren 1.200. urteurrena ospatzea. Ekintza sinboliko indartsua, gure Estatu legitimo hori berreskuratzeko ahaleginak indartzeko. Baina bere burua euskal politikotzat aurkezten digutenek ez dute Euskal Estatuaren alde borrokatzeko asmorik, eta, ondorioz, ezta horrelako ekintza sinbolikoen beharrik ere.

Badakite, ordea, sinboloek garrantzi handia dutela, tartean euskaldunei ukatzen zaizkigun kirol selekzioak –ezertarako ez liratekeenak gure Estaturik gabe–. Pantaila galantak jarri zituzten hegoaldeko hiri nagusietan Eurokopako finala zabaltzeko. "Euskaldunen interesak" Madrilen defendatzen daudela bururatuko zitzaien ideia: sal diezaiegun espainiar selekzioa, bere estatuarekin, euskaldunen berezko selekzio eta estatutatzat.

Bitxia, "euskaldunen interesak" Parisen defendatzen dutenek, oraingoan, jai!

## Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroan izen-ematea zabalik

Datorren ikasturtean, irailetik aurrera, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa izango da, beste behe, eta dagoeneko eman daiteke izena, [aramaiokultura@gmail.com](mailto:aramaiokultura@gmail.com) helbidera idatzita. Abuztuaren 2ra bitartean eman daiteke izena, eta ikastaroa irailaren 25ean hasiko da; 18:00etatik 19:30era izango da. Plaza kopuru mugatua dago.

## Lagunartean dantza taldeak irakasle baten beharra du

Euskal dantza tradizionalak eta bestelako koreografia batzuk irakasteko irakasle bila dabil Aramaio Lagunartean dantza taldea. Interesa izanez gero, hiru bide daude eurekin harremanetan jartzeko: [lagunartean60@gmail.com](mailto:lagunartean60@gmail.com)-era idatzita, Instagramen [@lagunarteandantzataldea](https://www.instagram.com/lagunarteandantzataldea)-ra idatzita edota 626 37 22 06 telefonoan.

ANDRAMAIXAK 2024

# Sekula baino ekitaldi gehiago iragarri dituzte andramaixetarako

Abuztuaren 13tik 17ra ospatuko diren jaietako egitarau ofiziala prestatu dute Kultura Sailak eta Gazte Mugimenduak, eta GuGeu Atxabalta taldeak beste bat iragarri du

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Egunotan banatu dute abuztuaren 13tik 17ra bitartean ospatuko diren Andra Mari jaietako egitaraua etxerik etxe. Jose Luis Pulido Calvo diseinatzaileak egin du horren irudia, eta barruan jaso dituzte Udaleko Kultura Sailak eta Gazte Mugimenduak antolatutako ekintza guztiak. "Andramaixa *potenteak* izango dira, mimo handiarekin prestatu ditugu, eta espero dugu giro onean ospatzea", adierazi du Ibai Zangituk, Kultura zinegotziak.

Horren aurrekontua 130.855 eurokoa da: "Iazkoa baino handiagoa da, baina ahalegina egin dugu jaiak indartzen. Hala, herriaren erdiguneko beste gune batzuetan ere izango dira ekintzak; adibidez, Mitarte kalean eta Arlutzeko kantxan". Jaiak girotzeko, gainera, 1.000 lepoko zapi banatuko dituzte herritarren artean.

## Gune Morea

Indarkeria matxistatik gabeko jaiak aldarrikatu ditu Udalak, eta bi egunetan jarriko dute Gune Morea: abuztuaren 14an eta 17an. Mitarte kalean egongo da, 20:00etatik 01:00etara.

Gainera, telefono bidezko arreta-zerbitzua egongo da: Satevi, 900-84 01 11 – etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzat–; Ortzadar: 028 – LGTBI+fobiaren biktima izan diren pertsonentzat–; Ertzaintza: 943-53 47 20; eta Udaltzaingoa: 943-71 18 63. Lehenengo hirurak 24 orduz daude martxan.

**Txupinazoa, Loramendikoek**

Loramendi euskara elkarteko kideek botako dute txupinazoa aurten, jai ofizialei hasiera emateko; izan ere, 30. urteurrena ospatzen dabil euskara elkarteak. "Loramendik merezi du, euskararen aldeko lanagatik, baina baita beste hainbat esparrutan egiten duenagatik ere; aisialdian, esaterako. Gainera, uste dugu euskarak merezi duela jaietan ere erdigunean egotea, euskararen aurkako oldarraldien garaian", azaldu du Zangituk.

Andra Mari bezperan bi berrikuntza izango dira; batetik, erraldoi berriak aurkeztuko dituzte: "Xabi Mendizabal oñatiarra dabil horiek ontzen. Eta konpartsa bat martxan jartzekotan gabilta". Bestetik, alkate-soinua pregoiaren aurretik joko dute txistulariek, Andra Mari Egunean beharrean: "Doinu horrekin irtengo gara udalxetetik eta makila eta ikurrina herriari eskainiko dizkiegu".

**Haurrek eta nerabeek lekua**

Adin guztietako herritarrak izan dituzte gogoan egitaraua gertatzerakoan, eta, ohi legez, haurrak izango dira protagonista hilaren

16an, alkate txikiek gidatuta. Era berean, "herri gero eta inklusiboagoa izan dadin", ez dute musika-jarriko barraketan egun horretan, 17:00etatik 19:00etara bitartean, "behar bereziak dituzten haurrek ere goza" dezaten: Udaleko ordezkariak eskatu dute ilaretan lehenastuna emateko haur horiei.

Nerabeei ere egin diete lekua: "Holi Festa dibertigarria izango da. Eta aurretik Yogurinha Borrova egongo da, gazteendako prestatutako ikuskizunarekin".

**Emakumeen pilota partiduak**

Ohi legez, pilota partiduak ez dute hutsik egingo, baina oraingoan emakumeen arteko norgehiagoka gehiago izango dira: "Emakume kirolariei euren lekua eman gura genien jaietan". Andra Mari Egunean mutilen afizionatu mailako partiduak izango dira, batetik, eta Aritz Zugasti eskoriatzarrak jokatu du. Eta bestetik, elite mailako Udako Master Laboral Kutxa torneo dago; Irati Betegi aretxabaletarra izango da Larrarterekin bikote eginda eta aurrez aurre izango dituzte Etxegarai eta Osas oñatiarrak. Hurrengo



Udal ordezkariak hainbat eragilerekin batera jaiak aurkezten. IMANOL BELOKI

egunean, osteran, afizionatu mailan, Betegik Insausti antzuolarra izango du lagun, eta jaialdiko partidu izarra izango da Jakak eta Aranguren jokatu du tena Alberdi II.aren eta Albusuren aurka.

Bestetik, 85. ez antolatuko dute Leintz bailarako txirrindulari lasterketa 23 urtez azpiko eta elite mailakoentzat.

**Bazkariak eta sokamuturra**

Kirol ekitaldiekin batera sokamuturra ere klasikoetako bat da. Aurten, gainera, ibilbide barruko hesiak aldatu egingo dituzte, segurtasuna bermatzeko: "Beste hesi mota bat jarriko dugu. Taberna Berritik Gureara bitartean itxita egongo da, eta jende askok izango du lekua han". Sokamuturra gustuko ez dutenek beste ekitaldi batzuk izango dituzte; Radio Rebelde Covers taldearekin dantzaldia, esaterako.

Bestalde, Kuadrillen Eguneko paella-janerako leku guztiak, 680, dagoeneko hartuta daude.

**Askotariko emanaldiak**

Musikari dagokionez, estilo askok egingo dute bat plazan eta

kalean: mestizajearen aitzindari den Amparanoia taldeak kanta ezagunak eta azken diskokoak uztartuko ditu; Zaragozako Artistak del Gremiok txaranga doinu ganberroekin beteko ditu kaleak; Nafarroako Puro Relajok, osteran, mariatxi kantuak eroango ditu plazara; Iruñeko Goxua'n Salsak saltsa dantzatzeko aukera sortuko du; eta Kaparrak aretxabaletarrek "rumba doinu abstraktuekin" beteko dute Mitarte kalea.

**Indarkeria matxistatik ez**

Udalak bat egin du *Gure jaiak, berdintasunean* kanpainarekin. "Eraso matxistatik gabeko jaiak gurako genituzke", adierazi du Ainhoa Sanchezek, Berdintasun zinegotziak. Hala, Gune Morea izan ere bi egunetan jarriko dute, baina ordutegia zabaldua. Horrez gain, jarraibide batzuk zehaztu dituzte: "Eraso bat zer den eta horren aurrean zer egin jakiteko jarraibideak jasotzen dituen dokumentu bat egin dugu. Eta gure asmoa da datorren ikasturtean martxan jartzea prozesu bat, eragileekin eta herritarrekin, protokolo bat eratzeko Udaletik".


## Berritasunak

- **Erraldoi berriak** Abuztuaren 14an aurkeztuko dituzte eta Aretxabaletako gaiteroekin batera kalejira egingo dute.
- **Alkate soinua** Andra Mari Egunean beharrean, jaietako hasiera ofiziala ematerakoan joko dute txistulariek, udalbatza udaletxe aurrean elkartzeko unean; ondoren, herritarrekin batera, ikurrinari agurra egingo diote.
- **Hesiak** Abuztuaren 17ko sokamuturrean segurtasuna bermatzeko helburuarekin beste era bateko hesiak jarriko dituzte Durana kalean. Taberna Berritik Gureara bitartean itxita egongo da hesiarekin eta jende askok ikusi ahal izango du bertatik.
- **Zapiak** Herritarrek jantzi ditzaten prestatu ditu Udalak; kolore larriak duten 1.000 banatuko dituzte.



**SARA GUEDIANE ETA IRATI BETEGI**  
BELATEGI ALKATE TXIKIAK

"Oso pozik gaude eta urduri ere bai. Jaiak gustuko ditut, guztia gustatzen zait [Sara]. Baita niri ere; bereziki, gauean berandu etxeratzea [Izei]".



**IRATI BETEGI**  
PILOTARIA

"Pozgarria da andramaixetan etxean jokatzeko aukera izatea; denboraldia polita izan da, eta ea jaietan partidu txukunak egiten ditugun".

## Udalaren eta Gazte Mugimenduaren egitaraua

### Abuztuaren 13a

- **11:00** Auzolana.
- **18:00** Txosnagunearen irekiera eta protokolo aurkezpena.
- **19:00** DJ Reimy. Ostein, topa eta argazkia.
- **22:30** Kontzertuak: Andoni Ollokiegi, Virgin Mari eta DJ Putzu.

### Abuztuaren 14a

- **13:00** Marianito & pintxada, txosnagunean.
- **14:30** Gazte bazkaria. Ostein, bingo musikatu.
- **16:00** Jai-kanpaiak.
- **16:00** Mus Txapelketa, plazan.
- **16:00** Ur-puzgarriak, Arlutzeko kantxan.
- **17:30** Erraldoi berrien aurkezpena, gaiteroekin batera.
- **18:30** Kalejira eta olinpiadak.
- **19:00** Ikurrinari agurra. Ostein, pregoia eta txupinazoa.
- **Jarraian**, Artistak del Gremio taldearen kalejira.
- **20:00** Salbea, parrokiaren.
- **20:30** Dantzaldia Fan&Go taldearekin.

- **21:30** Ekitaldia, txosnagunean. Ondoren, kontzertuak: Rukula, Andrigina eta Xander.
- **22:30** Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna, kalean: *Su danborrak*.

### Abuztuaren 15a

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **11:00** Pilota partiduak, herriko pilotarien eskutik.
- **11:00** Udaltzaren eta Milagroko bandaren bisita zaharren egoitzara.
- **11:45** Elizbira.
- **12:00** Meza nagusia.
- **12:30** Pontx pailazoa, plazan.
- **13:30** Milagroko bandaren emanaldia, Durana kalean.
- **17:00** Pilota partiduak, pilotalekuan.
- **17:30** Haur eta gaztetxoentzat bola-txapelketa.
- **18:30** Kontzertua, txosnagunean: Danel Sarasua.
- **19:00** Yogurinha Borovaren *Amona Molona*, Mitarte kalean.
- **20:00** Holi Festa, Arlutzeko kantxan.

- **20:00** Dantza tailerra, txosnagunean.
- **22:00** Kontzertuak, txosnagunean: Zinez, Ithaka eta Añube. Ondoren, galtzontzilo eta kulero lasterketa eta DJ Aske.
- **22:30** Kontzertua, plazan: Amparanoia.

### Abuztuaren 16a

- **10:00** Leintz bailarako 85. txirindulari lasterketa.
- **11:00** Joko mitologikoak umeentzat, Herriko Plazan.
- **11:30** Alkate txikien pregoia eta boloa, udaletxe bakoitiko.
- **13:00** Txotxongilo emanaldia, plazan: *Alaia galtzagorria*.
- **14:30** Elkartasun bazkaria eta Upeide taldea, txosnagunean.
- **16:30** Jolas parkea, plazan.
- **17:00** Pilota partiduak pilotalekuan, afizionatu eta profesional mailetakoak.
- **18:00** Txikiringito disko-festa.
- **19:00** Bertso-poteoa.
- **19:30** Txita Sound System Muffin DJarekin.

- **21:00** Kontzertua, Mitarte kalean: Kaparrak.
- **22:00** Kontzertuak, txosnagunean: Zerendepya eta Etxekalte. Ostein, pintxada.
- **22:30** Kontzertua, plazan: Goxua'n Salsa.
- **22:30** Bola-txapelketa.

### Abuztuaren 17a

- **11:00** Diana txistulariekin.
- **12:00** Sokamuturra.
- **12:30** Dantzaldia Radio Rebelde Covers taldearekin, Mitarten.
- **14:30** Herri bazkaria, plazan. Gero, kuadrillen arteko jolasak.
- **15:30** Egur-jolasak, plazan.
- **18:00** Sokamuturra.
- **18:00** Sokamuturraren alternatiba, txosnagunean.
- **19:30** Kuadrillei sari banaketa.
- **19:45** Rockalean.
- **22:30** Kontzertuak, txosnagunean: Kilimak, Harricada, Altxa Porru. Ondoren, DJ Kalimounstro.
- **23:00** Puro Relajo mariatxi taldearen kontzertua, plazan.

### 'Hautsak harrotu' leloarekin

Atxabaltako Gazte Mugimenduaren egitaraua *Hautsak harrotu* leloarekin dator, eta abuztuaren 13an ekingo diete jaiak, txosnagunea irekita eta protokoloa aurkeztuta. Hain zuzen, txosnaguneko oholtzak musika talde mordoa elkartzeko dituzte bost egunetan; horien artean daude estilo asko batzen dituen Rukula Band, soinu ilunak egiten dituen Ithaka, rock doinuak erango dituen Zinez, Bermeoko Etxekalte, Kilimak rumba taldea, etxeko Zerendepya talde instrumental eta Debagoieneko kideek osatutako Añube. Horiez gain, aurten, Harricada taldeak Barricada talde ezagunaren kantuek ekarriko dituzte gogora. Eta DJak izango dira hainbat gautan. Beste ekitaldi batzuei ere ekingo diete lekua: dantza tailerrari, bertso-poteoari eta sokamutu-

## BI TXOSNAGUNE IZANGO DIRA AURTEN: EROSKI AURREALDEAN ETA KURTZEBARRI ESKOLAKO KANTXAN

rraren alternatiba izango den ekitaldiari, adibidez.

Txosnaguneko bazkariak daude, Gazte Egunean zein Elkartasun bazkariko txartelak Urbaltz tabernan dauzkate salgai.

### GuGeuren txosnagunea

Ekainean sortu zuten GuGeu Atxabalta taldeak ere prestatu du egitaraua andramaixetarako, eta txosnagunea Kurtzabarri eskolako kantxan jarriko dute. Kexu agertu dira Udaletik jasotako jarrerarekin: "Ez dugu inolako laguntzarik jaso eta gure egitaraua zapuzten saiatu dira, guk proposatutako lekuari trabak jarrita, adibidez; baina beste leku batean ezingo genukeen gure egitarauarekin aurrera egin". Dena den, jaietarako gogotsu daude: "Txosnagunea jarriko dugu gure baliabide urriekin, eta, ilusio handiarekin, egitarau xume bat prestatu dugu". Egitarau horrek "Aretxabaletako sortzaileen erakusleihen" izan gura duela gaineratu dute, eta hainbat estilotako kontzertuak nabarmendu dituzte. Herritarren babesa eskertu dute eta ekitaldi guztietara gonbidatu dituzte.

## GuGeu Atxabaltaren egitaraua

### Abuztuak 13

- **18:00** Txupinazoa. Ondoren, kirol ikuskizunak: boxeo saioak eta pilota partiduak.
- **22:00** Kontzertuak: Jipoituak, Oihu! eta Youth United.

### Abuztuak 14

- **12:00** Alkohol olinpiadak.
- **15:00** Bazkaria: zuk egin, zuk jan. Ostein, Glutenbakuak taldearen kontzertu akustikoa.
- **17:00** Mihiluze lehiaketa.
- **19:00** Bertso-poteoa; bertsolariak: Garazi Navarro eta Bittor Altube bizkaitarrak eta Urko Arregi oñatiarra.
- **23:00** Kontzertuak: Mutiko eta Denso.

### Abuztuak 15

- **08:00** Sokasalto *gaupaseroa*.
- **10:00** Diana vs gaupasa.
- **19:00** Kontzertu akustikoa: Beñat eta Jonflan. Bien bitartean, pintxo-poteoa.
- **23:00** Gau elektronikoa Parafernalia taldeko kideekin.

### Abuztuak 16

- **19:00** Ekitaldia Aretxabaletako sortzaileen alde. Ostein, karro-poteoa.
- **00:00** DJen gaua: DJ Pipermin, DJ Sakatu, DJ Makila eta Txartelgorri.

### Abuztuak 17

- **18:00** DJ AM.
- **00:00** DJ Karapaixo Feat Larrabe.

## Kiroldegia itxita egongo da abuztuaren 12tik 25era bitartean

Ibarra kiroldegia igerilekua, fitness gela... ohiko ordutegia izango du uztaila bukatu bitartean; eta hilaren 31n, jaiegunetakoa: 09:00etatik 14:00etara.

Udako ordutegiari abuztuaren lehen ekingo diote, eta honako hau izango da: 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara. Hilaren 10a arte egongo da abian hori domeketan izan ezik; orduan, jaiegunetakoa, baita abuztuaren 26tik 31ra ere. Hilabetearren erdiko bi asteetan, 12tik 25era, osterata, itxi egingo dute. Edozein zalantza argitu gura izanez gero: 943-03 98 42 eta [ibarrakiroldegia@aretxabaleta.eus](mailto:ibarrakiroldegia@aretxabaleta.eus).

Denboraldi berriari irailen ekingo diote.

## Liburutegiak oporrak hartuko ditu abuztuaren 2an

Udal liburutegia zabalik izango da abuztuaren 2a arte, eta orduan itxiko ditu ateak oporrak hartzeko; hilaren 26an bueltan izango dira. Uztaileko eta abuztuak azken asteetan goizez bakarrik izango da zabalik: 10:00etatik 13:00etara. Eta irailaren 2tik aurrera berreskuratuko du ohiko ordutegia.

Liburuak maileguan hartu gura dutenentzat, *Biblioporrak* irakurketa gida prestatu dute, hainbat liburutegiren artean. Umeei zein helduei bideratutako liburuak egindako zerrenda jaso dute han, zalantzan daudenei laguntze aldera, eta disko eta film proposamenak ere badaude.

## Muru Alde elkarteko ospakizuna uztailaren 30ean eta 31n

San Inazio jaiak ospatuko dituzte Muru Alde elkartean. Hilaren 30ean hasiko dituzte, bolo-txapelketa jokatu, bolatokia, 19:00etan, eta ondoren afaria egingo dute, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia bertsolariarekin. Hurrengo egunean, zaindariaren eguna, salda eta txorizoa banatuko dute elkartean, 12:00etan, trikitalariekin girotuta.

# "Jai giroan ere euskara kalean gura dugu"

**LIERNI ZANGITU ARROYO** LORAMENDI ELKARTEKO PRESIDENTEA

Urtea bete du karguan; hain zuzen ere, euskara elkartearen 30. urteurrena ospatzen diharduen epea. Andramaixetan txupinazoa botako dute hango kideek

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Iazko ekainean egindako batzar orokorrean hartu zuen presidente ardura Lierni Zangitu Arroyok (Aretxabaleta, 1991), eta 30. urteurreneko ospakizunak antolatzen eta ospatzen dihardu ordutik elkarte teknikariekin – Ainhoa Sanchez eta Ion Egidazu – eta Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideekin batera –Julen Perales, Olaia Etxenausia, Amaia Berezibar, Ane Errarte eta Mirari Altube–.

**Zuzendaritzan lehenengoz, baina Loramendi ondo ezagutzen duzu.**

Gaztetxo nintzela, Nerea Lete teknikari zen sasoiaren, kultur talde bat osatu zen, eta han ibili nintzen, ez dakit oso ondo zertan. Ondoren, ludotekako hezitzaile izan nintzen; bost urte egin nituen han. Langile izan izanak barruko funtzionamendua hobeto ulertzen lagundu dit.

**Elkartearen 30. urteurrenari heldu behar izan diozue; zelan doa?**

Oso ondo. Antolatu diren ekintzen erantzunarekin pozik gaude. Gertukoak izan dira batzuk, etxeok, goxoak, baina, era berean, jendearengana iritsi gara; horien artean dago elkartearen sortzailei aitortza. Egin beharrekoa zen, egindako lan guztia eskertzeko. Udaletxe zaharreko atarian, era xumean, prestatu genuen museoa ere badago; jende asko pasatu zen handik, eta oroitzapen asko piztu zituen.

**Gaur egun, zer du esku artean elkarteak?**

Euskararen erabilera sustatzeko lanean dihardu Loramendik, Udalarekin batera, eta bereziki gura dena da hezkuntza formaletik kanpo, aisialdian, erabilera indartzea. Bost proiektu ditu abian; ikasturte osokoak direnen artean daude: ludoteka, bi langilerekin; hizkuntza errefortzuak, beste bi langilerekin; eta gero, Auzoko eta Barriketan egitasmoak, langile batek dinamizatuta. Bosgarren proiektua



Lierni Zangitu Arroyo, euskara elkartearen sarreran. MIRARI ALTUBE

## "ANDRAMAIXETAKO TXUPINAZORA HERRITAR GUZTIAK ZAUDETE GONBIDATUTA"

uztailako udalekuak dira –Aste Santuan ere egiten dira–, bi langilek koordinatuta eta 35 bat hezitzaileekin.

**Zelako egoera bizi du euskarak Aretxabaletan?**

Euskal Herrian, orokorrean, erabileraren egoera ez da ona. Jakintza edo ezagutza bermatuta dugu hezkuntza sistemari eta hainbat proiektuari esker, baina erabilera beste kontu bat da. Baita Aretxabaletan ere; ez dakit gizartea eraldatzen ari delako den, baina agerikoa da kalean.

**Hortaz, Loramendiren erronkak hortik datoz?**

Bai, erronkak dira abian ditugun proiektuekin aurrera egitea, batetik; eta, bestetik, atzematea euskarak zein behar dituen Aretxabaletan eta hori jakinda lan egitea: hausnartuta, ekintzak zehaztuta eta proiektuak garatuta.

**Loramendi indarra galtzen joan da herrian?**

Orokorrean, elkarteekiko atxikimendua aldatu egin da; lehen, herrigintza indartsu zegoen, militantzia zen oinarria, eta boluntario lan asko egiten zen. Eredu hori aldatzen joan da, gizartea aldatu den heinean, eta gaur egun zaila da herrigintzan jarduteko tarte bat topatzea. Hori igarri egin du Loramendik ere. Bazkideen babesak jarraitzen du, eta ekintzak antolatzeke erantzun ona jasotzen dugu, baina gure helburua da herrira zabaltzea eta bazkideekin zein herritarrekin elkarlana estuago izatea, egunerokoagoa. Zaila da hori; Zuzendaritza Batzordea osatzeko kideak topatzea ere zaila da, baina egingo dugu.

**Andramaixetan txupinazoa botako duzue; pozik?**

Bai, noski, eta eskertuta gurekin akordatu delako Udala. 30 urtean lan handia egin da, eta horri aitortza egiteko unea izango da. Era berean, garrantzitsua da euskara jai giroan ere presente egotea. Hortaz, herritar guztiak gonbidatuta zaudete txupinazora, gurekin batera, eta jaiak euskaraz bizitzera.



Hirugarren Mailan jardungo duen taldea, asteleheneko entrenamendu saioan. UDA

## Denboraldiaurrean murgildu da UDaren gorengo futbol taldea

Uztailaren 31n, Gasteizko San Viator taldearen aurkako partidua jokatu du, Ibarra futbol zelaian

**M.A. ARETXABALETA**

Datorren denboraldian Hirugarren Mailan jardungo duen taldea hasita dago entrenamendu saioetan. Denboraldiaurrea gertatzen buru-belarri dabil, eta lagunartekoa jokatu du datorren eguaztenean, hilaren 31n, 19:00etan, Ibarra futbol zelaian. Hirugarren Mailan jokatu duen Gasteizko San Viator taldea hartuko du.

**Beñat Etxabe, analista**

Unai Calzon Intxauspek (Aretxabaleta, 1990) jarraituko du taldearen gidari izaten. UDaren harrobian hazitako kirolaria da eta 2021ean hartu zuen Ohorezko Erregionaren ardura; hortaz, ondo baino hobeto ezagutzen du taldea. Hirugarren Mailari eustea izango da erronka nagusia, eta horretarako gogotsu daudela adierazi dute UDAkoek: "Esperientzia berria izango da,

eta ilusio handia dugu". Taldea indartzeko ahalegina egin dute eta bi fitzaketa iragarri dituzte, gaur-gaurkoz: Joseba Orbegozo elorriarra, ezker hegaleko defentsa, Aurrera Ondarroa taldean jardundakoa azken denboraldian; eta Xabi Azpiazu bergararra, eskuin hegaleko defentsa.

Bestetik, taldekide batzuek agur esan diote futbolari, lesioak direla eta: Unax Barrainkua eta Beñat Elkorobarrutia aretxabaletarrek, hain zuzen.

UDako ordezkariak adierazi dute oraindik etor daitekeela jokalariren bat edo beste, baina egitura nagusia ez dela aldatuko. Calzonek, gainera, Beñat Etxabe sartu du gidaritza taldean, eta analista eta prestatzaile fisiko lanetan jardungo du.

Uztailaren 31n oporrak hartuko dituzte eta abuztu erdian itzuliko dira lanera; denboraldiari irailaren 8an ekingo diote.

## Ametzueta lagunartek realzale bila jarraitzen du

Aretxabaletako Ametzueta lagunartea berpiztu nahian dabil tza azken hilabeteotan. Herriko realzale guztiak batzea da haien asmoa, eta dagoeneko 175 lagun izenak jaso dituztela eman dute aditzera; horietatik 74 dira Realeko bazkideak. Dena den, uste dute badirela oraindik gehiago ere, eta haiek animatu gura dituzte izena ematera; ho-

rretarako, Arlutz tabernatik pasatu beharko dute.

"Realaren lagunarte ofizialen artean egon gura dugu, eta horretarako eskaera bideratuta daukagu", azaldu dute. Irailera-ko batzar orokorra deituko dute eta orduan zabalduko dute informazio guztia. Ametzueta orain dela hamazortzi urte inguru sortu zen, baina hainbat urtetan ez dute ezer antolatu: "Partiduetara joateko autobusa berreskuratu da, eta zerbait antolatzen hasi gura dugu orain".



# INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO ANDRAMAIXEN ALDE!



## GUNE MOREA

Abuztuak 14 eta 17  
Mitarke kalea  
20:00 - 01:00

## INDARKERIA MATXISTA KASUEN AURREAN ARRETA TELEFONOAK:

**SATEVI (24 ordu) 900 84 01 11**

Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio eta arreta zerbitzua.

**ORTZADAR ZERBITZUA**

**(24 ordu) 028**

LGTBI+fobiaren biktima izan diren pertsonentzako informazio eta arreta zerbitzua.

**ERTZAINZA (24 ordu) 943 53 47 20**

**UDALZAINGOA 943 71 18 63**



## ARETXABALETAN EZ DA INOLAKO ERASORIK ONARTUKO!



Aretxabaletako  
Udala



Uztaileko ezohiko bilkuran batu ziren udalbatzako kideak. IMANOL BELOKI

## Itsaraz parkearen plana geldiarazi egin dute

Uztaileko ezohiko osoko bilkuran, Itsaraz Parke Eolikoaren plan berezia izapidetzea ez onartzeko proposamena jarri du mahai gainean Eskoriatzako EH Bilduren Udal Gobernuak; oposizioan dagoen Euzko Alderdi Jeltzalea, berriz, abstenitu egin da

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Udalbatzako kideak martitzenean batu ziren uztaileko ezohiko osoko bilkura egiteko. Tratatu-tako gaien artean, Itsaraz Parke Eolikoaren plan bereziaren gainekoak izan zituzten berbagai. Norvegiako Statkraft enpresak hiru lurraldetan egin nahi duen lanen baitan hutsuneak daudela adierazi du Udal Gobernuak.

### Tramitazioa onartu gabe

"Itsaraz proiektua aurrera eramateko tramite bat da plan berezi bat aurrera eramatea. Eskoriatzako Udalari eta Aramaiokoari bidali digute, plan berezi hori tramitatu ahal izateko. Guk, plan berezi hori hartuta, ikusten dugu beste lan batzuk egin beharrekoak daudela, ebakuazio-lerroak izenekoak; hau da, Abadiñoako azpiestaziora eramateko argindarra. Lan horiek ez daude planean sartuta. Uste dugu aurkeztu diguten plan horretan sartu beharreko lanak direla.

Horregatik, plan berezi hori oraingoz ez dugula tramitatu onartu dugu", adierazi du Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.

Alderdi jeltzaleko kideak abstenitu egin ziren Itsaraz Parke Eolikoaren plan berezia izapidetzeko ez onartzeko proposamenarekin lotuta.

### "Birplanteaketa, beharrezkoa"

Eskoriatzako Udal Gobernuak ez du begi onez ikusten Itsaraz Parke Eolikoaren proiektua. Proiektuaren barruan dauden gainontzeko herriei gehiago eragiten diela dio Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak, baina "birplanteaketa bat" beharrezkoa dela uste du. "Aramaiori

**PARKE EOLIKOAREN PLAN BEREZIARI ONESPENA EMATEKO ALDAKETAK ESKATU DITU UDALAK**

eragiten dio, bereziki, parke eolikoak, baina, guri dagokigunez, Eskoriatzan zazpigarren haize-sorgailutik zortzigarrenean izugarritzko bideak egin behar dituzte, sekulako harri-lubeta [eskollera] egin nahi dute, eta uste dugu sekulako astakeria dela. Ez gaudede ados. Beste modu batean planteatuz gero, akaso, beste ikuspuntu bat izango genuke".

### Aldaketak egin gabe

Starkraftek orain arte Eskoriatzako Udalera bidali duen informazioa planoaren gainean egindakoa izan dela dio Zubizarretak, baina ingeniariak Eskoriatzako haize-sorgailuaren kokapena ikusten egon zirela. "Madrildik ingeniari bat etorri zen, eta harri-lubeta egitea akaso ez zela beharrezkoa esan zuen. Aldaketekin berriro bidali ziguten proiektua, baina harri-lubeta kendu barik... Eremu hori Lata ingurua izango litzateke; Asentsio azpitik, Apotzaga aldera".

### Etxepe taldea arituko da San Pedro Txikietan irailaren 13an

Irailaren 13an, 14an eta 15ean ospatuko dituzte Eskoriatzako San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak. Oraindik ez dute programazio osoa aurkeztu, baina aurreratu dituzte zenbait ekintza. Irailaren 13an, Etxeperen emanaldiaz gain -23:00etan-, adineko pertsonentzako luntxa prestatuko dute, musikaz girotuta. Irailaren 14an, herri bazkaria egingo dute, 14:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian. Sarrerak salgai jarri dituzte Ilargi tabernan eta Dorleta liburu-dendan, eta irailaren 6arte egongo da aukera erosteko -helduen menua 25 euro izango da eta 12 urtera arteko haurrena, 12 euro-.

### Euskararen C1 maila prestatzeko ikastaro trinkoa irailean

Azterketaren idatzizko zatia urri hasieran izango da. Hori horrela, ikastaroa egiteko bi aukera eskainiko ditu Leintz Udal Euskategiak: lehenengo aukera astelehenetik egubakoitzera izango da, irailaren 2tik 27ra, egunean bi ordu, 40 ordu guztira, 16:30etik 18:30era, eta prezioa 60 eurokoa izango da; bigarren aukera, berriz, astelehenetik eguenera izango da, irailaren 2tik 26ra, egunean 2,5 ordu, 40 ordu guztira, 16:00etik 16:30era, eta kasu horretan ere prezioa 60 eurokoa da. Idatzizko azterketa gaindituz gero, nahi dutenek ahozkoa prestatzeko ikastaro berezia egin ahal izango dute.



IMANOL SORIANO

## Dorleta eta Leire garaile

*Zedemontre* topaketaren hirugarren edizioan, Santa Marinako oholtzan zuzeneko emanaldiak izan ziren entzungai joan den egubakoitzean. Aurten bi izan dira euren talentua herritarrei erakustera animatu diren artistak: Zirrara taldea, batetik, eta Leire Lezeta eta Dorleta Ezeiza bikotea, bestetik. Erromeria doinuekin, Lezeta eta Ezeiza izan ziren nagusi.

## OHARRAK

### Udal bulegoak itxita

Uztailaren 26a eta abuztuaren 16a jai ondorengo egubakoitzak izanda, zubia egingo dute, eta udal bulegoak eta Erregistro Nagusia itxita egongo dira.

### Donostiako su artifizialak ikustera

Abuztuaren 16an, 17:00etan irtengo dira Olazar Erretiratuen Elkartekoak Donostiako su artifizialak ikusteko. Izena eman beharko da jubilatuen bulegoan.

### San Bartolome eguna

Mazmela elizateko auzotarrek irailaren 1ean egingo dute auzo-bazkaria.

# "Punk musikak eragiten didalako noa Argentinara"

IKER LUARIZARISTI ALBERDI MUSIKARIA

Los Saneadores proiektua sortu zuen eskoriatzarrak hainbat musikari argentinarrekin; abuztuan hara joango da, eurak ezagutzera eta, bide batez, zuzenekoak ematera

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Punk musika estiloa du pasio umetatik Iker Luarizaristi Alberdi (Eskoriatza, 1986) eskoriatzarrak. Horren adierazle da 17 urte zituenean punkak mugituta, Argentinako lagunak egin zituela. Musika elkarbanatzen hasi ziren, musikaz hitz egiten, eta ordutik hona harremana mantendu du beraiekin. Hori gutxi balitz, disko bat ere grabatu du Luarizaristik argentinarrekin, baina, modu berezian gainera. Hau da, teknologia berriak erabilia. Saretik soilik ezagutzen dira, baina, udako oporraldia Argentinako Cordoba hirian egingo du Luarizaristik, beraz han elkartuko dira.

**Argentinara joango zara abuztuan, Cordoba hirira; zein da helburua?**

Batetik, gaztea nintzenetik ezagutzen dudak Chirola bertatik bertara ezagutzea; diskoak grabatzen lagundu diguten eta zuzenekoak ematen lagunduko diguten beste hainbat kiderekin batera. Egin dugun lana jendarean aurkeztu nahi dugu: hau da, zuzeneko kontzertuak emango ditugu, eta, bestetik, lau kantu berri ere estudioan grabatzeko tartea hartuko dugu. Labur esanda, hori izango da hango egonaldian egingo dudana. Horrekin batera, lurraldea, beraien lagunartea... ezagutzea ere izango da nire asmoa. Gogoz nago haiekin elkartzeko.

**Zuzeneko kontzertuak aipatu dituzu; elkarrekin sekula entseatu gabe, oholtzara igoko zarete?**

Hori da. Asmoa da bi kontzertu eskaintzea da. Agian, izango dugu tartea pixka bat entseatzeko, dena dela, badira hilabete batzuk eurak zuzenekoak prestatzen hasi zirela, beraz ez dugu arazorik izango. Abuztuaren 16an, Cordoba hirian, Petalos de Sol aretoan egongo gara, 21:00etan. Botellas y algo más taldearekin batera. 2023ko otsailan argitaratu genuen *Los Sa-*



Iker Luarizaristi eskoriatzarra lokalean entseatzen. GOIENA

**"ZUZENKO BI EMANALDI EGINGO DITUGU ARGENTINAN, ETA LAU ABESTI GRABATU"**

*neadores* diskoan batzen ditugun bederatzia abestiak joko ditugu, denak segidan, baina bederatzia abesti ez zirela nahikoa izango irudituz zitaigun eta La Polla Records taldearen hamar bertsio inguru ere prestatu ditugu. Abuztuaren 23an, berriz, 990 Arte Club aretoan arituko gara; Piquillin y los Compadres taldea, Botellas y algo más, Helga Pataki, Mala Conducta, Excusas Viejas, Los Zatrapas eta Los Saneadores, izango gara kontzertua ematen.

**La Polla Recordsen bertsio-sorta ere izango da zuzenekoaren parte, beraz?**

La Polla Records taldearen zale amorratuak dira Argentinako lagunak, eta horrek ere batzen gaitu. Gainera, Evaristok diskoan parte hartu zuen, *Amenaza Social* izena daukan kantan abestu zuen.

**Vuelko taldeko gitarra-jolea zara, baina, kasu honetan, abeslari arituko zara.**

Zenbait kantutan gitarra jotzea eta abestea ez da erraza, beraz, Argentinan egingo ditugun emanaldietan abestu egingo dut, soilik. Diskoaren grabaketan jende gehiagok hartu zuen parte, baina, honakoa izango da egitura: Chirolok batera, Franek baxua, Juanek eta Konek gitarrak, eta neuk abestu.

**Esperientzia ederra bizitzeko asmoz zoaz hara, beraz?**

Abuztuaren 7an irtengo naiz, Madrildik, eta hilaren 29an bueltatuko naiz. Bidaia hamabi ordu eta erdi ingurukoa da, eta eskerak zuzenean noala, geldialdirik gabe, eta buelta ere berdin. Kosta zitzaidan hara joateko erabakia hartzea, baina aspalditik nuen gogoia joateko. Uste dut sekulako esperientzia biziko dudala, eta, bideo batzuk grabatu eta argazki batzuk aterako ditugun arren, helburua disfrutatzea da, eta ueña bizitzea. Zuzeneko emanaldiez gain, lau kantu berri grabatuko ditugu Quinta Esencia estudioan; beraz, aurrera begira ere izan dezake bidea abentura honek. Ikusiko dugu.

## LEINTZ GATZAGA | 19



Angosto kanpian egindako egonaldian. UDANE OÑATE

### Irteeren alde egin dute udaleku itxietan eta irekietan

Gurelek antolatuta, udaleku itxiak eta irekiak egin dituzte; guztira, zortzi haur eta bi hezitzaile aritu dira

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA

Uztailaren 8tik 12ra udaleku itxiak egin ditu Gatzagako Gurel Guraso Elkarteak; eta uztailaren 15etik 17ra bitartean, berriz, udaleku itxiak. Batean, bestean, bietan edo nahi izan duten irteeretan eman ahal izan dute izena herriko gaztetxoek, eta Udane Oñate eta Amets Gonzalez hezitzaileen gidaritzapean "gustura" aritu dira herriko gaztetxoak. "Orokorraren, arrakasta izan dute udalekuek; irekiek zein itxiek", azaldu du hezitzaile gisa arituen Udane Oñatek.

**Irteeretan kirola nagusi**

Zortzi haur aritu dira udalekuean, eta antolatutako ekintzetan oso ondo pasatu dutela azaldu dute hezitzaileek. Landara irteera egin dute, Otxandioko Hontza Xtrem abentura parkera, Gatzagatik irtenda, Atxorrotzeko tontorra egin eta buelta, eta herrigunean ere geratu dira zenbait ekintza egiten. Horren ostean, Angosto kanpian egin dituzte hiru egun. Arabako Villanañe herrian dagoen kanpina da Angosto, erreka gertu dela, baita mendia ere; beraz, asko disfrutatuta dute han.



IMANOL BELOKI

### Fatxada aireztatua jartzen

Leintz Gatzagako San Migel enparantzan, Labidea denda-taberna dagoen eraikinean, aireztatutako fatxada jartzen ari dira, isolamendu hobea izateko eta hezetan arazoak saihesteko. Horrekin batera, margotu egingo dute eraikina, eta dagoeneko amaitu dute errepide aldeko zatia. Lanak irailerako amaitzea aurreikusten dute.



Zenbait lagun Usondo parkeko zuhaitzen gerizpean, martitzen arratsaldean. XABIER URTZELAI ATXA

# Beroa arintzeko guneen babesera

Udako egun beroenei aurre egiten laguntzeko eta, batez ere, bergarar zaurgarrienei begira, ekimen bat jarri du martxan Udalak, "proba pilotu gisa", eta, horretarako, besteak beste, herrian dauden hiru motatako "babesgune klimatikoak" berri eman dute

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA "Proba pilotu gisa" abiatu duen egitasmo baten berri eman du asteon Bergarako Udalak; uda sasoiarekin lotura zuzena duen ekimen bat: beroaldiei aurre egiteko plana. Udako egun beroek bergararren osasunean eragin ditzaketen arazoei aurre egiteko asmoz, "babesgune klimatikoak" eskaintzea da planaren oinarri nagusia.

## Klima larrialdiaren bueltan

Udaleko Hirigintza arloko zinegotzi Markel Azkargorta eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Zihortza Marzanek asteon egindako agerraldian gogora ekarri dutenez, beroaldiei aurre egiteko planak erantzuten dio ekainaren 11n aurkeztu zuten klima eta energiari buruzko tokiko planaren atal bati. Diotenez, tokiko planak "lanketa

sakon eta luzea" eskatzen duten ekintzak jasotzen ditu; adibidez, Udalaren larrialdi-plana berrikusi eta klima aldaketaren aldagaia txertatu edo Bergaran dauden klima-babesguneen azterketa egin. Eta, "hausnarketa sakonago baten beharraz jakitun", aurten proba gisa martxan jartzeko egitasmoa da aurkeztu berri duten beroaldiei aurre egiteko plana. Plan horrek meteorologiari loturiko muturreko abisuen aurrean baliabide batzuk eskaini nahi dizkie bergararrei; batez ere, babesgune klimatikoak.

**HIRU MOTATAKO BABESGUNEAK ZEHATZU DITUZTE: ITXIAK, KANPOKOAK ETA FRESKATZEKOAK**

## Herritarren eskura eta doan

Baina zer dira, Bergarako Udalaren arabera, babesgune klimatiko horiek? Beroaldietarako babesa emango duten lekuak dira, herritarren eskura eta doan jarriko direnak, eta bero-alarma egunetan irekiko direnak. "Kalean gaudela arnas beharra dugunean erabiltzeko lekuak izango dira; adibidez, mandatuetara atera eta etxera bidean geldialdi bat egiteko. Edota bakardeari aurre egiteko guneak izango dira, etxean bakarrik egon beharrean eta taberna edo kontsumo-guneetara jo beharrean, elkartzeko lekuak", adierazi du Azkargortak. Babesguneon artean hiru mota bereizi dituzte: babesgune itxiak, kanpoko babesguneak eta freskatzeko lekuak.

Babesgune itxiak dira klimatizazioa daukaten lekuak edo



Azkargorta eta Marzan, atzean Biltoki babesgunea dutela. IMANOL BELOKI

## Proba aurten, eta ekarpenei zabalik

Markel Azkargortak eta Zihortza Marzanek eman dute beroaldiei aurre egiteko planaren berri. Babesgune itxietako bat ere erakutsi zuten: Biltoki; izan ere, lehengo Lua arropa denda erosi zuen Udalak, udaletxe barruko "espazio faltak" eraginda, eta, emango zaion erabilera zehazteke, udan babesgune itxietako bat izango da.

Proba gisa jarriko dute martxan egitasmoa, eta babesguneak hobetzeko herritarren ekarpenak beharko dituztela azpimarratu dute bi zinegotziek: "Datorren urtera begira, herritarren ekarpenak jaso nahi genituzke, ahal den heinean, zerbitzua hobetzeko. Pertsona zaurgarriak izango dira erabilgarriak, batez ere; umeendako, haurdun dauden emakumeendako, adineko pertsonendako, gaixotasun kronikoak dituztenendako edota egoera ekonomiko zaila duten herritarrendako".

berotzen ez direnak, eta ura edota komuna bertan edo gertuan dutenak: "Inbertsio gabe zabalteko modukoak izango dira, nahiz eta horniketa minimo bat beharko duten. Horretarako, gaur egungo udal baliabideak erabiliko ditugu". Babesgune itxien artean honako hauek egokituko dituzte: udaletxe ondoan dagoen biltokia, Martoko eta Zabalotegiko herritarren txokoak, Agorroso yoga gela, Osintxuko Txuringo eta Labegaraieta kiroldegiko kirol elkarteak. Gune horiek bakarrik irekiko edo ahalbidetuko dira Jaurilaritzak alerata laranja edo gorria aktibatzen duen egunetan, eta gutxi gorabeherako ordutegia izango da 10:00etatik 20:00etara artekoa. Hasiera batean, irailaren 13ra arte mantenduko dituzte babesgune itxi horiek, baina aukera egongo litzateke luzatzeko, eguraldiak hala behartuko balu.

**ALERTA LARANJA EDO GORRIA DAGOEN EGUNETAN IREKIKO DITUZTE BABESGUNE ITXIAK, EGUN OSOAN**

## Babesgune naturalak ere bai

Bestetik, kanpoko babesgune edo itzalguneak ere identifikatu ditu Udalak, kalean eta herritarren eskura eguzkitik babesteko eta iturria gertu duten guneak. Honako hauek dira: Errekalde jauregiko parkea eta kotxerak-komunak daude gertu-, Usondo parkea-komunak daude gertu-, Bideberri pasealekua, Errotalde parkea, Espoioia, Boni Laskuraingo pasealekua eta Iparragirre kalea. Gainera, freskatzeko guneen berri ere eman zuten prentsa agerraldian Marzanek eta Azkargortak; hau da, igerilekuak eta ur-txorrotak. Agorroso igerilekuak eta Labegaraietako ur-txorrotak dira proposatzen dituzten guneak.

Amaitzeko, Bergarako babesgune klimatikoak bat datoz Jaurilaritzako Osasun Sailak beroari aurre egiteko eman ohi dituen gomendioekin. Adineko pertsonak, umeak, haurdun dauden emakumeak eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak dira zaurgarrienak beroaren aurrean, eta haiei begirako aholkuak ere jaso ditu Udalak asteon aurkeztu duen beroaldiei aurre egiteko planean.



Ainhoa Lete, Nagore Narbaiza, Gorka Artola, Aitziber Plazaola, Anne Otegi, Agurtzane Diaz eta Jon Ruiz de Egiño, asteon, Elikaenean. T.M.

# Elikaenea irailean irekiko da, Ereindajanean eskutik

Oxirondo azoka biziberritzeko asmoz sortu den Elikaenea irailean irekiko du Ereindajanean. Denda soilaz harago, lehen sektorearen topagune izateko bokazioz sortu du proiektua Elikadura Mahaiak, eta, besteak beste, Azpeitiko Elikagunea hartu dute inspirazio iturri

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Oxirondo azoka biziberritzeko asmoz jaio den Elikaenea irailean egongo da martxan. Halaxe ziurtatu dute Elikadura Mahaiako ordezkariak asteon denda-topagunea bera ezagutzera emateko egindako prentsa agerraldian. Hedabideei erakustez gain, uztailearen 29rako (18:30) eta 30erako (11:00) herritarrei zuzenduta-

ko bisita gidatuak antolatu dituzte; bisitotan parte hartzeko, [alkatetza@bergara.eus](mailto:alkatetza@bergara.eus) helbidera idatzi edo 943-77 91 00 telefono-zenbakira deitu beharra dago.

## Elikadura Mahaitik sortua

Gainbeheran zetorren azoka biziberritzeko hainbat diagnostiko, saiakera eta ekimen egin ditu Udalak azken hamarkadan,

eta, ingurumari horretan, Gipuzkoako Diputazioak 2021ean martxan jarri zuen azoken gaineko hausnarketa prozesuarekin bat egin zuen Udalak. Oxirondo Azokaren inguruan jasotako ondorioei erreparatu, azken hiru urte hauetan Elikadura Mahaiak "beharrezko lanketak" egin ditu, azoka "bertako produktuak eta lehen sektorea er-

digunean" jarriko dituen "topagunea" izan dadin.

Irabazi asmorik gabeko Ereindajanean kooperatibaren ardura izango da Elikaenea kudeatzea; Udalak ekarpen ekonomikoa egingo dio kooperatibari, urtean 35.000 euroko laguntza emanda kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratuko den pertsonaren gastuei aurre egiteko. Ereindajanean, bestalde, konpromiso hauek hartu ditu: denda eta sukaldea kudeatzea; sentsibilizaziorako saio, tailerrak eta bestelako dinamikak antolatzea; tokiko merkaturatze bide berriak lantzea; eta herriko komertzioekin eta elkarteekin elkarlana sustatzea.

## Udalbatzan irakurketa ezberdinak

EH Bilduk uste du Elikaeneako espazio fisikoa eta egitasmo orokorra kudeatzeko bermea eskaintzen duen bakarra Ereindajanean dela. EAJk horren kontra bozkatu zuen asteleheneko osoko bilkuran, proiektuen helburuekin oro har ados egon arren esleipena lehiaketa publiko bidez egin beharko litzatekeela uste dutelako. "Askoz gardenagoa eta garbiagoa izango litzateke adjudikazio ireki bidez egitea. Gainera, ezin dugu ahaztu Ereindajani espazioa esleitzearekin batera hamar urtean 400.000 euroko dirulaguntza emango zaiola, urtean 40.000 euro, Elikaenearen dinamizaziorako eta tailer batzuk antolatu ditzan. Guk uste dugu dinamizazio lan hori Udalak hartu beharko lukeela bere gain; betiere, elkarlana sustatuz azokako postu finkoetako eta ez-finkoetako arduradunekin", esan zuen EAJko eledun Mikel Letek.

Osoko bilkuran argi geratu zen egiteko moduetan ezberdintasunak daudela EH Bilduren

eta EAJren artean. EH Bilduk uste du proiektuak duen izaeragatik erabat koherentea dela Elikaenea Ereindajanean kudeatzea. "EAJ ados dago proiektuarekin, baina ez kudeatzeko moduarekin. Guk pentsatzen dugu batzuk besteak dakarrela; azoka biziberritzeko proiektu honekin lortu nahi dena da azokak aspaldi galdu duen funtzio publiko hori berreskuratzea, eta oinarrian dagoen filosofia elikadura burujabetzarena da. Elikadura Mahaiarekin batera uste dugu Ereindajanean moduko eragile batek bermatu ahalko duela azokaren izaera sozial hori etekin ekonomikoaren aurrean. Horregatik uste dugu estrategikoa dela modu horretan kudeatzea. Era berean, uste dugu Udalaren partetik etorriko den finantzaketak bermatu ahalko duela Elikaenean prezio politika justua haztea", adierazi zuen EH Bilduren bozeramaile Maite Usabiagak.

## Ereindajanean denda itxiko du

Ereindajanean iragarri du Elikaenearen kudeaketaren ardura hartzearekin fase berri bati ekingo diotela, eta, ondorioz, uztailearen 30ean itxi egingo dutela orain arte Joan XXIII.a plazan izan duten denda, 18:30ean. "Sei urte hauetan egindako bideari agur esan eta bertan aritu gareno eskerrak emateko itxiera-ekitaldi bat egingo dugu. Ekoizle, kontsumitzaile eta herritar oro zaudete gonbidatuta".

**BISITA GIDATUAK  
UZTAILAREN 29AN ETA  
30EAN EGINGO DIRA;  
IZENA EMAN BEHAR  
DA: 943-77 91 00**



NIRE USTEZ

INAZIO NARBAIZA

## Oporretara joan beharra

Sasoian gaude, ala beti da oporretara joateko sasoi? Kontua zera da, badirudi derrigortuta gaudela nonbaitera joateko. Ala joan garena inguruko esateko eta erakusteko. Nola gozaten dugu gehiago, oporretan bertan ala Insta-ra igotzen, lagunei argazkiak bidaltzen? Nonbaitera bagoaz eta inor ez bada enteratzen, gure bidaiak ba al du zentzurik? Egia da badela

jende dezente oporretara doala ere familiakoei edota gertukoei laguntzarren, kalterik ez egiteko... "Herria zaintzen" gelditzen dira beste batzuk. A ze espresio interesantea, herria sasoi honetan bakarrik zaindu beharko bagenu bezala. "Herria zaintzen" gelditu naizen batzuetan zera sumatu dut Bergaran gelditutakoan artean, urtean zehar bizitzen ez dugun

gertutasuna eta konplizitatea. Sekula beraiekin hitz egin gabeko pertsonak zure lagun bihurtu eta eguerdia pasata, arratsalde aldera elkarrekin bazkaltzen izatea. *Bergarartasuna* bizitzeko beste modu bat ote? Eta hitz hori idazterakoan, San Martzial datorkit gogora. Badago bergararrik egun horretan oporretara doanik? Besarkada estu bat Asturiestik.

## Euskadiko Orkestra: kontzerturako sarrerak salgai daude

Euskadiko Orkestrak kontzertua emango du irailaren 6an San Pedro elizan (19:30), Stoltz Freres organoaren mantentzerako eta elementu batzuk berritzeko dirua lortzeko. Sarrerak salgai daude [seminarixoa.eus](http://seminarixoa.eus)-en, hamar eurotan. Kontzertua Euskadiko Orkestrak, Stoltz Freres Organoren Lagunak elkarrekin eta Udalak antolatu dute.



Asteleheneko osoko bilkuran aho batez onartu zen 2024tik 2027ra arteko Euskara Plana. JOKIN BEREZIARTUA

# Ohiko hizkuntza euskara izateko, oinarri berria

Udalbatzak aho batez onartu du 2024tik 2027ra arteko Euskara Plana, azken helburu bezala duena Bergarako ohiko hizkuntza euskara izatea. Hizkuntzaren etorkizuna "bidegurutze batean" dagoela-eta, uste dute "lan-ildo guztietan" eragin behar dela

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Bergaran euskararen ezagutza eta erabilera sendotzea, herritarrek eta herriko eragileak saretu, ahaldundu eta aktibatuta, azken finean, herriko ohiko hizkuntza euskara izan dadin. Horixe da 2024tik 2027ra arteko Bergarako Udalaren Euskararen Plan Estrategikoaren helburu nagusia. Joan den asteleheneko osoko bilkuran landu zen gaitekako bat izan zen, EH Bilduren eta EAJren artean aho batez onartu zena -PSE-EEko Alberto Alonso ez zen bilkuran egon-.

## "Urrats sendoak" egin behar

Jaurlaritzak 2024aren hasieran onartu zuen Aroa izeneko "marco estrategikoa" oinarri hartuta osatu du Bergarako Udalak datozen lau urteetarako plana, herritarren, herriko eragileen eta Udaleko teknikarien eta politikarien parte hartzearekin.

Euskararen etorkizuna "bidegurutze batean" dagoen honetan, EH Bilduren Udal Gobernuak

agintaldirako finkatutako lan-ildo nagusietako bat da hizkuntza normalizazioan "urrats sendoak" ematea. "Euskararen erabilerak eta ezagutzak gora egitea da gobernu honen helburu nagusietako bat, eta, horretarako, lan-ildo guztietan egin behar dugu lan. Horrelako plan estratagikoen ikuspegi globalago eta zehatzagoa eskaintzen digute helburu horretan aurrera egiteko", adierazi du Euskara zinegotzi Eider Usobiagak.

## Bost ardatzen bueltan

Euskara Plana diseinatzeko, has-teko eta behin, galdetegi bat egin zuten, eta haren bidez 200dik gora herritarrek egin zituzten euren ekarpenak. Horretaz apar-

**PLANA DISEINATZEKO GALDETEGI BAT OSATU ZEN, ETA 200DIK GORA HERRITARREK EGIN DITUZTE EKARPENAK**

te, hainbat arlotako herritarrek eta entitateetako ordezkariak ere euren ekarpenak egin dituzte parte-hartze saioen bitartez. Udalak guztien ahalegina eskertu nahi du, eta aurrera begira ere euskara lantzen, erabiltzen eta sustatzen jarraitzera animatu nahi ditu. Izan ere, horixe era bada datozen lau urteetarako jarritako helburuetako bat: herriko eragileak eta euskaltzaleak saretu, ahaldundu eta aktibatzea.

Bost ardatz zehaztu dituzte: gobernantza; jarrerak eta motibazioa; ezagutza eta gaitasuna; erabilera eta elkarreragina; eta ikerketa. Gizartearen arlo gehienetan lantzeko egitasmoak azaltzen dira: familietan euskararen transmisioa indartzekoak, eskolaz kanpoko mundua euskararen arnagune izatea helburu dutenak, migratzaileei euskara ikastea erraztekoak, lan-munduan euskara sustatzekoak, mundu digitalean euskarazko edukiak gehitu eta euskarazko kontsumoa handitzekoak...



Txapelketa amaitu ostean, talde-argazkia atera zuten. BERGARAKO XAKE ELKARTEA

## "Lehia estua eta oso giro ona" gaztetxoek xake txapelketan

Begarako Xake Elkarteak 32 partaide erakarri zituen 16 urtetik beherakoei zuzendutako txapelketara

### J.B.L. BERGARA

Begarako Xake Elkartearen eskutik, 16 urtetik beherakoei zuzendutako txapelketa jokatu zen uztailearen 20an Zabalotegi dorrearen azpiko lokalean. 32 ume eta gaztetxok hartu zuten parte, eta "lehia estua" izan zen. 32 partaide horien artean, Bergarako jokalariek gain, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Elgeta eta Bilboko jokalaria ere izan ziren, eta guztiak jaso zuten saria. Txapelketa "oso ondo" joan zela diote antolatzaileek: "Oso giro onean joan zen txapelketa. Zazpi kanporaketa jokatu ziren,

sistema suitzarra oinarri hartuta; hala, txapelketak aurrera egin ahala, puntuazio bera zutenak elkarren artean lehiatu ziren. Xakea gazteenei hurbiltzen jarraituko dugu; urrian ekingo diogu ikasturteari".

### Multzoen araberrako onenak

Nesken multzoan onena Haizea Mendizabal arrasatearra izan zen; mutilen multzoan, berriz, Ekaitz Apraiz aretxabaletarra; Bergarako onena Ekain Sanchez izan zen; eta 12 urtetik azpikoaren artean, azkenik, Unax Albusua bergararra izan zen onena.



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

## Atzerriko ziklistak, etxean bezala

Lokatza Ziklismo Eskolako Igamo Packaging taldeko ziklistek AEBetako Helena Jones eta Frantziako Lea Ronder izan zituzten ondoan hilaren 20ko Bizkaikoloreak lasterketan. Euren herrialdeetako talde nazionalako kide dira Jones eta Ronder, eta irailean Suitzan jokatu diren Munduko Txapelketak dituzte begiz jota. Biak ala biak etxean bezala sentitu dira Bergarako taldean.

# Berumugari itxiera berezia emateko, Northagirres

Aurreko hiru kontzertuetan atzerriko goi mailako taldeak izan ostean, gaur, Urretxuko eskarmentu handiko Northagirres taldeak joko du Espoioian (22:00): "Giro ederra sortuko dute Berumuga ixteko, eta berehala hasiko gara datorren urteko 25. aldia prestatzen"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Berumuga musika zikloaren 24. aldia bukaerara iritsiko da gaur, Northagirres taldearen kontzertuarekin, Espoioian, 22:00etan. Aurreko hiru egubakoitzetako proposamenak atzerriko goi mailako taldeak izan dira, eta gaurko taldea Urretxutik dator. Eta zuzenekoan erakutsiko duten mailari dagokionez, gaur ere goi mailako kontzertuaz gozatuko du Espoioira joango den musika-zaleak. "Ziur talde horrek giro ederra sortuko duela Espoioian aurtengo Berumuga zikloa agurtzeko; berehala hasiko gara datorren urteko eskaintza prestatzen. 2025ean 25 urte beteko ditugu, gainera", dio Gaztelupeko Hotsak-eko Ubane Uzinek.

**Eskarmentu handiko rockerrak** Ameriketako Estatu Batuetatik eta Australiako iturrietatik edaten duen rock-and-roll taldea da Northagirres. Rocka, countrya, bluesa, rhythm & bluesa, eta

hori guztia ondo berezitate bi gitarrez elikatuta; eta hammondaren, pianoaren eta baxuaren zein bateriaren erritmo atal sendo eta askotarikoak eskainiko dituzte. Riffak, melodiak, erritmoa, jarrera... goi mailako ikuskizuna emango dute. Bost rockerrek osatzen dute taldea: Iñigo Agirrebalzategi –ahotsa eta gitarra–, Aitor Godoy –gitarra–, Ana Agirrebalzategi –pianoa, hammonda eta korduak–, Julen Makazaga –bateria eta korduak– eta Borja Aranburu –baxua eta korduak–. Eskarmentu handikoak dira musikari guztiak; besteak beste, honako talde hauek aritutakoak: The Hot Dogs, Müturbeltz, Sorkun, Dirty Jackets, Supertrooper eta Painful.

**ROCKA OINARRI HARTUTA, COUNTRY ETA RHYTHM AND BLUES DOINUAK ERE IZANGO DIRA GAUR**

**"Soinu dotore eta sendoa"** Antolatzaileen arabera, Northagirres rock, country eta blues abesti basatien nahasketa da: "Soinu dotore eta sendokoa, artifiziotik ihes egiten duena, premia, melodia, atzapar eta emozioan zentratzeko, ahots-indar eta konposizio-talentu handiko kantu distiratsuetan. Gitarra, teklatu eta erritmo indartsuen indar sortzaile itzelarekin harapatzen gaituzte, zuzenekoaren benetako espiritua berreskuratzen duten konposizio ikaragarriak eskaintzen dizkigute, rock-and-roll indartsuaren, rock-and-blues malguaren eta country-rock zirrargarriaren zartada ziurrak emateko. Zalantzarik ez Iparragirre harro egongo litzatekeela haren jarraitzaile rockerrez".

Taldeko musikariei eragin dieten taldeen artean daude, besteak beste, honako hauek: The Rolling Stones, Bob Dylan, Gram Parsons, Mott The Hoople, Neil Young, Tom Petty, Lou Reed, T. Rex eta Burning.



Boluko Santa Ana jaietako patata-tortilla lehiaketa, artxiboko argazki batean. GOIENA

## Bolutik Osintxuko jaiak hasi arte, festak hainbat auzotan

Asteburu honetan Boluan izango dira jaiak, eta abuztuko ospakizunei Osintxuko Kofraixek emango diete amaiera

**J.B.L. BERGARA**

Uda auzoko jaien sinonimo ere bada, eta Bergara ez da salbuespena. Gaur hasi eta domekara arte, Santa Ana jaiak ospatuko dituzte Boluan; suziriarekin, Santanaxoren jaitsierarekin eta *Boluko zelaia* martxaren erritmora hasiko dira jaiak gaur (20:00), eta musika gaua ere antolatu dute, Good Vibes (20:30), Azkaiter Pelox (22:30) eta Lord Witch (00:00) taldeen kontzertuekin.

Biharko, egitarau hau antolatu dute: margo eta pintura lehiaketa (11:00); patata-tortilla lehiaketa (11:30); umeendako jolasak (12:00); poteoa (13:15); herri bazkaria (14:30); umeendako tailerrak (16:00); igel eta toka txapelketak (17:00); festa tematikoa (18:00); Mexico Lindo taldearen kontzertua (19:30); eta DJ Iver-en emanaldia (22:00). Domekan ere hainbat ekintza izango dira: pilota partidua frontoian (11:00);

Bolu Txiki Master Chefekimena (11:30); umeendako puzgarriak (12:00); txorizo-pintxoaren banaketa, txarangarekin kantu-poteoa eta apar festa (13:30); DJ Iver-en emanaldia (19:00); eta Santanaxoren igoera, berriz ere *Boluko zelaia* martxaren erritmora (22:00).

**Osintxu oporren bueltarako**

Abuztuan ere jaiak izango dira zenbait auzotan; tartean, Osintxun. Abuztuaren 30ean, 31n eta irailaren 1ean ospatuko dira. Abuztuaren 30ean, Martiritxoren jaitsieraren (18:00) ostean, bizikletaz moztortuta joango dira Soralezera (18:30); gero, Matraka elektrotzaranga (20:00) eta kontzertuak izango dituzte (22:30): Aliritzi, Orhi eta Lemak. Abuztuaren 31n, besteak beste, bazkaria (14:30) eta Laket taldearekin erromeria (23:00) izango dituzte; irailaren 1ean, euskal dantzak izango dira protagonista.

## Aroztegi abuztuan ere zabalik: hil bakarrean, hiru erakusketa

Aroztegi aretoko erakusketek ez dute etenik izango abuztuan. Uztailaren 19an, *Azalaren sarkontasuna* erakusketa ireki zuen Ane Laskurain bergararrak, eta abuztuaren 4ra arte egongo da ikusgai; eskulturez eta irudi digitzalez osatutako erakusketa da. "Eskulturak dira, baina argazkiak ere baditu. Argazki horiek eskulturenak dira, Pho-

toshop bidez moldatuta. Beraz, lotura bat dago artean. Animatu erakusketa bisitatzeraz, adierazi zion egileak GOIENARI erakusketa lagunen artean inauguratu berrikan.

Ane Laskurainen erakusketa-oren ostean, Gaëlle Rocheren *Ikerketa plastiko baten emaitza* izeneko erakusketa ikusi ahalko da abuztuaren 9tik 25era; ondoren, Ura Iturralde argazkilari tolosarraren *Bikaren itzulera* erakusketa zabalduko dute abuztuaren 30etik irailaren 15era.



Urretxuko Northagirres taldea, promoziorako argazki batean. GAZTELUPEKO HOTSAK

## ANTZUOLAKO JAIK 2024



Kurrin dantzarekin eta udalbatzaren soka dantzarekin leheritu ohi da festa jaietako lehen egunean. OIHAN LOITI



Kudrillen arteko jokoak, joan den egubakoitzean, hilaren 19an. OIHAN LOITI

## Udalaren eta eragileen eskerra jaietan parte hartu duten herritarrei

Udalak lehen balorazioa egin du, eta "gustura" dago aurretik eginiko lanak izan duen emaitzarekin; ur parkea, bigantxak eta Gariren kontzertua nabarmendu ditu, besteak beste. Txosna Batzordea eta Ez Dot Moztuko Bizarra taldea ere pozik daude

### Amaia Ramirez de Okariz

#### Kortabarría ANTZUOLA

Uztailaren 21ean amaitu ziren jaiak, eta Udalak eta eragileek lehen balorazioa egin dute.

Olatz Lezeta Antzuolako alkatearen hitzetan, "oso positiboa" da balorazioa, "gustura" baitaude, aurrez eginiko lanak "emaitza onak" eman dituelako: "Beti daude hobetzeko gauzak, baina, orokorrean, dena atera da ongi". Hori dela eta, eskerrak eman dizkie Sormen Batzordean aritu diren herritarrei eta festetako ekintzetan parte hartu dutenei.

Nabarmentzekoei dagokienez, egubakoitzeko ur parkea aipatu du, eta aurten nobedade izan diren beste bi: "Jendetsuak eta ezberdinak izan ziren bigantxak eta Gariren kontzertua. Hala, batetik, eskerrak eman nahi dizkiot zezen-plaza muntatzen ibili zen taldeari, lan ikaraga-

ria egin baitute herritarren segurtasuna berma zedin; eta bestetik, Gariren kontzertua ere aipagarria da, aurten zerbait ezberdina egin nahi baikenuen, iazko erromerian jende gutxi egon zelako".

Dena den, irailaren 3an egingo du Sormen Batzordeak balorazio orokorra, 18:30ean, eta herritarrei parte hartzeko eskaria egin die.

#### Eragileen hitza

Txosna Batzordeak ere balorazioa egin du: "Dena joan da ondo, eta ekintza guztietan izan da jende

### SORMEN BATZORDEAK IRAILAREN 3AN EGINGO DU JAIETAKO BALORAZIOA, UDALETXEAN

nahikotxo. Antzuolako Harrikada taldeak, gainera, lehen kontzertua izan zuen, eta, euria egin arren, jendea izan zuten; aipagarria da". Hala, eskerrak eman dizkie txosnagunera joan zen jendeari eta "une oro" lanean ibilitakoei: "Baita edozein unetan barra barruan arazo teknikoren bat gertatu denean laguntzera etorri direnei ere".

Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak ere "oso positiboki" baloratu ditu jaiak: "Mila ogitartekotik gora saldu dira, eta eskerrak ematea besterik ez etorri direnei eta laguntzen egon diren herritarrei". Horrez gain, gogoan izan dituzte domekako herri bazkaria eta kantaldia ere: "90 lagun elkar-tu ginen, eta giro polita izan genuen. Garazi Barrenaren eta Asier Salaren kantaldia ere bikaina izan zen".



Antzuolako Alardea, joan den zapatuan, hilaren 20an. BEÑAT ARIZABALETA



Bazkaria, 21ean. BEÑAT ARIZABALETA



Gari, 21ean. BEÑAT ARIZABALETA



Bigantxak Ondarren, joan den domekan, hilaren 21ean. BEÑAT ARIZABALETA





Meaka-Irimo herri plataformako kideetako batzuk, martitzenean, Trekutzen. A.R.K.

# Trekutz Eguna, eolikoaren aurkako aldarria gogoan

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, irailaren 7an egingo dute; Irimora irteera izango da ekintzarik nabarmenetako bat, ekitaldi bat egingo baitute. Plataformakoen hitzetan, Jaurlaritzak abuztuaren 6ra arte du alegazioei erantzuna emateko

## Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Irailaren 7an, zapatua, ospatuko dute aurten Trekutz Eguna, urte batzuetan desagertuta egon ondoren. Meaka-Irimo herri plataformako kideek berreskuratu dute, eta, ospakizuna mantentzeaz gain, aldarri bat gehitu diote egunari: Trekutz parke eolikoaren aurkako borrokan urratsak egiten jarraitzea.

Irimora irteera izango da eguneko lehen ekintza, 09:00etan Herriko Plazatik abiatuta, proiektua zertan datzan azalduko dute ibilbidean, Mikel Arregi plataformako kideak adierazi duenez: "Mendi buelta aprobetxatuko dugu Irimora joan eta haize-errotak zein azpiestazioa egingo den tokietan azalpen batzuk emateko; ondoren, ekitaldi bat egingo dugu tontorrean, hitzartzeekin, txalapartarekin, bertsoekin...".

Txirilo eta toka txapelketak ez ezik, herri bazkaria izango da ostean, bertso saioak eta

erromeriak jarraituta, Astiazaran eta Narbaizarekin. Bazkarirako txartelak, gainera, Aitz Garbi tabernan daude salgai abuztuaren 30era arte; horrez gain, Kalebarrenen ere salmenta puntua jarriko dute abuztuaren 2an eta 30ean. "Egun polita izango den zalantzarik ez dugunez, Antzuola eta Urretxu-Zumarragako herritarrei irailaren 7a erreserbatu eta Trekutz Egunera etortzeko gonbidapena egiten diegu".

## Proiektuaren egoera

Capital Energy enpresak, Cilda Energyren bitartez, 2021ean eman zuen Trekutz parke eolikoaren gauzatzeko asmoaren berri, eta Udalak 2023ko azaroan

## ABUZTUAREN 30ERA ARTE DAUDE SALGAI BAZKARIRAKO TXARTELAK AITZ GARBI TABERNAN

eman zituen horri buruzko azalpenak. "Orain, erresoluzio fasean dago. Enpresak aurkeztutako proiektua iazko abenduaren 15ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta otsailerako tartea egon zen alegazioak aurkezteko. Udalak aurkeztu zituen ofizialak eta plataformak, berriz, herrikoiak; 3.000-4.000 inguru", azaldu du Julian Ramirez de Okarizek, Meaka-Irimo plataformako partaideak.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, administrazio epeen arabera, abuztuaren 6ra arte du alegazioei erantzuna emateko; martitzenera artekoa, alegia. "Orduan espero dugu proiektuarekin lotutako berriren bat. Horrenbestez, haren erantzuna proiektuaren kontrakoa bada, pozez jasoko dugu berria, zalantzarik ez; proiektuaren aldekoa bada, ordea, guk, behintzat, borrokan jarraituko dugu orain arteko moduan: ez daukagu gelditzeko asmorik".

## Antzuolari buruzko hamazazpi lan digitalizatzen dabil Udala

Udalak aukeraketa bat egin du dauden liburuen artean, eta haren webgunean egongo dira kontsultatzeko eran

### A.R.K. ANTZUOLA

Kontserbazioa eta zabalkundea helburu, Antzuolari buruzko hamazazpi lan digitalizatzen dabil Antzuolako Udala, Ane Leturia liburuzainak jakinarazi duenez: "Kontserbazioa, paperezko euskarria hondatu, galdu... egin daitekeelako, eta zabalkundea, edozeinek kontsultatzeko moduan egongo delako". Hain justu, gutxi gorabehera, abuztuko bigarren astetik aurrera izango da aukera hori, Udalaren webgunean.

Digitalizazio lanari dagokionez, Jose Valderray izeneko profesional bat dabil jardun horretan, eta honako hauek dira digitalean kontsultatu ahal diren liburuak: *Antzuolako Alardea. Maiuaren jaialdia; Antzuolako baserriak eta errotak; Antzuola 1900-1970. Antzinako argazkien bilduma; Antzuolako hizkera;*

*Cesareo Gabarain; Antzuolako larru ontzea; Antzuolako ohitura zaharrak; Lurretik mahaira; Antzuolako trenak; Maristak Antzuolan; Ura Antzuolan; Antzuola eta Aiherra, mugak zubi; Antzuolako Alardea. Ikerketa historikoa; Hezkuntza Antzuolan; Antzuolako armariaren alardea; Memoria josten. Gatazka armatua Antzuolan 1958-2011; eta Antzuolako aditz-taulak.*

### Jarraitutako prozesua

Digitalizatu beharreko liburuak zehaztu zituzten, lehendabizi, aurrekontua gogoan; ondoren, batzar bat egin zuten egileekin, proiektua azaltzeko eta edizio digitalak CC BY-SA 4.0 lizentziarekin argitaratzeko; azkenik, Valderrayk lanak digitalizatu ditu: PDF formatuan daude eta testuetan bilaketak egin ahal izango dira.

## Elkartasun Jaira tortillak eramatea eskatu du Anelkarrek

Elkartasun Jaia egingo du Anelkar elkarteak irailaren 6an, egubakoitza, eta oraindik egunak falta diren arren, elkartasun taldeak hitzorduak agendetan apuntatzeko eta tortillak eramateko eskaria egin die herritarrei; izan ere, ohiturei jarraituz, boluntarioek eginiko tortilla-pintxoak izango dituzte salgai arratsaldean; ohikoa den legez,

eguraldia lagun bada, Zurrategi plazan egingo dute. Aurten, gainera, jakinarazi dute musika emanaldi bat ere izango dela kioskoan, Udalak antolatuta; hala ere, aurrerago emango dute horren berri.

Jaialdiko pintxoaren salmentatik eskuratzen duten dirua, berriz, Kongon eta Senegalen martxan diren proiektu batzuetara bideratuko dute; horiek ditu Anelkarrek "garrantzitsuenak". Horrela egin izan dute beste zenbait alditan ere.

## Erreka garbitu dute asteon

Udalak antolatuta, ohikoa den moduan, jaien ondorengo zapaturako zegoen iragarrita erreka garbiketa; hala ere, aurreratzeko erabakia hartu, eta martitzen arratsaldean aritu ziren auzolanean erreka garbitzen. Sei lagun batu ziren; gutxi izanda ere, ordea, fin aritu ziren lanean, ahal izan zuten zabor guztia jaso baitzuten bazterretatik.





Ixtotzen kooperatibak ekainean egindako batzar orokorra. L.Z.L.

## Plaka fotovoltaikoen instalazio-lanak, irailean

Ixtotzen kooperatibak bultzatutako autokontsumo partekaturako instalazioaren proiektua aurrera doa. Frontoiko teilatuan geruza iragazgaitz bat gehitzeko lanetan ari da Udala egunotan; amaitutakoan hasiko dira Ixtotzenen plakak jartzeko lanak

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA Ezkutuko lan dezenteren ostean, Ixtotzen kooperatibako ordezkariak irailerako iragarri dute frontoiko teilatuan egitekoa den instalazio fotovoltaikoaren lanen hasiera. 46 kWp-ko instalazioa izango da eta aurrekontua 50.854,71 eurokoa da. "Lanak ez lukete luze jo behar. Eguraldia

lagun, hilabeteren bueltan instalazioak bukatuta behar luke", azaldu dute.

Ixtotzenek gaur egun dituen 53 bazkideetatik 45 inguruk hartuko dute parte proiektuan, eta 250 Wp-ko paketeak eskatzeko aukera izan dute. Onartutako dirulaguntza bati esker, pakete bakoitzeko 150 euroko

ekarpena egingo dute; hasiera batean aurreikusitakoaren erdia. Proiektuan parte hartzeko eskaera ofizialak eta bazkideen ekarpenak jasotzen ari da egunotan Ixtotzen.

### Hurrengo urratsak

Gaur-gaurkoz, ez dago jakiterik instalazioa noiz egongo den mar-

txan. Aurretik, gainera, bazkide bakoitzak eskatu duen potentziaren arabeko koefizienteen banaketa definitu beharko da, eta Iberdrolari jakinarazi; izan ere, instalazioa martxan jartzeko bazkide bakoitzak autokontsumoa kontuan hartuko duen kontratu berria sinatu beharko du. "Gure esku dagoena ahalik eta azkarren betetzen saiatuko gara. (...) Hortik aurrera, Iberdrolaren esku geratuko da prozesua", azaldu dute Ixtotzeneko ordezkariak.

### Enpresak eta komertzioak

Herriko enpresek eta komertzioek egitasmoarekin bat egitea bada Ixtotzen kooperatibaren erronketako bat. Pagatza Taldea izan da proiektuarekin bat egiten herriko lehen enpresa. "Inguruko enpresak bazkide laguntzaile izatea garrantzitsua dela deritzogu. Alde batetik, gure xedearrekin eta helburuekin bat egiten dutela esan nahi duelako; eta, bestetik, etorkizunean lan-kidetzarako beste espazio bat zabaltzen zaigulako. Adibidez, etorkizunean beraiek ere gure instalaziotatik kontsumitzea edo beraien teilatuetan gure instalazioak egiteko aukera negoziatzea. (...) Herriko komertzioek ere abantaila handia dute familia askoren aldean, kontsumorik handiena eguzki orduetan egin ohi dutelako eta horixe delako gehien aurrezteko aukera ematen duen eguneko tartea".

### Bestelako lan-ildoak

Ixtotzen ofizialki sortu aurretik D2030ek hiru azterketa egiteko aukera proposatu zion Udalari, eta mahai gainean dituzte kooperatiban. Minieolikoen azterketa, esaterako, martxan da. "Guretzat ezezaguna den gai bat da, eta interesgarria izango da Elgetarako soluzio aplikagarri bat izan daitekeen edo ez jakitea".

Propanoaren dependentzia murrizteko helburuarekin, berriaz, herriko bi etxebizitza bloketan kontsumoak eta efizientzia neurtzeko azterketa egin dute. "Herriarrek erabateko prestutasuna azaldu digute eta haiei egindako emaitzen aurkezpenean gaiak interes handia piztu duela ikusi ahal izan dugu. Asmoa da datuak gehiago landu eta udazkenean herrira modu ulergarrian zabaltzea".

Mugikortasunarekin lotutako azterketa ere martxan da. "Helburua herritarren beharrak eta behar horiei erantzuteko hobekuntza posibleak identifikatzea izango da. Kuantifikatzeak argazki zehatzago bat emango digu, eta datuekin beti izango da errazagoa erakundeei soluzioak proposatzea edo eskatzea".

## IXOTZENEK 53 BAZKIDE DITU GAUR EGUN; 45 INGURUK HARTUKO DUTE PARTE INSTALAZIOAN



JOSE ANTONIO OJANGUREN

## 80 urtetik gorakoak elkartu dira

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorako bazkideak elkartu ditu. Aurreko asteko egunean meza eta bazkaria izan zituzten, eta hogeitabat lagun elkartu ziren. Meza entzun ostean, 80 urtetik beherako hainbat bazkidek Ozkarbi elkartearen prestatutako

bazkariak gozatu zuten. Ekitaldi polita bezain garrantzitsua dela sinistuta, Xalbadorpe elkarteko zuzendaritzak orain bi urte berreskuratu zuen 80 urtetik gorako bazkideen eguna, eta bi urtean behin egiten dute.



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

## Itsasbazterretik

Kantsatzeke Mendi Taldeak gidatuta, Debatik Zumaiarainoko ibilbidea egin zuen irudiko kuadrillak domekan. Mendatetik eta Sakonetatik pasa eta itsasbazterretik egin zuten ibilbidearen azken zatia. Marearteko zabalgunea zeharkatu zuten Algorrirano, flyscha bertatik bertara ikusiz. Elgetako mendi taldeak irail amaierarako antolatuko du hurrengo irteera.

# "Ni Elgetarekin maiteminduta nago"

**MARIA COBO GARMENDIA** JANELA TABERNAKO ARDURADUNA

Ostalaria da eta barra atzetik ezagutu ditu herritarrak Elgetara etorri berritan, baita elgetarrek hura ere. Janela zabaldu du orain: lokal eta proiektu berria

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Maria Cobo Garmendiak (Eibar, 1981) ekainaren 20an zabaldu zuen Janela. Goitik behera berriutako lokalean gosari bereziak ditu espezialitate.

**Zer moduz joan da lehen hilabetea?**

Pozik nago. Jaien aurretik zabaldu genuen, eta mugimendu handiko egunak izan ohi dira Ferixa Nagusiko jaiak. Urte eta erdi neraman ostalaritzatik kanpo, eta aitortu behar dut urduri nengoela. Baina gauzak ondo joan dira. Gustura nago.

**Eta zenbat aldiz azaldu behar izan duzu janelahitzak zer esanahi duen?**

Askotan galdetu didate, eta oraindik ere galdetzen didate. Azalpen azkarra eman behar dudanean esaten dut *leihoa dela janela*. Argitasunari garrantzi handia ematen diot, eta horregatik jarri ditut leiho handi horiek sarreran. *Janela* izenak erreferentzia egiten die leiho horiei. Azalpen apur bat landuagoa da Gorka Urbizuren *Janela bat* abestiarekin duela lotura. Askok gustatzen zait abesti hori. Oso identifikatuta sentitzen naiz; izan ere, kantu horrek jasotzen duena da nik Janelan eskaini nahi dudana. Nire proiektuaren esentzia jasotzen du abestiak. Nahiko nuke datoztenendako Janela izatea egunari modu onean eta familia giroan hasiera emateko lekua.

**Nola definituko zenuke Janela taberna zer den?**

Kontzeptu berria da aurretik herrian izan dudan ostalaritza negozioarekin alderatuta. Aurrekoa jatetxe bat zen, eta nahiko argi neukan beste zerbait izan behar zuela Janelak. Gosalteza asko gustatzen zait niri; txikitan askotan gosaltzen nuen kalean amarekin eta ahizparekin, eta horretan jarri nahi nuen indarra. Helburua hori da. Udazkenera edo negura begira, gainera, asmoa da meriendak ere ematen hastea. Hori dut buruan.



Maria Cobo Garmendia, Janela tabernan. L.Z.L.

## "HARRERA ONA IZAN DU JANELAK; ORAINGOZ, NIRE AURREIKUSPENAK BETETZEN ARI DIRA"

**Eta harrera ona izan dute Janelako gosariak?**

Bai. Zabaldu aurretik gertukoaren artean kontsultatzen nuenean, zalantzi erantzuten zidaten. Herri txikia da, kontzeptu berria da... baina, oraingoz, nire aurreikuspenak betetzen ari dira. **Goitik behera berriutako, gainera, Salvador kaleko lokalak.** Niretzat garrantzitsua da nire gustuko lokal batean lan egitea, eta lokal horretaz harro egotea. Baita lokalak ni naizena transmititzea ere. Eta burugogorra naiz. Orain arte, ondo atera zaizkit horrelako apustuak, eta espero dut hau ere ondo iritea. Apustu handia izan da.

**Elgetan behar zuen Janelak?**

Izan dut aukera Eibarren edo Ermuan zabaltzeko, baina argi nuen Elgetan behar zuela, bai; izan ere, Elgetarekin maiteminduta nago.

**Maria, guztiz elgetartuta zaudela esango nuke.**

Orain dela bederatzi urte etorri ginen Elgetara bikotekidea eta biok. Eibartarrak gara eta ostalaritza aritu gara beti. Jende mordoia ezagutzen dugu Eibar eta Ermua inguruan. Lasaitasun eta intimitate bila etorri ginen. Plana zen lana Ermuan eta bizilekua Elgetan. Eta hemen aurkitu duguna oso berezia da; intimitate hori aurkitu dugu, baina, aldi berean, familiar sentitzen gara. Adin guztietako herritarrekin dugu harremana, eta oso gustuko dugu kalean joan eta herrikideak ezagutzea eta agurtzea; eta haiek gu. Nire izaerarekin bat dator. Behar dut.

**Jakin dut euskaraz ere gehiago egiten duzula Elgetan, eta hori ere baloratzen duzula.**

Horrela da. Bikotekidea eta biok saiatzen gara gure artean euskaraz egiten, baina sentitartekoekin eta lagunekin gaztelaraz egiten dugu beti. Elgetan askoz ere gehiago egiten dugu euskaraz; horretarako aukera handiagoa dugu hemen Eibarren edo Ermuan baino. Eta asko baloratzen dugu. Askok hobetu dut euskara. Hori uste dut, behintzat.

## Abuztuan ohikoak diren jaiak eta ordutegi bereziak

Zerbitzu gehienetan aldatu egingo dira irekiera orduak, eta prest daude bai San Roke bai San Bartolome jaiak

**L.Z.L.** ELGETA

Urtero moduan, abuztuarekin batera nabarmen jaitsiko da erritmoa Elgetan, eta, ahal den neurrian, atsedeen hartzeko baliatuko dute aukera herriko komertzioetako eta zerbitzueta-ko langileek. Gehienek ordutegi berezia izango dute, eta horren berri eman dute (Ikus beheko taula).

**San Roke jaiak**

Ohikoa dutenez, San Roke kaleko auzotarrek hilaren 16an ospatuko dituzte jaiak. Meza,

hamaiketako salda banaketa-ekin, bisita eguneko zentzura, bazkaria, erromeria, igel txapelketa, afari-merienda, argazki erakusketa eta su artifiziaiak iragarri dituzte.

**San Bartolome jaiak**

Zabaletako auzotarrak ere San Bartolome eguneko ospakizunak prestatzen ari dira. Abuztuaren 24an, besteak beste, meza (12:00), luntxa (13:00), bazkaria (14:30), erromeria Miren eta Arkaitzekin eta hiru-txirlo bola txapelketa (19:30) izango dira.

## Abuztuko ordutegiak

**UDALA**

- **Udal bulegoak** Hilaren 12tik 18ra, itxita; gainerakoan, ordutegia: 08:00-13:00.
- **Liburutegia** Itxita uztailearen 31tik irailaren 1era.

**OSTALARITZA**

- **Maialde** Zabalik. Bereziak: hilaren 26tik 31ra jangela itxita. Zapatu eta domeka goizetan ere jangela itxita.
- **Lola** Egunero zabalik. Ordutegia: astelehenean, martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan, 10:00-16:00 eta 19:30-00:00; barikuetan eta zapatuetan, 10:00-17:00 eta 19:30-01:00; domeketan, 10:00-17:00.
- **Janela** Itxita abuztuaren 12tik 18ra; gainerakoan, ordutegia: 08:00-15:00 eta 19:00etatik itxierara arte.
- **Haizea** Lehen eta azken asteetan ohiko ordutegia; abuztuaren 5etik 25era, zabalik 08:30etik 21:00etara.
- **Bolatokia** Abuztuaren 15etik 19ra, itxita; gainerakoan: abuztuaren 1etik 11ra, 10:00etatik 15:00etara eta 18:30etik itxierara; abuztuaren 12tik 14ra, 18:30etik itxierara; abuztuaren 20tik 28ra, 18:30etik itxierara.
- **Barrenengua** Zabalik.
- **Eguzkitza** Zabalik.

**DENDAK**

- **Goikoetxe harategia** Itxita abuztuaren 12tik 25era; gainerakoan, astelehenean zaturata 08:00-13:00.
- **Ugari denda** Goizez zabalik. Ordutegia: 07:30-13:00. Arratsaldez itxita.

**BESTELAKOAK**

- **Elkoro farmazia** Goizez ohiko ordutegia: aste tarte 09:00-13:30 eta zapatuetan 10:00-13:30. Arratsaldez itxita.
- **Saioa masajeak** Zabalik.
- **Ilea ile-apaindegia** Zabalik 09:00etatik 15:00etara egun hauetan: abuztuaren 1etik 3ra, 8an, 9an, 22an, 23an eta 27tik 31ra; gainerakoetan, itxita.



Urbiako ermita eta inguruan landatutako zuhaitzak 1930ean. INDALECIO OJANGUREN

# Urbiako lizarrak iparrorratz

la ermitak beste urte, 100, dituzte Urbian landatu zituzten lehen lizarrek; 770 lehendabiziko landaketa nagusi hartan eta beste 500 bat 60ko hamarkadaren hasieran. Bideak nondik segitzen duen erakusten dute oraindik ere

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urbiako ermitatik fondarainoko eta handik aurrerako zuhaitzak inguru hartako ikur dira. Urbiaren deskripzioa edo margoa egiterakoan duda barik agertuko diren elementuak. Lizarrak dira horietako gehienak.

## 770 lizar lehen landaketan

Hainbat sasoitan landatutako zuhaitzak dira. Ermitak beste urte, 100, dute ia batzuek, eta hasierako helburua edo zentzua betetzen jarraitzen dute gaur egun: ingurua edertzeko eta gerizpea emateko bai, baina baita bidea non dagoen jakiten laguntzeko ere.

Arantzazuko frantziskotarren liburutegian eta artxiboan badute gordeta horren gaineko informazioa, bertako artxibozain David Cano oñatiarrak azaldu eta erakutsi duenez. Gordeta eta

sailkatuta dauden idatzietan ageri da, esaterako, lehen landaketa 1925ean egin zutela, ermita inauguratu eta urtebetera. 770 lizar landatu zituzten orduan, errenkara bikoitzean, Elorrolatik hasi eta fondara eta errekatxora bitarteko zatian. Hain zuzen ere, hostotza handiena dutenak.

Ermitaren 40. urteurrena festetako egitaraua antolatuz ospatu zuten. Proiektu haren bultzatzaile izan zen Jose Adrian Lizarralde frantziskotarra omen du zuten orduan. Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* eta Manuel Lasarte *Lasarte* bertsolariak izan ziren, adibidez, eta *Txiki* artzain txakurrak erakustaldia egin zuen Juan Mari Murguzurren esanetara. Ospakizun hartarako, baina, beste landaketa handi bat egitea erabaki zuten, aurretik jarritako asko apurtu

egin zituztelako, dokumentuetan irakur daitekeenez.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak lehiaketara atera zituen landatze lan haiek. Frantziskotarren artxiboan dauden dokumentuetan dago jasota bete beharreko baldintzen agiria: 0,30 metroko sakonera izango zuten 500 zulo eta 1,80 metroko eta puntan bukatutako hiru tarket inguruan, erdian bi metro inguruko landarea sartzeko. Ataundik ekarri zituzten horiek, eta *Taque* izeneko mandoa buru zen espedizioan igo gora. Lizarrak landareak, berriz, Zaldibar (Bizkaia) Areitio mintegitik; Urbia-zalea zen oso hango nagusia, Juan Guridi. Kamioian eroan zituzten Arantzazura, 1963ko azaroaren 29an, eta mando, zaldi eta asto gainetan eraman handik Urbiara hurrengo egunean. Zurituta zegoen orduan



Arkume-jana egiten ermitaren ondoan, 1966ko udaberrian. JUAN LUIS ZALDUA



Urtarrilaren 7ko argazkia, Urbia ingurua lainotuta eta lizarrak bistan. J.M.A.E.

Urbia. Abenduaren 4an bukatu zuten landaketa, auzolanean, 568 zuhaixka, "eguraldi ezin hobegoarekin".

## Beste lau norabidetan ere bai

Jose Inazio Lasak, Aita Lasak, bideratu zuen landaketa hura, eta hainbat erakunderi dirulaguntza eskatu zien. Orduko landaketa hartan, baina, bide nagusian ez ezik, albokoetan ere landatu ziren zuhaixkak. Hain zuzen ere, Urbiatik Aizkorrirako bidean, Zegamako estazio alderakoan, Artzanburutik Legazpi aldera eta Otzaurtera: norabide bakoitzaren lehen 200 metroetan sartu zituzten zuhaitz-landareak.

Juan Luis Zaldua zumarragarra, berriz, badaki bidea marrazteko Urbian landatutako lizar

**MANDO, ASTO ETA ZALDI GAINETAN IGO ZITUZTEN LANDAREAK ARANTZAZUTIK URBIARA**

hietako batzuk euren ingurutik eramandakoak ere badirela. "Gure aita zena Sagaspe baserrikoa zen, Urbia-zale itsua, eta Beloki inguruko basoan zeuden lizarrak aitzur txiki batekin atera eta Urbiara eraman zituen, han berriz birlandatzeko. Lagunak zituen Urbian aitzak, eta ia igandero joaten ginen anaia eta biok harekin. Zegamako geralekura lehenengo trenean, eta handik oinez Urbiara, Andraitz gainetik. Etxerako buelta ere berdin, baina geraleku ondoan zegoen merenderoan arrautza pareta janda heltzen ginen etxera. Oso goxoa izaten zen hango otorduaren une hura. Urbiako ermitan txoko moduko bat zegoen, oraindik ere badagoena, eta haren bueltan auzolanean ibiltzeko boluntario asko elkartzen ginen garai hartan. Oñatiarrak ziren asko, baina baita Zumarraga-Urretxutik joandakoak ere. Jatordu ederrak egiten genituen han zenbaitetan, lagunaz inguraturik. Oñatiko lagun asko egin genituen han. Gogoan dut nola Aita Lasa Elorrola in-

gurutik heltzen zen ermitara eta salda beroa hartzen zuen meza esan aurretik. Zegaman bizi zen Eloy Tejada eta Regino Biain eta Inazio Enparantza oñatiarrak izaten ziren haren laguntzaileak".

Lehenengoaren ostean, 60ko hamarkada hasierakoa izan zen nagusia, baina haren ondoren egin zituzten gehiago ere. 1980an, esaterako, beste 94 lizar landatu zituzten.

### Laino artean lagungarri

Urbiako lizar haiek askoren iparrorraz izan dira; batez ere, lainoa barruraino sartuta egon den egunetan, bideak nondik jarraitzen duen jakiteko. Horixe izan zen landatzearen arrazoietako bat, bidea markatzea, eta oraindik ere lagungarriak dira horretan. Horixe dio, esaterako,



Zuhaitz ilara, martxoan. A.J.E.

ia zapatu guztietan beste lagun pare batekin Urbiara joaten den Xabier Zelaia oñatiarrak: "Non zauden eta nondik jarraitu behar duzun jakiten laguntzen dute zuhaitzek: Aizkorri aldera, Ze-

gama aldera... doazen bideen hasierak markatzen dituzte. Egia da gaur egun, akaso, harrezkerro egin diren bidexkak hartzen dituela jendeak Aizkorrira heltzeko, adibidez, baina ibilbide nagusiak zuhaitzek markatzen dituzte".

XX. mende hasieran artzain askok eta euren familiek Urbian pasatzen zituzten maiatzetik urrira bitarteko hilabeteak, gutxi gorabehera, eta gurtzeko lekuri gertukoena Arantzazu izanda jarri zuen martxan Lizarralde fraideak Julio Beobidek zizelkatutako eta Ignazio Zuloagak pintatutako Andra Mari zaindari izango zuen ermitaren proiektua. Proiektu berean landatu zituzten lehen lizarrak, orduko zein egungo artzainei eta baita mendizaleei ere, bidea erakusteko.



NIRE USTEZ

ITZIAR ALONSO AGIRRE

## Kontua perspektibaz aldatzea da

Udako oporrak gertuago dauden honetan, bidaiatzeaz hausnartzea gustatuko litzaidake.

Denbora dudanean, toki desberdinak ezagutzea dut gustuko. Bidaiatzeko modu desberdin asko daude, denak balekoak: bidaiatzea ez delako lekuz aldatzea bakarrik, perspektibaz aldatzea ere badelako.

Bidaia bakoitza bakarra da; bere paisaiagatik, arrazoiagatik, bidaiatzen dugun jendearengatik... Ez bidaiatzea gelditu egotearen berdina da. Ezagutzen dugunarekin konformatzea, konfort gunean geratu eta ondoan dugun aberastasunik gabe geratzea. Bidaiatzeak gizartea eta mundua ezagutzen laguntzen du; norberaren burua hobeto ulertu eta arazoak erlatibizatzen, sinesmen eta pentsamendu desberdineko pertsonen inguratuz, kultura eta ohitura berriak ezagutzuz...

Esan gabe doa ez dela beharrezkoa munduaren amaieraraino joatea, badaudela modu jasangarrian eta gertukoan egin daitezkeen bidaiak. Finean, etxetik gertu eginikoa —egun bakar zein bi astekoa— ere bada balekoa bizipen berriei leku egiteko.

## Irailean beteko ditu 100 urte ermitak

1924ko irailaren 28an inauguratu zuten Urbiako basiliza. Han bizi ziren artzainek domeketan meza entzun ahal izan zezaten aita Lizarralderen ekimenez eraiki zuten, 35.884 pezetako (215,663 euro) aurrekontuarekin —oñatiarren artean 2.340 pezeta (14,0634 euro) batu zituzten—.

Jose Adrian Lizarralde frantziskotar zaldibiarra izan zen proiektuaren bultzatzailea.

1923ko abuztuaren 8an, ermita egiteko utzi zuen Partzuergoak Urbiako zelaiaren erdiguneko zati bat, Aizkorri mendikatearen mutur guztietatik ikus zitekeena. Marcelo Guibert azkoitiarra izan zen arkitektoa; kontratistak eta langileburua, berriz, Araotzeko uriartetarrak eta Demetrio Goitia. Bost hilabetean bukatu zituzten lanak.

### 6.000 lagun inaugurazioan

Euskal Herriko Alpinismo Federazioko presidentek hala eskatu zuelako izan zen inaugurazio eguna 1924ko irailaren 28an: tren berezi bat ipini zitekeen igande bakarra zen, eta, gainera, ilargi bete zegoen, eta hori eskertuko zuten Urbiara gauz igo gura zutenek. Bilbotik trenz heldu ziren mendizaleak eta Araba aldetik, autobusez. Gehienek bat egin



Urbiako ermita eraikitzen, 1924an. INDALECIO OJANGUREN



2022ko San Inazio eguna. J.I.A.

zuten Arantzazun, goizeko zortzietan. *El heraldo alavés* eta *Argia* egunkariak jaso zuten inaugurazioaren aipamena, eta 6.000 lagun elkartu zirela diote orduko kronikak. Mateo Mujika apezpikuak esan zuen meza, eta ostean, fonda izango zenaren lehen harria bedeinkatu zuen. Telefonoa ere egun hartan

zabaldu zuten: *Urrutizkiña: Gipuzkoa, España ta herbestera*ko irakur zitekeen ondoan zuen oharrak.

### San Inazio eguna 31n

Aurten ere, uztailaren 31n festa egingo dute Urbian. 11:00etan izango da meza, artzain txakur lehiaketa gero, bertsolariak eta soinu-joleak egunean zehar eta erromeria Miren, Agur eta Oierren eskutik.

Egun horretan Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua indartu egingo du Udalak: 55 plazako bi ibilgailu handi jarriko ditu eta irteerak ordu erdian behin izango dira. Oñatin geltoki bat izango du zerbitzuak: Arantzazuko Ama kalean. Lehen autobusa 07:30ean aterako da Oñatitik; azkena, 19:00etan Arantzazutik.

## Abuztuan ez da herri osoko argi mozketarik egongo

Abuztuan herri osoan kendu ohi izan dute argia hornikuntza sarean konponketak egiteko, baina aurten ez da horrelakorik gertatuko. Argindarraren hornikuntzan mantentze-lan batzuk egingo dituzte datorren hilean, baina horiek ez dutela sare osoan eraginik izango jakinarazi du Oñargik.

Bestalde, abuztuaren 7an mantentze-lan batzuk egingo dituzte, lau orduko argindar etena eragingo dutenak, 08:00etatik 12:00etara. Zañartu eta Urrexola auzoetako hiru gunek hauei eragingo die: Miruerreka Elkarrea, Olateko zentrala eta Lamiategikoa. Argia aurrez abisatu gabe emango dute.

## Cupeiro Arantzazun, Eloorrieta, Oreka TX eta Barandiaranekin

Abraham Cupeiro galziarrak *Ahaztutako soinuak* izeneko kontzertua egingo du Arantzazun, Donostiako Musika Hamabostaldien barruan. Cupeirok haize-instrumentuak jotzen ditu, eta biolina, biolontxelo, pianoa eta organoa eta perkusioa biltzen dituen Ensemble Musica Practica taldea izango du ondoan Arantzazuko emanaldian. Gainera, Kamerata Oiassoko bakarlariak, Oreka TXko txalapartariak, Korrontzi taldeko Agus Barandiaranek eta Eñaut Eloorrietak ere parte hartuko dute.

Kontzertua abuztuaren 29an izango da, 19:00etan, eta sarrerak [www.quincenamusal.eus](http://www.quincenamusal.eus) helbidean eros daitezke.

**AUTLAN**  
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako  
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Parke gorria 8 eta 14 urte arteko gazteendako egokituko dute. OIHANA ELORZA

## Parke gorriko eta plazako proiektuak martxan dira

Lehenengo 8 eta 14 urte arteko nerabeendako moldatuko dute, sozializazio eremu berriak lortzeko. Plaza ondoko kiosko inguruan zoladura konponduko dute eta azterketa globala egingo dute. Biak parte-hartze aurrekontuetatik bideratuko dituzte

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Parte-hartze aurrekontuen barruan, herritarrek hainbat behar antzeman zituzten herrian, eta horietariko birenzako proiektuak abiarazi ditu Udalak: parke gorrikoa eta plazakoa. Lehenengoaren kasuan, herritarrek 8 eta 14 urte arteko nerabeentzako egokitutako tokien faltan igarri zuten, eta behar horri erantzuteko Udalak parke gorria hautatu du. Sozializazio eremu berri bat aurreikusten dute han, eta, horretarako, espazio berrien txertaketa egiteaz gain, espazioa bera moldatu egingo dute hirigintza ikuspegitik, baita pedagogikotik ere. "Erabilera multifuntzionala duten elementuak jartzea da asmoa; esaterako, oholtza bat. Hara igo egin daiteke, dantza egin, bideoak grabatu eta abar. Bestetik, espazio intimoagoak direnak ere egon daitezke han, mahai baten buletan aulki batzuk jarrita. Horrez gain, espazio zabalak ere bai, jolas askeak garatu ahal izate-

ko; eta konfiantzarako eta konfidentzialtasunerako une intimoagoak, esaterako", dio Iñigo Ruizek, Udaleko Hirigintza batzordeburuak.

### Plazako proiektua

Aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek identifikatutako beste behar bat plazako kioskotik frontoirako zoladura berritzea izan zen. Hain zuzen, parke gorriko proiektuarekin batera, paraleloan, plaza eta kiosko ingurua konpontzeko egitasmoa ere jarri du martxan Udalak. Proiektu hori egiteko, partaideztako aurrekontua eta Next Generation funtsetatik etorrikoa dituzte mahai gainean, egingo duten lana zabalagoa izango

### BI PROIEKTUAK IDAZKETA FASEAN DAUDE ETA IRAILEAN JASOKO DITUZTE PROPOSAMENAK

baita. "Proiektu anbiziotsua da. Plaza, kioskoa eta azoka inguruak guztiz aztertu eta eraberritzea da asmoa. Hortxe sartuko litzateke Next Generation funtsa, eta zoladura aldaketa hortxe txertatuko litzateke.", adierazi du Ruizek. Eraberritze lan horietan kiosko inguruko berdeguneak ere sartuko lirateke. Kasu horretan, gune horiek babestutako eremuak dira, eta Aldundiarekin ari dira hizketan, zenbateraino moldatu ahal izango dituzten jakiteko.

### Biak idazketa fasean

Parke gorriaren moldaketa eta plazako kioskoaren bueltaren eraberritzeko lanak Udaleko hainbat sailen artean egindako lanketa oinarri hartuta abiarazi dituzte; Hirigintza Sailaz gain, baita, esaterako, Berdintasuna, Parte-hartzea eta Gazteria ere. Bi proiektuen kasuan, idazteko fasean daude eta irailaren erditik aurrera hasiko dira proposamenak jasotzen.



MARIAN GONZALEZ

## Agur, herritarren babespean

1981ean ireki zituen atea Kale Zaharrean dagoen Izarraitz tabernak. Lau hamarkadatan baino gehiagotan pintxoak eta edariak hartzeko toki mitikoa izan da oñatiarrentzat zein kanpotik etorri direnentzat. Domekan amaiera eman zioten ibilbide horri, familia eta lagun artean. Edozelan ere, Izarraitzek ez ditu atea itxiko, baina jabez aldatuko du.

## Abuztuko ordutegia izango dute Udaleko hainbat zerbitzuek

Usakoko autobus zerbitzuak bi asteko etena izango du abuztuko erdiko bi asteetan, hilaren 12etik 25era arte

### I.B.K. OÑATI

Oñatiko Udaleko hainbat zerbitzu abuztuko ordutegia eskaintzen hasiko dira aurrerantzean. Esaterako, Usakoko autobus zerbitzuan, abuztuaren 9ra arte, 16:00etako eta 19:30eko zerbitzuek joan-etorria egingo dute; abuztuaren 26tik irailaren 13ra arte ere ordutegia berbera izango da; abuztuaren 12tik 25era, berriz, eten egingo dute zerbitzua eta goizez bakarrik egingo da, 14:00ak arte.

Kiroldegiari dagokionez, abuztuaren 1etik 31ra arte, astelehe-

netik zapatara, 10:00etatik 20:00ak arte egongo da zabalik; domeketan itxita egongo da kiroldegia. Liburutegiaren kasuan, helduen liburutegia aste barruan 09:30etik 13:30ak arte egongo da zabalik eta asteburuetan berriz, itxita. Haurren liburutegia ere itxita egongo da eta haurrentzako liburuak helduen liburutegian egongo dira eskuragai. Herritarren Arreta Zerbitzuak (HAZ) ere ordutegi berezia izango du: abuztuan zabalik egongo da, aste barruan, 08:30etik 14:30ak arte, hain zuzen ere.

## Iker Senar, hirugarren

Oñatin bizi den aramaioarra hirugarren izan zen Kantoikrit lasterketan; oñatiar azkarrenaren saria ere eskuratu zuen Senarrek. Garaipena Allan Milliot frantziarrak eskuratu zuen, eta Luis Brenes bartzelonarra izan zen bigarrena. Emakumezkoetan, Agnes Alimonti izan zen azkarrena, eta Maialen Zabala eta Maria Orrego, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren.



IÑIGO BARRENA



# UDAKO ARGAZKIEN 20. GOIENA LEHIAKETA



**Dubrovnik**  
Argazkia: Odei Vazquez | Aretxabaleta



**Girona**  
Argazkia: Irati Urzelai | Aretxabaleta



**Dolomitenak**  
Argazkia: Iker Zubizarreta | Arrasate



**Suaren Irribareak, Portasolgo jaietan**  
Argazkia: Angel Ayestuy | Aretxabaleta

## Martxan da!

Egin klik eskuko telefonoarekin zein argazki kamerarekin eta bidali udan ateratako argazkiak!

Posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!

### Sariak

- **LEHEN SARIA:** Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei esker, opari-kutxa: bi lagunendako landetxe batean gaua eta gosaria.
- **BIGARREN SARIA:** Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afora edo bazkaria.
- **HIRUGARREN SARIA:** Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Samsung Galaxy A05s.
- **GAZTE SARIA (16-18 urte):** Intersport-Loramendiren eskutik mendirako McKinley saria: motxila + bastoiak + kantinplora.
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Bergarako Ereindajan-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.



Oinarri eta argazki guztiak hemen: [goiena.eus/bereziak/20-udako-argazkien-lehiaketa](http://goiena.eus/bereziak/20-udako-argazkien-lehiaketa)

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak bost argazki aurkez ditzake, gehienez. Argazkiarekin batera adierazi behar dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.
  - Argazkia non ateratakoa den.
  - Jaiotza-data (gazteen kategorian parte hartzen duen jakiteko)
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 19tik irailaren 23ra arte –biak barne–.
- Bidali argazkiak eta datu guztiak posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- Debagoienean jaio edo bizi den 16 urtetik gorako edozeinek parte har dezake.
- Argazkiak originalak izan behar dira eta koloretan zein zuri-beltzean aurkez daitezke.
- Udako argazkiak izango dira: aurtengo udan ateratakoak edo beste uda batekoak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu, GOIENA aldizkarian eta [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.
- Bost sari egongo dira eta honela erabakiko dira:
  - Lehen lau sariak Goienako kidez osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
  - Gazte Sarian 16 eta 18 urte artekoek soilik izango dute parte hartzeko aukera. Gazte horiek gainontzeko sariak irabazteko aukera ere izango dute.
  - Irailaren 27tik urriaren 2ra izango da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.
- Argazkiak Goienaren euskarrietan argitaratuko dira.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante - Jatetxea

BERGARA  
**EREIN  
DA  
JAN**

**Halcon** BIDAIAK  
ARRASATE BERGARA

**INTERSPORT**  
LORAMENDI

# "Debutean lasterketako abiadurak ikara ematen du"

**JULEN ARRIOLABENGOA ETA JOSEBA LOPEZ** CAJA RURAL TALDEKO ZIKLISTAK

**TXIRRINDULARITZA** Bizikleta gainean milaka kilometro pilatu badituzte ere, ziklista profesional gisa ia hasiberriak diren bi debagoiendarrek orain artekoaz egin diote berba GOIENARI



Arriolabengoa, Hellasko Tourrean tropeletik tiraka. CAJA RURAL

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

Joseba Lopezek (Arrasate, 2000) profesional gisa egin duen bigarren urtean lortu du lehenengo garaipena. Martxoan jaso zituen besoak, Portugalen jokatzeko duten Classica Arrabidan, eta Caja Rural Seguros RGA taldearendako urteko lehenengo garaipena izan zen -eta taldearen historiako 100. garaipena-. Julen Arriolabengoa (Eskoriatza, 2001), berriz, iritsi berria da profesionaletara, baina hilabete hauetan aurreikusi baino hobeto moldatu da maila berrira. Biek aitortu dute, hori bai, lehenengo lasterketetan harrিতuta geratu zirela tropelaren abiadurarekin, beldurra sentitzeraino. Lopezek Valladoliden lehiatu ostean erantzun ditu galderok, etxean atsedean hartzen; Arriolabengoak, berriz, beroagatik hamaika etapa gogor izango dituen Portugalgo Itzulia hasi bezperan erantzun du GOIENAREN telefono-deia.

**Joseba, aitortuko dizut urte hauetan GOIENAREN radarretik kanpo izan zaitugula...**

**Joseba Lopez:** [Barre] Bai; 6 urte izan nituen arte Arrasaten bizi izan nintzen, baina ondoren, gurasoek Gasteizera joatea erabaki zuten eta han egin dut bizimodua. Urte hauetan guztietan Arrasaterekin ez dut lotura eten, aitaren partetik familia hemengo delako. Gainera, urte hasiera ezkerre Arrasaten bizi naiz.

**Tira, entrenatzen haize gutxiago izango duzu orain, baina gehiago bustiko zara...**

**J.L.:** Konturatu naiz, bai! [Barre] Maiatzean eta ekainean bota duen euriarekin, gainera... Ez da normala izan! Lehen ere oso sarritan etortzen nintzen hona entrenatzera; Arlaban, Kurtzeta eta, bereziki, Gorla nire entrenamendu tokiak dira. Gasteizen bizi nintzenez, baina, honaino etorri behar nuen, eta orain etxean bertan ditut mendate horiek. Esango dizut, baita ere, hemen bizi naizetik gehiagotan joaten naizela Landa aldera. Nire *gruppetto*-a [entrenatzeko taldea], gainera, gasteiztarra da. **Julen, profesional zarenetik lehenengo elkarrizketa da hau; zer moduz kategoriar berrian?**

**Julen Arriolabengoa:** Oso ondo. Hasieran kosta egiten da kate-

**"GREZIAKO ITZULIAN IHES EGINDA JOATEA EDERRA IZAN ZEN"**

**"LASTERKETAN ELIKADURAREKIN EZIN GARA DESKUIDATU"**

**"JOSEBAK ETAPAK IRAKURTZEKO GAITASUNA DU"**

JULEN ARRIOLABENGOA

goria berrira egokitzea; esango nuke maiatzetik aurrera lortu dudala asentatzea eta taldearendako lan ona egiten hastea. Egia da amateur mailan ondo zainduta geundela, talde filiala ginen eta baliabideak ere onak izan ditugu orain arte. Baina profesional mailan dena dago planifikatuago, eta lantalde handiagoa duzu inguruan zure beharretara lanean, zu zeu entrenatzeaz edo lehiatzeaz bakarrik arduratu zaitez.

**Ametsa bete duzun honetan, amestutako bizimodua daramazu?**

**J.A.:** Bai, zalantza barik. Oso gaztetatik izan dut profesional bilakatzeko ametsa, eta iritsi naiz, gozatzen nabil. Lasterketa guztiak berriak dira niretako, eta ilusioz noa denetara. Egia da kirolari profesional askok ez dutela egiten duten horrekin gozatzen, baina ez da nire kasua. Bizitza estilo hau maite dut, entrenatzea ez zait gogorra egiten, ezta neure burua zaintzea ere. Eta egia da, baita ere, gauzak lasaitasunez hartzeko gaitasuna daukadala; hau da, ez dut txirrindulariaren bizimodua muturrera eramaten, badakit erlaxatzen. Gozatzen ibiltzeak ez du esan nahi egun guztiak zoragarriak direnik, noski. Badaude egun txarrak, baina hauxe da bizitza osoan egin nahi izan dudana.

**Amateur mailarekin alderatuta, zertan igarri duzu alde handiena?**

**J.A.:** Jakinekoea da abiadurak, gogortasunak... ez dutela zerikusirik. Baina alde handiena elikaduran nabaritu dut. Amateur mailan lasterketan zehar jatekoekin edo edatekoekin deskuizatzen bazinen ere, normalean ez zen ezer gertatzen, lasterketak irabazteko borrokan egon zintezkeen. Hemen ez, dena egin behar da bikain, dena dago neur-tuta. Nahikoa da etapa batean ondo ez jatea itzuli oso bat pikutara botatzeko; gero ez zara errekuiperatzen.

**Joseba, zuk fresko duzu profesionaletako lehenengo urtea zelakoa den; zelan ikusten duzu Julen?**

**J.L.:** Oso ondo, ze lehenengo urtea zaila izaten da denondako; bereziki, hasierako hilabeteak. Egia da orain arte egutegi nahiko ezberdina izan dugula, ez gara elkarrekin askotan egon,

**"ITZULIAN GERTU IKUSI NUEN GARAIPENA"**

**"KATEGORIARA EGOKITU BEHAR DUZU LEHEN URTEAN"**

**"TALDE-LANERAKO BETI GERTU IKUSI IZAN DUT JULEN"**

JOSEBA LOPEZ

baina hilabete gutxian heldutasun handia hartu du, ziklista egin da. Hona iristen zarenean amateur mailatik zatoz, han lasterketak irabazten ibili zara eta hemen konturatzen zara tropela ze azkar doan, eta zuk taldearendako lan egin behar duzula. Gogoan dut Mallorcan sufritzen ikusi nuela, baina denok bizi izan dugu prozesu hori. Tropel barruan jarraitzeko lanak izaten dituzu aurreneko lasterketetan. Ondo gogoan dut iaz nire hastapenak zelakoak izan ziren. O Gran Camiñon [Galizia] geunden eta sekulako parte-hartzea zegoen: Remco, Vingegaard, Ayuso, Roglic... Tourra zirudien horrek. Une batean, Bora taldea tiraka jarri zen, eta benetan esaten dizut, beldurra pasa nuen bizikleta gainean. Ez nintzen ezer egiteko kapaz izan, etapa guztiak tropelean egin nituen, eta han ere larri. Gero ohitu egiten zara, baina hasieran...

**Lesio batek eten zizun progresioa...**

**J.L.:** Bai; hilabetez geratu egin behar izan nuen eta horrek ere ez zuen lagundu. Eskerrak denboraldi amaieran egoerari buelta eman nion; Kroaziako Itzulia, esaterako, onenekin batera ikusi nuen neure burua. Eta behar nuen halako denboraldi amaiera bat. Pentsa, profesionaletara pasa nintzen Espainiako txapelduz izanda, eta inoiz baino lan gehiago eginda ere larri ikusten duzu zeure burua.





Joseba Lopez, martxoan Arrabidako klasikoan lortutako garaipenean. CLÁSICA ARRABIDA

Zalantzak etortzen zaizkizu orduan, baina aurrerapauso bat eman nuen, egokitu egin nintzen kategoriara, eta denboraldi amaieran uxatu egin nituen zalantza haiek.

#### Eta aurten dagoeneko lortu duzu lasterketa bat irabaztea.

**J.L.:** Bai; iazkoa ondo amaituta, neguan motibatuta ibili naiz, eta denboraldi hasiera ona egin dut. Itzuliko ibilbidea ikusita, taldean komentatu nuen pozik egingo nuela etxeko lasterketa, eta kontuan hartuko zutela esan zidaten. Hala, aste batzuk lehenago, Clásica Arrabidan oso hanka onak nituela ikusi nuen, eta lasterketak irakurtzeko erraztasuna daukadala uste dut. Bi gauza horiek batzen direnean garaipenak errazago etortzen dira, eta Arrabidan lasterketa irabaztea lortu nuen. Konfiantza ematen dute garaipen horiek, erakusten dute profesionaletan ere kapaz zarela irabazteko. Eta garaipen horrek zabaldu zizkidan Itzulian egoteko ateak.

#### Hain justu, Itzulian Vingegaard eta konpainia Oleta eta Kruzeta artean erori zirenean, zu ihes eginda zindoazen...

**J.L.:** Halaxe da; ez dut egun hura berehalakoan ahaztuko. Berezia izan zen Gasteiztik eguneko ihesaldian sartuta pasatzea. Sei lagun gindoazen aurretik, eta Kruzeta jaisten aurreratu egin nintzen. Baina orduan etorri zen atzekoen

erorketa, eta lasterketa neutralizatu egin zuten orduan; gero, ihesaldian gindoazen artean lehiatu behar izan genuen etapa. Ez zen gozoa izan egoera hartan etapa lehiatzea... Baina tira, aurrera egin behar izan genuen eta etapa irabazteko apustua egin nuen. Seikotea apurtuta zegoen eta aurrekoak harrapatzen saiatu nintzen banekielako esprintean azkarrena izan nintekeela. Baina hustu egin nintzen lan horretan, eta seigarren izan nintzen. Ez nituen erabaki onak hartu, ikasgai ona izan zen.

#### Julen, ziklista gisa zelakoa da Joseba?

**J.A.:** Langile nekazekina da; iritsi den tokira iritsi bada izan da besteok baino lan handiagoa egin duelako. Inork ez dio ezer oparitu, sekulako dedikazioa izan du. Lasterketan, berriz, intuizio handia izaten du, oso ona da etapak irakurtzen.

#### Joseba, zelakoa da Julen ziklista gisa?

**J.L.:** Eskalatzaile peto-petosa da, oso igotzaile ona. Lehen esan bezala, urte erdian aurrerapauso handia eman du eta taldera eta kategoriara ondo egokitu da. Bestalde, etaparen ezaugarriak ez badira harendako aproposak, sekulako talde-lana egiteko kapaz da. Etapa lauetan ez dauka arazorik aurrean jarri eta daukana emateko. Izan ere, garrantzitsua da hori.

1. Lasterketa bat?
2. Bizikletan okerren daramazuna? Eta ondoen?
3. Deskonektatzeko toki bat?
4. Gustuko ziklista baten ezaugarri bat nabarmendu.
5. Ziklismoa ez den zaletasun bat?
6. Txundituta geratu zaren momentu bat?



JOSEBA  
LOPEZ  
ZIKLISTA

1. Donostia Klasikoa.
2. Psikologikoki neure buruarengan konfiantza izatea, hori da gehien kostatzen zaidana / Elikadura zaintzea eta gogor entrenatzea ez dira arazoa niretako.
3. Bizikleta gainean deskonektatzen dut.
4. Remco Evenepoelék daukan garaipen gosea.
5. Egia esan, bizikletatik kanporako zaletasun horren bila jarraitzen dut oraindik.
6. Pogacarrek Tourrean egin duen erakustaldiarekin *flipatu* dut gehien. Momentu bat esatearren, Plateau de Beilleko etapa.



JULEN  
ARRIOLABENGOA  
ZIKLISTA

1. Alpe D'huez-en amaituko litzatekeen bat. Hori da nire mendate gustukoena.
2. Bizikleta gainean hotza pasatzea da okerren daramadana. Entrenatzea ez zait batere kostatzen, gustura egiten dudana zerbait da.
3. Mendia deskonektatzeko leku aproposa da.
4. Mikel Landak duen erregulartasuna.
5. Eskupilota.
6. Tourrean, hamaikagarren etapen, Vingegaardek Pogaçar atzean utzi zuenean.



Aretxabaletako iazko lasterketako irteeraren unea. GOIENA

## Gipuzkoako Federazioko kideek dimisioa aurkeztu dute

**TXIRRINDULARITZA** Lasterketak antolatzeko Trafiko Zuzendaritzak jartzen dizkien trabengatik

#### X.U. ARRASATE

Orrialde hauetan GOIENAK el-karrizketatu dituen Joseba Lopez eta Julen Arriolabengoa profesionaletara iristeko ezinbestekoak dira herri mailako lasterketak. Eta horiek kolokan daude datorren denboralditik aurrera, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko kideek dimisioa aurkeztu dute eta. Arrazoi nagusia izan da Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzak lasterketak antolatzeko etengabe jartzen dizkien trabak, eta Jaurlaritzarengandik izan duten babes falta.

Hain zuzen, iaz Oñati Saria izan zen Julen Arriolabengoa irabazi zuen lasterketako bat. Hala, Federazioaren erabakiak ez du ezustean harrapatu proba hori antolatzen duen Aloña Mendiko ziklismo saileko presidentea Aitor Atorrasagasti: "Erabat ulergarria da; antolatzailak eta Federazioko kideak ezin dira ibili egun osoan Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzako kideekin borrokan. Bizkaian eta Araban Ertzaintzak ez du arazorik jartzen, baina hemen bai. Trafikotik baimenak azken orduan iristen dira, iristen badira... Iaz, Ulma Challenge ondo sufritu genuen hori. Trafikotik esan ziguten epez kanpo egin genituela eskaerak, eta ez zegoela ertzainik lasterketa zaintzeko. Eta hori gezurra zen; dokumentazio osoa ondo bideratu genuen. Gero, esan ziguten agiriak galdu egin zituztela. Eta bitartean, pentsa

Oñatiko eta Bergarako udal agintarien aurrean, babesleen aurrean... ze aurpegi geratu zitzaigun. Boluntario mordoa ekarri behar izan genituen errepideak zaintzeko. Nahikoa da! Lan egiteko ilusioa kendu digute denei. Sinesgaitza da ikustea gutxi batzuek zelan duten horrenbeste jenderen ilusioa zapuzteko gaitasuna".

#### Aretxabaletako lasterketa, bai

Iaz arazo askorekin ibili ziren, baina lortu zuten denboraldia itxura batean egitea; bidean eten batzuk eginda, hori bai. Orain dimisioa aurkezteko azken tanta, baina, abuztuaren egungo dituzten Aretxabaletako eta Elgoibarko lasterketak antolatzeko izan dituzten zailtasunetatik etorri da. "Lasterketa horiek ez baimentzeko aitzakiak ikustekoak izan dira. Baina, azkenean, Jaurlaritzak eman ditu baimenak". Hala, abuztuaren 16an Aretxabaletako lasterketa normaltasunez egin ahal izango dute, baina urritik aurrera kolokan dago dena. "Aurrekari hauekin ez dakit nor aurkeztuko den Federazioko hauteskundeetara. Oso zaila izango da inork pausoa ematea", dio Atorrasagastik.

## ABUZTUAREN 16KO ARETXABALETAKO LASTERKETA NORMALTASUNEZ ANTOLATUKO DUTE



Ad Hoc orkestra osatzen duten kideak. AD HOC

# Herbehereetako orkestra bailaran ezagutaraztera

Euskal Herrian egingo du bira Herbehereetako Ad Hoc orkestrak, eta, tartean, Bergaran eta Arrasaten emango dute kontzertua. Txemi Etxebarria bergararra izan da bi urtez bertako zuzendaria, eta "ederra" izango da, haren hitzetan, Ad Hoc bailaran ikustea

**Julen Murua Mesonero** BERGARA Herbehereetako Ad Hoc orkestrak Debagoiena bisitatuko du uztailleko azkenengo astean; izan ere, udako biraren barruan, Euskal Herrian egingo du geldialdia. Hala, Bergaran -Espolioan- eta Arrasaten -Monterron parkean- kontzertu bana emango du orkestrak, hilaren 27an 12:00etan eta 30ean 19:30ean, hurrenez hurren.

**Txemi Etxebarria, kide ohia** Bi urtez Ad Hoceko zuzendari lanetan jardun du Txemi Etxebarria bergararrak, eta, gaur egun kargu hori ez badu ere, gertu-gertutik ibili da Euskal Herriko bira antolatuz lanean.

Berezia da, beraz, Etxebarriarentzat berak landu duen musika banda "etxera ekartzea. Ederra da banda hori Debagoiengan ikustea. Bi urtez egon naiz eurekin, eta, musikari batzuek bertan jarraituko badute ere, beste asko berriak izango dira niretzat ere. Musikariek curriculumuma bidaltzen dute eta horien artean aukeraketa bat egiten da; beraz, urtero jende berria sartzen da bandan. Gogotsu eta oso pozik nago Euskal Herrira eta, zehazki, Debagoienara ekartzeagatik".

**Talde handia** Oinarrian, "Debagoiengan aurreratu daitezkeen banden bezalakoa"

da Ad Hoc, Etxebarriaren araberak. Musikari kopurua, baina, bai da ohiko banda batekoa baino handiagoa; izan ere, "70 musikari inguruk" osatzen dute banda. Kopuruz horren handia izanik, "instrumentuei dagokienez ere oso banda osoa" dela dio Etxebarriak, ez baitzaie banda batek izaten dituen instrumentuak falta: "Egur eta metal instrumentuz osatutako orkestra bat da, eta perkusioa ere ez zaie falta; banda osoa dela esan daiteke".

Emanaldi bakoitzean bakar-lari bat eta kontzerturako espresuki idatzitako lan bat izaten dute eurekin. Oraingoan, Garikoitz Mendizabal txistu-

lari bilbotarra izango da bakarlaria, eta herbeheretarrek aurrenekoz izango dute txistulari bat lan horretan.

## Antzeko egoerak

Herbehereetan banda batean egoteko "ohitura handia" dagoela dio Etxebarriak, eta hango egoerak Euskal Herrikoarekin alderatuta parekotasunak eta ezberdintasunak dituela dio: "Egon naiz Bergarako ordezkariekin hitz egiten, eta esan dimate etorkizuna nahiko ilun ikusten dutela, belaunaldi berriek beste aukera batzuen alde egiten dutelako, eta ez bandan jotzearen alde. Gutxi konprometitzen direla horrelako banda batean jotzera. Herbehereetako egoerari dagokionez, oinarriko arazoa da musika eskola asko ixten ari direla. Gazte orkestra asko dirulaguntzarik gabe gelditu dira, eta hedabideetan oso entzuna izan den gai bat da. Hamar edo hamabost urte barru, ez da batere erraza izango horrelako banda bat mantentzea". Banda osatzen duten musikariei dagokienez, "gehienak amateurrak dira", nahiz eta badauden "kontserbatorioko ikasleak ere". Horiez gain, Etxebarriak dio egon daitekeela "profesionalen bat", baina inor ez dela bandako kide izatetik bizi.

## Euskal Herriko bira

Bergaran eta Arrasaten emango dituzten kontzertuez gain, Euskal Herriko beste hainbat tokitan ere egongo dira: "Azkoitian, Lekeition eta Zestoan egongo gara; Herbehereetara itzultzen garenean, Frantzian ere emango dugu kontzertu bat. Oso pozik nago Ad Hoc Euskal Herriko hainbat txokotan ikusteko aukera izateagatik".

## Txinan eginiko emanaldien ostean, etxean da Suhar

Hamar egunez ibili dira abesbatzakoak Txinan jokatu diren festibaletako talde gonbidatu gisa

## J.M.M. OÑATI

Euskal Herriko Suhar gizon abesbatza gazteak hegazkina hartu eta atzerrira egin zuen jauzia, haren errepertorioa eza-gutzera emateko. Txinara egin zuten bidaiak, eta dagoeneko Euskal Herrira itzuli dira, euren errepertorioa Txinako hainbat aretotan eskaini ostean. Abesbatza osatzen duten kideen artean badaude bost debagoiendar: Esteban Urzelai eta Xabier Mugarza oñatiarrak, Aitor Garitano bergararra eta Iñaki Olaizola eta Txomin Maidagan arrasatearrak.

## Festibaletan gonbidatu

Hamar egunez egon dira Txinako hiriburua Pekinen eta Qingdao hirian; izan ere, China International Chorus Festival eta SCO Summer Festival festibalak jokatu dira, hurrenez hurren, eta Suhar izan da festibal horietako talde gonbidatuetako bat. Beraz, aurrenekoz ibili dira Txinako ikus-entzuleen aurrean, eta, hasiera batean "hotz samarrak" baziruditen ere, Urzelaiak dio emanaldiek aurrera egin ahala "bertako publikoa ere gozatzen" hasi zela eta "opariak ematen eta argazkiak ateratzen" amaitu zutela.

# ABUZTUAN ZABALIK!

**ABUZTUKO OPORRETAN ERE GERTUKO INFORMAZIOA ESKAINIKO DIZUEGU GOIENA TELEBISTAN, 'GOIENA.EUS' ATARIAN ETA 'GOIENA' APLIKAZIOAN.**



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA



**goiena**  
Zu hemen zaude.

# Veneziako Zinemaldian estreinatuko dute 'Marco'

Aitor Arregi eta Jon Garaño zinema-zuzendarien film berria Veneziako 81. Zinemaldian 'Orizzonti' sailean lehiatzeko aukeratu dute. "Hautatuak izatea soilik saria" dela aitortu dute, eta erakusleihen ederra izango dela eurentzat azpimarratu

**Imanol Beloki Unamuno** DEBAGOIENA Aitor Arregik eta Jon Garaño zuzenduta eta Jose Mari Goenagaren eta Jorge Gilen gidoiarekin Moriartik, Irusoinen eta Atresmediak ekoiztutako lana da *Marco* filma; Enric Marco famatu egin zuen bizitza-etapan oinarrituta dago. Mundu guztiari nazien kontzentrazio-esparru batean preso egon zela sinetsarazi zion urteetan zehar, baina jakin zen ez zela sekula kontzentrazio-esparru batean egon.

"Gizaki guztiek maitatuak izateko duten beharraz hitz egiten du lanak; eta istorio horretako protagonistak marra gorri hori gainditu zuen; gizon konplexua zen... Eztabaida sortu dezakeen

filma ere bada; hau da, aretotik atera eta zeresan asko izan dezake. Hori asko gustatzen zitzaien istorio horretatik, eta espero dut ikusleari ere hori eragitea", dio Aitor Arregi zinema-zuzendari oñatiarrak.

## Saria, han egotea

Filma abuztuaren 28tik irailaren 7ra egingo den Veneziako jaialdian aurkeztuko dute, eta aukeratu izatea soilik saria dela dio Arregik; izan ere, lehen aldia da Moriartiko filmetako bat jaialdi horretan aukeratzen dutena: "Veneziakoa guretzat sekulako erakusleihoa da, eta etxetik kanpo ateratzea gure lana ere oso garrantzitsua da guretzat. Zine-

maren munduko fokua han egoten da, eta han bertan egotea sekulakoa izango da".

## Asun Arzuagari eskerrak

Filma azaroaren 8an iritsiko da zinema-aretoetara, eta esker mezua bidaltzeko aprobetxatu du Arregik: "Asun Arzuaga zuzendari eta aktore oñatiarra aipatu nahiko nuke; pertsonaia ederra egin zuen, eta eman digun guztiagatik oso eskertuta gaude. Zoragarria izan zen egun batez harekin lan egitea, baina, zoritxarrez, narrazioarengatik hainbat eszena kendu egin ditugu, hura agertzen zena, eta pena izan da. Hala ere, gure pelikularen parte sentitzen dugu".



Eduard Fernandez aktorea Enric Marco interpretatzen *Marco* pelikularako fotograma batean. MORIARTI

## Euskal Herriko I. Argazki Topaketa Aretxabaletan

*Argazkia.Eus* izeneko lehenengo argazki topaketa deitu du Aretxabaletako Udalak. Urriaren 5ean egingo da eta hitzaldiak eta erakusketak antolatuta dituzte ordurako, argazkilarien lanak ezagutzera emateko asmoarekin. Gainera, 2.500 euro banatuko dituzte saritan.

Euskal Herrian jaio edota bizi diren argazkilariek parte hartu

ahal izango dute, eta, horretarako, euren lanak aurkeztu behar dituzte aurretik; irailaren 8rako, hain zuzen. Parte-hartzaile guztien artean zortzi argazkilaria hautatuko dituzte: Euskal Herriko lurralde bakoitzeko bana -Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa- eta zortzigarrena, Aretxabaletakoa. 300 euro jasoko dituzte horiek. Topaketa egiten den egunean, hautatuak agertokira igoko dira euren argazki-proiektua aurkeztera.

## Zabalik dago Danbaka Musika Lehiaketako izen-ematea

Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketaren seigarren aldia egingo da aurten. Bergarako Seminarixoa aretoa izango du kokaleku aurten ere, eta lau saio izango dira, urritik abendura bitartean; eta finala urtarrilean. Bailarako musika taldeek parte hartu ahal izango dute eta izen-ematea irailaren 22ra arte egongo da zabalik.

## Goienakideen txokoa

### UZTAILEKO IRABAZLEAK

#### ERRIGORAKO SASKIA

Amaia Pagaldai Urrutia (Arrasate)

#### HARREMAN DENDA KO OTARREA

Felix Ormaetxea Uribetxebarria (Deba)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Eulalia Ugarte Alberdi (Bergara)  
Maria Gardoki Legorburu (Oñati)  
Marta Usabiaga Yerobi (Eskoriatza)

#### SORALUZE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Emillen Uriarte Zorroza (Arrasate)

#### LOLA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Miren Urzelai Ugarte (Oñati)

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena Klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txartelarekin. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Auzotz auzoa. OÑATI 943 08 20 00. Ondutegia: astelehenerik igandera 10:00 - 17:00 (aurrez deitu hitzordua egiteko) Hurrengo denbako otarrea. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Errigorako saskia jasotzeko,** zator GOIENArekin egotzera. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** aditza eman behar da. GOIENA Otarrea Lizenziaduna 31, Arrasate 943 25 05 05. Ondutegia: astelehenerik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00

## Irabazi bi lagunendako otordua

### BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: irailak 2

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app' -a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOIENAKIDE KUOTA: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena<sup>™</sup>  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasateko etxe batean logela errentan hartuko nuke. Lan kontratu dut. Pertsona heldua eta arduratsua naiz. Telefonoa: 747 45 37 91

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Gubxieneko neurriak betetzen dituen garaie errentan hartuko genuke. Altuera: 2,85 metro, Luzera: 6,20 metro eta Zabalera: 2,80 metro. 606 36 98 99.

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gaztea, irailetik-ekainera arratsaldez haurrak zaintzeko prest. Hezitzaile titulua dut eta esperientzia antzeko lanetan. 689 62 30 11 edo 653 71 16 21

**Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergara.** Emakume gaztea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Asteburuetan edozein ordutan eta aste barruan arratsaldean lan egin dezaket. 603 71 72 39

**Arrasate.** Pertsona nagusien zaintan lan egingo nuke. Asteburuetan lan egiteko prest, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 658 92 43 73

**Bergara.** Neska goizetan garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak paseatzeko prest. 642 37 01 92

**Bergara.** Orduka garbiketa lanak egiteko prest nago. 642 37 01 92

**Bergara.** Titulu soziosanitarioko dut eta pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. 688 85 46 59

**Bergara.** Urtean zehar, goizez, umeak zaintzeko prest dagoen 18 urteko neska bergararra naiz. Lehen hezkuntza ikasten dut. 634 43 71 49

**Bergaran, Arrasate, Aretxabaleta.** Mutila garbiketa lanak egin, pertsonak zaindu edo bizikletan banatzaile lanak egiteko gertu. Deitu 642 36 70 42 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko nitzuke. Astelehenerdik ostiralera bitartean garbiketa lanak egiteko gertu. 632 63 77 38

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketa lanak egin edota etxe zein ospitalean konpainia egin eta pasiazera laguntzeko gertu. Astelehenerdik ostiralera orduka lan egingo nuke. 642 37 35 93

**Debagoiena.** Emakume arduratsua pertsona nagusien zaintan eta arretan lan egiteko gertu. Asteazken zehar 9:00etatik 16:00etara bitartean lan egingo nuke. Soziosanitarioko titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 689 50 70 54

**Debagoiena.** Emakumea goizetan garbiketa lanak eta pertsonak zaintzeko prest. Deitu zenbaki honetara: 641 99 12 18

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu. Lanean esperientzia dut. Sukaldari-laguntzaile, pisuko zerbitzari edo garbitzaile gisa lan egingo nuke. baita garbitzietan ere. Euskara oinarritzko maila. 688 71 08 09

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak edota garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitarioko ikasketak ditut. Esperientzia handia. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 631 19 50 43

**Debagoiena.** Emakumezko pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Asteburuetan malgutasun osoa eta astean zehar goizetan lan egin dezaket. Telefonoa: 624 09 84 65

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko nitzuke. 643 29 75 77

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, gauetan sartu eta goizean ater. Pertsona nagusiak zainduko nitzuke. Deitu zenbaki honetara: 672 96 37 99

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 10 urteko esperientzia dut. Legezko agiriak ditut. Deitu zenbaki honetara: 632 51 84 14

**Debagoiena.** Etxean bertan pertsona nagusiak zainduko nitzuke. Emakume arduratsua eta esperientziaduna naiz. Malgutasun osoa dut astean zehar zein asteburuetan. Berehalako disonibilitatea. Deitu 677 14 64 27 telefonora.

**Debagoiena.** Etxe etxe-ko laguntzaile gisa lan egingo nuke, baita egoiztetan edo ospitalean lan egiteko ere. Egunez zein gauzez lan egingo nuke. Esperientzia dut. Soziosanitarioko titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 15 50

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nitzuke astelehenerdik igandera bitartean. Asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. 612 56 12 39

**Debagoiena.** Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomenio onak ditut zainntzan. Kotxea, soziosanitarioko titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Gizonezko pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Telefonoa: 604 28 78 39

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nitzuke orduka edo ospitalean. Telefonoa: 643 50 58 27

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nitzuke orduka edo ospitalean. Soziosanitarioko titulua daukat. Deitu 643 50 56 62 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nitzuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Bi urteko esperientzia antzeko lanetan. 631 94 62 82

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta alaia etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko gertu. Asteazken zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Pertsona nagusien zainntzan esperientzia dut. Deitu 677 14 64 27 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gaztea etxe, taberna edo atarietako garbiketarak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Berehala lanean hasi naiteke. Deitu 613 66 91 91 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Orduka, pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nitzuke. Egunean zehar edo gauetan lan egin dezaket, baita asteburuetan etxean bertan bizi izaten ere. Telefonoa: 602 80 15 38

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edota garbiketa

lanak egingo nitzuke, baita zerbitzari lanak ere. Astelehenerdik ostiralera orduka edota asteburuetan lan egiteko gertu. Esperientzia dut. Soziosanitarioko ikasketak amaitzen ari naiz. Telefonoa: 647 04 01 05

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nitzuke. Garbiketa lanak egiteko gertu. Emakume arduratsua naiz. 688 75 82 62

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edota garbiketa lanak egingo nitzuke. Soziosanitarioko ikasketak eginen. Deitu telefono zenbaki honetara: 625 25 57 78

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota etxe zein atarietako garbiketarak egingo nitzuke. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. Berehalako prestasuna duen mutil gaztea naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 613 66 10 50

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nitzuke asteburuetan edota gauetan astelehenerdik ostiralera. Ospitalean ere lan egingo nuke, orduka. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 48 17

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nitzuke. Legezko agiriak eta soziosanitarioko titulua ditut. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Deitu 631 43 45 84 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nitzuke. Soziosanitarioko ikasketak ditut. 672 96 46 49

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen gizona. Soziosanitarioko titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 672 55 67 35

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Bi urteko esperientzia dut. Deitu 627 58 37 45 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nitzuke etxean bertan bizi izaten. Soziosanitarioko titulua dut eta 2 urtetako esperientzia. 605 28 85 92

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintan edota garbiketarak lan egiteko prest dagoen esperientzia handiko emakumea naiz. Etxetik kanpo, etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Garbiketa ikastaroa egin daukat. 611 24 18 98

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintan lan egingo nuke. Esperientzia dut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 747 49 22 10

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Katakumak opari.** Katakumak oparitzen dira. Deitu telefono zenbaki honetara: 610 31 02 61.

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Ohe artikulatua salgai.** PARDO markako ohe artikulatu elektriko salzten da. Neurriak: 90 x 1.90. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu zenbaki honetara: 660 46 34 93

## 9. HARREMANAK

## 903. DEIAK

**Debagoiena.** Debagoienek gay edo bisexualak diren 50 urtetik gorako pertsonak ezagutu nahi ditut. Jende jatorria eta alai. Nirekin kontaktuan jartzeko idatzi mezu elektronikoko bat laurenbat4@gmail.com helbidera.

## ZORION AGURRAK



BERGARA

**Martin Olabarria**

Abuztuaren 10an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ospati zure eguna eta asko disfrutau, pittin! Ikaragarri maixe zaitxugu! Besarkada erraldoi bat, bereziki Danel eta Suan partetik!



OÑATI

**Luka Uribe Barbero**

Abuztuaren 4an, urtebete. Zorionak! Segi beti bezain alai eta irribartxu. Besarkada eta laztan mordo bat familia danan partetik.



ARRASATE

**Markel Arregui Fernández**

Abuztuaren 3an, urtebete. Zorionak, Markel! Patxo haundi bat familixan partetik. Asko maite zaitxugu!



BERGARA

**Ignazia Larrañaga, Naia Osa, Iñaki Osa**

Uztailaren 31n, 9 urte. Ignazik 97 urte, Naiak 9 urte eta Iñakik 70 urte. Zorionak, hirukote! Horrelako umore onarekin jarrai deizuela! Familia eta lagunak partetik muxu handi bana.



OÑATI

**Nora Kortabarria Sainz**

Uztailaren 28an, 9 urte. Zorionak, gure printzesa! Gozatu eta ospatu zure 9. urtebetetzea. Laztan handi bat etxekoan partetik.



ATAUN

**Lain Eraña Almeida**

Uztailaren 28an, urtebete. Zorionak, grazioso! Primeran pasau eguna eta asko disfrutau politxo! Patxo eta besarkada haundi bat Arrasatek eta Eskoitzatik!



OÑATI

**Lea Perez Romaratezabala**

Uztailaren 27an, 4 urte. Zorionak, politta! Egun zoragarria pasau! Izugarri maitte zaut!



**Bergara: Irizar Ibilbidea**  
78m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, balkoia, trastelekua.  
310.000€



**Bergara: Mabiategi**  
60m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, trastelekua, oso argitsua.  
165.000€



**Bergara: Osintxu, Etxea, 93m<sup>2</sup>, 4 logela, terraza, lorategi eta baratzarekin.**  
210.000€



**Ibargarai 3 BERGARA**  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

Informazio gehiago: 

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**OROIGARRIA**



**Roberto Urteaga Errasti**

2024ko uztailaren 19an hil zen, 63 urte zituela.



---

*Ohore bat izan da zure alboan bizitzeko aukera izatea.  
Eskerrik asko, Tiro.  
Zure bihotzeko txone.*

---

Aretxabaletan, 2024ko uztailaren 26an.

**OROIGARRIA**



**Iñaki Olañeta Aranburu**

2024ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.



---

*Zure poztasuna eta bizitzeko grina beti izango ditugu gogoan.*

**GEHIBER**

---

Gehiber-eko lankideak.  
Bergaran, 2024ko uztailaren 26an.

**ESKER ONA**



**Iñaki Olañeta Aranburu**

'Kix'

2024ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.



---

*Une bakoitzean gozatu daitekeenarekin gozatu behar dela irakatsi diguzu, Iñaki.*

---

Eskerrik asko, familiakoen izenean, Iñaki lagunartean agurtzeko zapatuan eta domekan gurekin egon zineten guztioi eta zuen doluminak helarazi dizkiguzuen guztioi.

---

Bergaran, 2024ko uztailaren 26an.

**URTEURRENA**



**Milagros Madinazkoitia Urzelai**

2023ko uztailaren 31n hil zen, 97 urte zituela.



---

*Zure balioek eta irakatsi zenigun guztiak gurekin diraute.  
Elkarrekin betiko!  
Etxekuak*

---

Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 27an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.  
Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

---


Oñatin, 2024ko uztailaren 26an.

**URTEURRENA**

**Kontxi Rodriguez Uranga**

(Jose Mari Iñurritegiren alarguna)

2023ko uztailaren 24an hil zen, 97 urte zituela.



---

*Beti zurekin, gurekin beti.  
Etxekoak*

---

Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 27an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.  
Bertaratuko zaretenoi alde zurekin eskerrik asko.

---

Oñatin, 2024ko uztailaren 26an.



BABESLEA

**Oroilore**  
*Hileta zerbitzuak*

---

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

---

*Gure artean agortutako guztiak eseren bidez aurrizten lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango date agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gogon izan dituzuen konfiantzagarri eta maitasunagarriak.*

**Mario, Iban, Mariñi eta Cristian**

---

**617 44 21 55**  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
- Egubakoitza, 26 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
- Zapatua, 27 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
- Domeka, 28 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- Astelehena, 29 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- Martitzena, 30 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
- Eguaztena, 31 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- Eguena, 1 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
- BERGARA EGUNEZ**
- Egubakoitza, 26 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
- Zapatua, 27 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
- Domeka, 28 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
- Astelehena, 29 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
- Martitzena, 30 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
- Eguaztena, 31 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
- Eguena, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
- Egubakoitza, 26 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- Zapatua, 27 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- Domeka, 28 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- Astelehena, 29 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
- Martitzena, 30 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- Eguaztena, 31 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- Eguena, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)
- SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- BERGARA GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)
- OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**  
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## BERRI-ZAKUA



**Merezitako omenaldia**  
Ander Murua arrasatearra protagonista izan zen Uarkapeko jaialdian. 9 urteren ostean etxean jokatu zuen eta zaleen aitortza jaso zuen, Mauri Zubillagaren eskutik.



**Argazki onenak**  
Bergarako San Joxepe argazki onenak saritu zituen. Olga Balzategi, Juan Antonio Unzurrunzaga, Jose Ignazio Albusua eta Jose Aguayo saritu zituzten.



**Peña Amayara**  
Bergarako Pol Pol mendi taldeko beterranoen taldeko hainbat kide Burgosko Herrera de Pisuerga eta Villadiego herriaren arteko mugan dagoen Peña Amaya mendian (1.377 metro)

egon ziren hilaren 14an. Eguraldia lagun, ederto ibili ziren. Peña Amaya antzinako Kantabriako gotorlekuetako bat da. Udako oporren osteko lehen irteera irailan egingo dute, Pirinioetara.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 26

**ARRASATE Ferrerías kaleko jaiak**

08:00etan, etxafuegoak; 12:00etan, txistularien kalejira; 17:00etan, haur-jolasak eta txokolate-jana; 19:00etan, erraldioen konpartsa txikia eta txistularien kalejira, eta meza; 21:00etan, afaria; eta 23:00etan, dantzaldia.  
*Ferrerías kalean.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelerez. Izena emateko bideak: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
*Gatz Museoan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua**

Unibertsitate zaharra eta parroquia ezagutzeko aukera. San Migel errota ere ikus daiteke. Izena: 943-78 34 53.  
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**OÑATI Santa Marina auzoko jaiak**

18:00etan, jaien hasiera eta txorimaloak; 20:00etan, karro-poteoa; 21:00etan, Andoni Ollokiegi, Zaparra eta Zentzu Okerra taldeak; eta ostean, DJ Azid.  
*Santa Marina plazan.*

**ARRASATE Blues Duet bikotea**

Jonas Molina eta Danny del Toro bikotearen emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan.  
*Mondragon hotolean, 19:30etan.*

**BERGARA Santa Ana jaiak**

20:00etan, etxafuegoak eta Santanaxoren jaitsiera; 20:15ean, buruhandien kalejira auzoan; 20:30ean, Good Vibes taldea; 22:00etan, Azkaiter Pelox taldea; eta 00:00etan, Lord Witch taldea.  
*Bolua auzoan.*

**BERGARA Northagirres taldea**

2012an Urretxun sortutako seikotearen emanaldia, Berumuga jaialdiaren baitan. Rock, country, blues eta rhythm and blues doinuak izango dira protagonista. Debalde.  
*Espoloián, 22:00etan.*

## ZAPATUA 27

**ELGETA Intxortako ibilbide gidatua**

Izena emateko: 943-79 64 63 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**OÑATI Gomiztegi bisita gidatua**

10:00etan, paseoa ibilbide irigarrian; eta 11:30ean, bisita gidatua. Izena: 943-78 28 94 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus).  
*Arantzazuko Parketxean.*

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan, gaztelerez. Izena: 943-71 89 11 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
*Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

**OÑATI Santa Marina jaiak**

11:00etan, hurrendako (ur) jolasak; 16:00etan, mus txapelketa; 19:00etan, txorimaloak; 20:00etan, karro-poteoa; 22:00etan, Hiru Haundiak, Soroalde eta Hamarratz taldeak; eta ostean, DJ Atenenas.  
*Santa Marina plazan.*

**BERGARA Santa Ana jaiak**

11:00etan, margo lehiaketa; 11:30etan, patata tortilla lehiaketa; 12:00etan, jolasak; 13:15ean, poteoa; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, tailerrak; 17:00etan, toka txapelketa; 18:00etan, festa tematikoa; 19:30etan, Mexiko Lindo taldea; eta 22:00etan, DJ Iver.  
*Bolua auzoan.*

**BERGARA Adhoc**

**Vakantieorkost taldea**  
Kalejira eta kontzertua egingo du musikari profesionalek eta afizionatuek osatzen duen taldeak, Txemi Etxebarriak gidatuta.  
*Espoloián, 11:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatuak**

*Lorategi historikoak, Bergara Monumentala eta Laboratorium museoa* aukeran, 11:00etan eta 12:30ean. Izena ematen duen lehenak aukeratzen du bisita mota eta hizkuntza (943-76 90 03).  
*Laboratoriumen.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelerez. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
*Gatz Museoan.*

**OÑATI Espeleotxiki**

6 urtetik gorakoendako. Izena: 943-08 20 00.  
*Arrikrutzen, 15:30ean.*

**ARRASATE Ines Osinaga**

Arrasateko musikariaren proiektua, Udazabal egitarauaren baitan.  
*Monterron parkean, 22:00etan.*

## DOMEKA 28

**ELGETA Intxortako ibilbide gidatua**

Izena emateko: 943-79 64 63 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**OÑATI Aitzulora ibilaldia, familiendako**

Izena emateko: 943-78 28 94 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus).  
*Araotzen, 10:00etan.*

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan, gaztelerez. Izena: 943-71 89 11 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
*Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

**OÑATI 'Altxoraren bila' familian**

Izena: [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus) edo 943-78 28 94.  
*Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.*

**BERGARA Santa Ana jaiak**

11:00etan, pilota partiduak; 11:30ean, *Umeak sukaldera* lehiaketa; 12:00etan, puzgarriak; 13:00etan, txorizo-pintxoak, Gesaltza fanfarrea eta apar-festa; 19:00etan, DJ Iver; eta 22:00etan, Santanaxoren igoera.  
*Bolua auzoan.*

**BERGARA Bisita gidatuak**

*Lorategi historikoak, Bergara Monumentala eta Laboratorium museoa* aukeran, 11:00etan eta 12:30ean. Izena ematen duen



NORTHAGIRRES

**BERGARA Northagirres taldea**

2012an Urretxun sortutako seikotearen emanaldia, Berumuga jaialdiaren baitan. Rock, country, blues eta rhythm and blues doinuak izango dira protagonista. Debalde.  
*Gaur, egubakoitza, Espoloián, 22:00etan.*

lehenak aukeratzen du bisita mota eta hizkuntza (943-76 90 03).  
*Laboratoriumen.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelerez. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
*Gatz Museoan.*

**OÑATI Santa Marina auzoko jaiak**

12:00etan, luntxa; 14:30ean, auzo bazkaria, eta ostean, bingo-jokoa; 18:00etan, lango magoa; eta 19:00etan, kontzertu akustikoak: Xabier eta June, eta Ekain, Markel eta Uxue.  
*Santa Marina plazan.*

## ASTELEHENA 29

**BERGARA Bisita gidatua Elikaeneara**

Oxirondon dagoen denda-topagunea ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-77 91 00 edo [alkatetza@bergara.eus](mailto:alkatetza@bergara.eus).  
*Oxirondo azokan, 18:30ean.*

## MARTITZENA 30

**BERGARA Bisita gidatua Elikaeneara**

Oxirondon kokatzen den denda-topagunea ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-77 91 00 edo [alkatetza@bergara.eus](mailto:alkatetza@bergara.eus).  
*Oxirondo azokan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA San Inazio jaiak Muru Alden**

19:00etan, bolo-txapelketa; eta 21:30ean, bertso-afaria, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia bertsolariekin.  
*Muru Alde elkartean, 19:00etan.*

**OÑATI '20.000 especies de abejas' filma**

Estibaliz Urresolaren pelikula.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## EGUAZTENA 31

**OÑATI San Inazio eguna Urbian**

11:00etan, meza; 13:00etan, artzain txakur lehiaketa; ostean, Miren, Agur eta Oierrekin erromeria; eta egunean zehar, bertsolariak eta soinu-joleak.  
*Urbian.*

**ARETXABALETA San Inazio jaiak Muru Alden**

Salda eta txorizo-pintxoak elkartean, trikitilariak girotuta.  
*Muru Alde elkartean, 12:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelerez. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
*Gatz Museoan.*

**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bideoa**

Txokolateixan emango dute. Erreserba: 605 767 35 95.  
*Txokolateixan, 12:00etan.*



BANANAS TALDEA

**OÑATI San Lorentzoko jaiak**

Abuztuaren 2tik 4ra ospatuko dituzte, askotariko ekintzekin. Leku berezia izango dute musika kontzertuek; besteak beste, Emaion, Latxama, Bananas –goiko argazkian– eta Muzak taldeak egongo dira. *Abuztuaren 2tik 4ra, Oñatiko San Lorenzo auzoan.*

**OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua**

Unibertsitate zaharra eta parrokia ikusteko. Izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**EGUENA 1**

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun** 10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 89 11. *Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa.*

**OÑATI 'Kakaoaren bidaiari' bideoa**

Txokolateixan emango dute. Erreserba: 605 767 35 95. *Txokolateixan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua**

Unibertsitate zaharra eta parrokia ikusteko. Izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatuak**

*Lorategi historikoak, Bergara Monumentala eta Laboratorium museoa* aukeran, 11:00etan eta 12:30ean. Izena ematen duen lehenak aukeratzen du bisita mota eta hizkuntza (943-76 90 03). *Laboratoriumen.*

**EGUBAKOITZA 2**

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun** 10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 89 11. *Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa.*

**OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua**

Unibertsitate zaharra eta parrokia ikusteko. San Migel errota ere ikus daiteke. Izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatuak**

*Lorategi historikoak, Bergara Monumentala eta Laboratorium museoa* aukeran, 11:00etan eta 12:30ean. Izena ematen duen lehenak aukeratzen du bisita mota eta hizkuntza (943-76 90 03). *Laboratoriumen.*

**OÑATI San Lorentzoko jaiak**

16:00etan, etxafuegoak; 16:30ean, Aratz Ugarteren omenezko XV. mendi bizikleta ibilaldia; arratsaldean, San Lorentzoko pilota txapelketa; 17:30ean, txorimaloak; 18:30ean, triki-poteoa; eta 22:00etan, Bizardunak (bertsioak), Emaion eta Latxama taldeak. *San Lorentzon.*

**ZAPATUA 3**

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun** 10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 89 11. *Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa.*

**OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua**

Unibertsitate zaharra eta parrokia ikusteko. Erdi Aroko San Migel errota ere ikus daiteke. Izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatuak**

*Lorategi historikoak, Bergara Monumentala eta Laboratorium museoa* aukeran, 11:00etan eta 12:30ean. Izena ematen duen lehenak aukeratzen du bisita mota eta hizkuntza (943-76 90 03). *Laboratoriumen.*

**OÑATI San Lorentzoko jaiak**

16:00etan, mus txapelketa; 18:00etan, Potx magoa; arratsaldean, San Lorentzoko pilota txapelketa; 19:00etan, pintxo-poteoa; eta 22:00etan, Muzak, Bananas, Burutik eta 2ki2kiak taldeak. *San Lorentzon.*

**ZINEMA****GASTEIZ****FLORIDA****Del reves 2**

Egubakoitza: 17:00, 19:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 19:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Bikeriders: la ley del asfalto**

Egubakoitza: 17:00, 21:45. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 21:45. Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Fly me to the moon**

Egubakoitza: 16:45, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 22:00. Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:30.

**Gru 4: mi villano favorito**

Egubakoitza: 17:15, 19:45. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:45. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**El barco del amor**

Egubakoitza: 19:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 19:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Padre no hay más que uno 4**

Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:15, 21:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:15. Martitzena: 17:00.

**Twisters**

Egubakoitza: 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 19:30, 22:00. Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Deadpool y Lobezno**

Egubakoitza: 16:45, 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 19:30, 22:00. Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:30.

**El buen italiano**

Egubakoitza: 16:45, 22:00. Astelehenetik eguenera: 16:45.

**Norbert(a)**

Egubakoitza: 19:30, 21:30. Astelehenetik eguenera: 19:30.

**BOULEVARD****Deadpoll y Lobezno**

Egubakoitza: 15:45, 16:45, 17:15, 17:45, 18:30, 19:30, 20:00, 20:30, 21:15, 22:15. Eguaztena: 21:55.

**Deadpoll y Lobezno 3D**

Egubakoitza: 16:00.

**Gru mi villano favorito 4**

Egubakoitza: 17:00.

**Del reves 2**

Egubakoitza: 16:00, 18:10,

19:55, 20:20, 22:30.

**Padre no hay más que uno 4**

Egubakoitza: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35. Zapatua eta eguaztena: 17:05, 19:15, 21:25. Domeka, astelehena, martitzena eta eguena: 17:05, 19:45.

**Fly me to the moon**

Egubakoitza: 18:45. Domeka, astelehena, martitzena eta eguena: 21:25.

**Bad boys**

Domeka, astelehena, martitzena eta eguena: 21:25.

**Un lugar tranquilo**

Egubakoitza: 22:45.

**Twisters**

Egubakoitza: 17:10, 19:45, 22:20. Martitzena: 17:10, 19:45.

**KRITIKA****Azul**

★★★★★

**Zuz.:** Krzysztof Kieslowski. **Herr.:** Frantzia (1993). **Aktoreak:** Juliette Binoche, Benoi Regent. **Iraupena:** 98 minutu.

**Musika eta bizitza****ANTONIO ZABALA**

Duela 30 urte pasatxo, Kieslowski zuzendari poloniarak Frantziako banderaren hiru koloreak erabiliz eta *askatasuna, berdintasuna* eta *adiskidetasuna* hitzak kontuan hartuta *Azul*, *Blanco* eta *Roj*o filmak burutu zituen. Trilogia ederra. Orain, zinema-aretoetan bueltan daude, ikuslearen gozamenerako.

*Azul* filmaren protagonistak senarra eta alaba galtzen ditu auto istripu baten ondorioz. Bakarrik geratzen da munduan eta momentu horretara arte eramandako bizitza apurtzea eta jendearengandik aldentuta bizitzera erabakitzen du. Baina musikaren laguntzarekin konturatzen joango da hori ezinezkoa dela, eta lehenengo bizitzaren osagai

eta pertsona batzuekin batera posible dela bizitza berri bat eraikitzea.

*Azul* film liluragarria da, hainbat arrazoirengatik: alde batetik, Juliette Binocheren interpretazioagatik eta kamerarekin duen harreman magikoagatik; beste alde batetik, irudien urrezko koloreak urdin kolorearekin batera sortzen duen edertasunagatik; eta, azkenik, musika eta soinua erabiltzeko moduagatik. Horren adibide izan daiteke filmaren hasierako istripuaren eszena. Hauraren aurpegia, autoaren egoera kaskarra, errepidean dagoen gaztea, iruditik kanpo gertatzen den erabilera... Osagai guztiek balio dute patuaren pisua antzemateko.

# EMAN izen!

**Bergarako Seminarixoan jokatuko da, 2024ko urritik urtarrilera arte.**  
Zuzeneko kontzertuak, talde bakoitzaren ordu erdiko emanaldiarekin.

**Debagoieneko musikari eta taldeendako.**

Berdin da lehenago Danbakan parte hartu duen edo ez.

**Kideetako batek, gutxienez, Debagoiengan errolatuta egon beharko du.**

Hiru abesti original aurkeztu beharko dira; horietako bat, gutxienez, euskaraz izan beharko da.

**Hasiberriendako zein aspalditik musikan dabilzanendako.**

Berdin da taldeak diskoa duen edo ez.

**Jotzen duten talde guztiek jasoko dute soinu-grabazioa, pistak nahastu ostean eta bideoan.**

Goiena telebistan, 'Goiena.eus'-en eta Primeran plataforman emango dira kontzertuak.

**Izen-ematea zabalik irailaren 22ra arte: [www.danbaka.eus](http://www.danbaka.eus)**

BABESLEAK



Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA



SEIN

ANTOLATZAILEA

goiena<sup>™</sup>

KOMUNIKAZIO TALDEA

